<sup>28</sup> Adibide bat aipatzearren, 155. azpisektorean, Esne-industria, IPARLAT kasua aztertzen da. KAIKUREN bitartez IPARLATEk izandako merkatal garapena 513.an «handizkako merkataritza» kokatzen delarik. Jatorrian, 50. hamarkadan, GURELESA eta COPELECHE abeltzain kooperatibak ziren. Enpresa hauek 013-4-5 azpisektoreetan sailkatzen direnean, ALTO EBRO KOOP. BALTZUAREN kasuan bezela, merkatal kutsu altu bat barneratzen dute beraien sarreretan, eta horrek beraien HHI-ren baliozkotasuna aldatu egiten du (3.898).

Sektore hauek, EAEko IOT taulen 1 eta 2 atalei dagozkie, Nekazaritza eta Abeltzaintza. 2004 urterako ustiapen sarreren kopuruek, 2004 urteko IOT taulen ekoizpen kopuruen %40ko proportzioa eskaintzen dute. Zentzu honetan, laginak sektorearen zati bat estaltzen du. Beraz, lortutako kontzentrazio adierazleak neurri egokian baloratu behar dira eskuratutako adierazgarritasun maila baxua baita.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte

	HHI <sup>29</sup>	BEE <sup>30</sup>	KIM <sup>31</sup>
Nekazal ekoizpena	1.925	%20	%368
Abeltzaintza ekoizpena	1.350	%49	%133

EAEko sektore irekitze maila altua eta EAetik at sektore bereko merkatal fluxu handia duten azpisektoreak dira. Azpisektore hauetan inportazioen pisu erlatiboaren garrantzia nabarmentzea beharrezkoa dela dirudi zeinak edozein kontzentrazio zeinu erlatibizatu behar izatea sortarazten duen. Hori dela eta, edozein kontzentrazio zeinuren kontzentrazio maila jeitsi egiten da merkatu boterearen banaketa terminuetan. Hau da, nahiz eta «lehiaren matrizearen» sailkapen zehatzak sektore hauek «berdeak» direla kontsideratu, aipatutako egoerek kontzentrazio zeinuak arintzeko aukera ematen dute, orokorrean sektore zuriekin parekatuz.

Garraio kostuen presentzia, abeltzaintzan espezializazio jakin bat duen herrialde batean eskariaren gorakada ezberdinen eragina, ekoizpen sektoreen zatiketa eta tokiko eskari eta ekoizpenaren arteko merkatal bideen presentzia, garrantzia handiko faktoreak dira. Prezioen eboluzioari dagokionez, ekoizpen eta merkaturatze tarteko faseetan marjinen handitzea zerk eragin dezakeen edo sinpleki nekazal eta abeltzainen kostu hadienak «aurrerantz» lekualdatzen diren planteatzen da. Industria eta merkatal talde garrantzitsuek, atzerakako integrazio bertikal maila altua dute non bere ekoizpenari lotutako lehen faseetan negoziaketa boterea indartzen duten.

## 02 TALDEA Basogintza, baso ustiapena eta hauekin erlazionatutako zerbitzuen jarduerak

EAEko IOT taulen 3. atalari dagokio gutxi gorabehera, Basogintza. Oligopolio egitura du, mikroenpresa ugari dituelarik.

Basogintza sektorean bi enpresa gailentzen dira besteekiko: Batetik, CENTRAL FORESTAL, S.A, punta-puntako enpresa, 2002 eta 2004 urteetako ustiapen sarreak kontuan izanik, %50 inguruko merkatu kuota duena. Bestetik, BIZKAIKO BASALAN AKZIOZKO BALTZUA AB, S.A. zeinak %6,6ko kuota duen. EAEko sektorea 58 mikroenpresako talde batekin osatzen da, laginak guztira 60 enpresa barneratzen dituelarik.


<sup>29</sup> Herfindahl-Hirschman Indizea.

<sup>30</sup> Barne Eskariaren Estaldura.

<sup>31</sup> Kanpo Irekitze Maila.

Sektore honen eta batez ere hegur sektorearen (ikus 20. taldea) zatikako egitura esanguratsuaren aurrean, tamaina handiko industria-bezeroak aurkitzen dira. Sektore hauek aztertzen ditugun unean ikusiko dugu guzti hau. Paper-orea egiteko basogintzako lehengaien eskaria guztiz kontzentratua aurkitzen da eta industria erosleen boterearen bidez zehazten da.<sup>32</sup>

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-04 bitarteko urteen ustiapen sarreraren kopurua, 2000. urteko 53 milioi euro eta 2002-2004 urteko 64 milioi euro kopuru artean aldatzen da. Honek, IOT taulen ekoizpen kopuruaren proportzio oso altu bat suposatzen du (2004. urtean %90,5). Zentzu honetan, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen du. Sektorearen eboluzioak, barne ekoizpenaren joera beherakorra adierazten du. Aipatutako urteetan, ustiapen sarrerak kontuan izanik, sektoreko enpresa mailek ez dute aldaketa esanguratsurik adierazten.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5 <sup>33</sup>	K10 <sup>34</sup>	EBZ <sup>35</sup>	BEE	KIM
2.727	%66,6	%76,11	4	%29	%219

<sup>32</sup> Eukalipto segmentuan koniferen segmentuan baino neurri handiagoan, egun oraindik eukaliptoaren norako nagusia papel-orea baita.

<sup>33</sup> K5: Lehenengo 5 enpresak.

<sup>34</sup> K10: Lehenengo 10 enpresak.

<sup>35</sup> Enpresen Baliokidea den Zenbakia.

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, kontzentrazio indize altuak ematen ditu, zeinak adierazgarritasun gutxiak diren sektore-irekitzearen maila altua eta EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu garrantzitsuen ondorioz. Guzti honek, kanpo lehiaren presioak, sektore egoeran eragina duela adierazten du.

Sektore «berde» bat dela esan daiteke beraz.

## 05 TALDEA Arrantza, akuikultura eta hauekin erlazionatutako zerbitzuen jarduerak (EJSN)

EAEko IOT taulen 4. atalari dagokio gutxi gorabehera, Arrantza.


Arrantza jarduera garatzeko erabili diren baldintzek aldaketa garrantzitsuak izan dituzte azken hamarkadetan, hala nola, arrantza eta arrantza baliabideei dagokien nazioarteko legeria, arrantza-stockaren sostengarritasunari buruzko kezka hazkorra, arrantza teknika berrien agerpena eta ontzien ezaugarrien aldaketak, nahiz orokorrean, goranzkoa izan den arrantza produktuak kontsumitzeko ohituretan emadakoak.

Ontzidiaren eboluzioak sektoreak izan duen eszenatoki murriztailea islatzen du. Gertaera esanguratsuena, unitateen galtze jarraia da, bai itsasbazterreko arrantzan bai itsas zabaleko arrantza segmentuan ere.<sup>36</sup>

Lau enpresa ertainen artean (gainontzekoak enpresa txikiak edo mikroenpresak dira), hurrengoak gailentzen dira: COMPAÑÍA INTERNACIONAL DE PESCA Y DERIVADOS, S.A. 2004 urteko ustiapen sarreraren kopuruak kontuan izanik %21,78ko merkatu kuota duen punta-puntako enpresa; eta ATUNEROS CONGELADOS Y TRANSPORTES FRIGORÍFICOS, S.A. %17, 5eko kuota duen enpresa. EAEko sektorea beste bi enpresa ertain, 12 enpresa txiki eta 41 mikroenpresek osatutako talde batekin osatzen da, lagina 57 enpresek osatzen dutelarik. Bere egitura orekatua eta lehiakorra bezela kalifikatu liteke zeinak tamaina ezberdinetako enpresa ugari dituen.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua, 191 milioi euro ingurukoa da. Honek IOT taulen ekoizpen kopuruekiko desproporzio bat suposatzen du (2004ean %130,6koa). Zentzu honetan, IOT taulen irizpideak jarraituz, laginak sektoreko eremua gaintzen duela baieztatu daiteke. Honen arrazoiak, zenbait enpresek arrain egite eta merkaturatze datuak barneratu izana izan litekeelarik. Sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren joan-etorriaren mugimenduak erakusten ditu. Aipatutako urteen ustiapen sarrerak kontuan izanik, sektoreko enpresen mailek ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten.

<sup>36</sup> Azken mende laurdenean, euskal ontzidiaren urteko galera metatua, %3,3koa da. Itsasbazterreko ontzidiaren kasuan, %2,4koa delarik eta itsas zabaleko ontzidiaren kasuan berriz, -%5,6 kopururaino iristen delarik.



Aztertutako indizeek, hurrengo emaitzak dituzte

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
998	%59,07	%74,52	10	%14	%456

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, kontzentrazio-indize baxuak aurkezten ditu, sektoreko irekitze maila altua eta EAetik at sektore bereko merkatal fluxu garrantzitsuak dituelarik. Guzti honek, kanpo lehiaketaren presioak sektorearen egoeran eragina duela adierazten du. Inportazio maila oso altuak dituen sektore bat da.

Sektore «zuri» bat da.

**10. TALDEA Antrazita, harrikatza eta turba erauzketa eta pilaketa, 11. TALDEA Petrolio gordin eta gas naturalaren erauzketa. Petrolio eta gas ustiapenarekin erlazioatutako zerbitzuen jarduerak, prospekzio jarduerak izan ezik eta 13. TALDEA Mineral metalikoen erauzketa**

EAEko IOT taulen hurrengo atalei dagokie gutxi gorabehera; 5 ikatzak, 6 petrolio erauzketa eta 8 mineral metalikoak. Sektore hauek ez dute jarduerarik EAEn.

**14. TALDEA Mineral ez metaliko eta ez energetikoen erauzketa**

EAEko IOTen 9. atalari dagokio gutxi gorabehera, Mineral ez metalikoak.


Jarduera hau, 265. Porlana, karea eta igeltsuaren fabrikazioa eta 266. Hormigoi, igeltsu eta porlan elementuen fabrikazioa, azpisektoreekin oso erlazioatuta

dago. Erlazio honen arrazoiak, aurrerago ikusiko den moduan, azpisektore hauetan barneratzen diren enpresek, harrobietatik gertu kokatuta egon behar dutela da.

Datu-baseak, 54 enpresa biltzen ditu zeinak 352,7 milioi eurotako ustiapen sarre-rak batzen dituzten. Zenbateko hau, EAEko ekoizpen kopurua baino pixka bat handiagoa da. Guzti hau, datu-basean 26. taldean (porlan eta hormigoi fabrikatzaileak batez ere) kokatzen diren baina aldi berean arauzleak diren enpresak, nahiz beste sektore batzuetan dibertsifikatu diren enpresak (industria kimikora adibidez) barneratzen direlako gertatzen da.

Laginean, MINERALES Y PRODUCTOS DERIVADOS, S.A., MINERSA gailentzen da, %33,05eko merkatu kuota duelarik eta industria mineral eta produktu kimikoen sektoreetan eskumendekoak diren enpresa talde baten enpresa matrizean bihurtu delarik.<sup>37</sup>

Jarraian, ustiapen sarreren arabera, ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. enpresa handia kokatzen da zeinak %23,74 inguruko merkatu kuota duen.<sup>38</sup>



<sup>37</sup> Industria-mineralen sektorean 50 urte baino gehiagoko esperientzia izanik, MINERSA S.A. Espatuo Fluor munduan punta-puntako kokapena lortu du eta munduko sulfato sodiko ekoizle garrantzitsuenetarikoa batean eta europar merkatuan Seopiolita eta Barita ekoizle nagusienetarikoa batean bihurtu da. Enpresa honek egindako hazkunde jardueren artean, 1996. urtean DERIVADOS DEL FLUOR, S.A. enpresaren akzio gehiengoaren partaidetza eskuratu zuela nabarmentzen da. Azken enpresa honek, aurrerago aztertzen den 241. oinarrizko kimika azpisektorean 2. toki eskuratu du.

<sup>38</sup> 2006 urtean, CALCINOR taldearen bitartez, 265-266 porlan eta hormigoi fabrikazio azpisektoreko liderra denaren bitartez, eskuratua izan da. Jarduera honek, erazketa jardueren barneratzearen bitartez, beste batzuen artean, CALCINOR enpresari bere negozioa dibertsifikatzeko eta zabaltzeko aukera eman dio.

Hurrengo postuetan 4 enpresaertain kokatzen dira eta gainontzekoak enpresa txiki eta mikroenpresak dira.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
1.827	%74,21	%83,84	%26,64	%244,45


Kontzentrazio-indizea muga altuan kokatzen da, barne eskariaren estaldura aldiz, oso urria da eta kanpoko irekitze maila oso altua.

14. taldea «zuri-berde» tartean sailkatzen da beti ere soilik erauzketa jardueraren sarrera datuen erabilpenak kalkulaturako kontzentrazio-indizea murrizten duela kontsideratzen bada. Halaber, inportazio altuek kalkulaturako indizeari garrantzia kentzen diote.

Sektore hau, balio katearen ondorengo taldeekin erlazionatzea interesgarria da, 26. taldearekin adibidez, Produktu mineral ez metalikoak.

## 15 TALDEA. Elikagai eta edari industria

EAEan ohiko ezarpena duen sektorea da. Enpresa garrantzitsuek osatzen dute eta orokorrean, azken urteetan, esportazio mugimendu eta kanpo irekitze esanguratsua izan du.



Bere osotasunean, zuhurki kontzentratua den sektorea dela kontsideratu daiteke. Haatik, bere garrantzia eta bere osagaien heterogeneotasuna dela eta, azpisektore nagusien inguruan analisi zehatzago bat egiten da. Azpisektore mai-

la honetan, zenbait kontzentrazio adierazle, indizeen balio maila altuen bidez nabarmentzen dira. Hala ere, kasu gehienetan, aurrerago aztertzen den salbuespen baten bat izan ezik, zeinu hauek arinduta edo guztiz baliogabekuta geratzen dira erreferentziazko merkatuak EAEko eremu geografikoa garbi gailentzen duen egiaztapenaren bitartez. Laburbilduaz, sektore mota guztiak aurki daitezkeen talde heterogeneo bat dela baieztatu daiteke (gorriak, laranja, horiak, berdeak eta zuriak).

**151 azpisektorea, Haragi industria** (EJSNko 151 taldea) EAEko IOT taulen 10. atalari dagokio gutxi gorabehera, Haragi industriak. Ohiko sektorea da non kalitate-desberdintzapena lehiakortasun osagai indartsua den, sektorearen adierazgarriak diren politika funtzionalen<sup>39</sup> bidez (ekoizpen, marketing, etab.) nabari daitezkeen moduan.

Bere egitura zatikatua dela esan daiteke, EAEn ETE zerrenda garrantzitsua duelarik.


Haragi-industria azpisektorean, hiru enpresa ertain nagusitzen dira: FELIPE AMEZUA, S.A. 2004 ustiapen sarrerak kontuan izanik %14 inguruko merkatu kuota duena; CÁRNICAS DONOSTIARRAS, S.A. 2000 eta 2004ko datuek diotenez, %13 inguruko merkatu kuota duena eta DELICASS SOCIEDAD DE ALIMENTACIÓN, S.A. 2004 urteko ustiapen sarreraren arabera %11 inguruko merkatu kuota duena. Datu hauen arabera, 3 enpresen kasuan, ustiapen sarrekeriko %38 inguruko metatutako merkatu kuotaren aurrean egongo ginateke. EAEko sektorea, 5 milioi euro baino gehiago fakturatzeko dituzten 6 enpresek, 11 enpresa txikiak (2 milioi euro baino gehiago fakturatzeko dituztenak) eta 32 mikroenpresek osatzen dute.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urteko ustiapen sarreraren kopuruak kontuan izanik, 130 milioi euro eskuratu bitarteko igoera<sup>40</sup> garbia izan dutela ikus daiteke. Honek erlatiboki baxua den proportzioa suposatzen du, IOTen ekoizpen kopuruen %30 ingurukoa. Kasu honetan, laginak sektorearen heren bat estaltzen du, hau, sektore ez sozietario oso garrantzitsua izateak azaldu dezakeelarik (haragitegiak, etab.)

<sup>39</sup> Guzti hauen artean, «Label Vasco» edo «Eusko Label», Euskal Okelaren erabilera gailendu daiteke. Euskal Okela markaren zeinu grafikoa kalitatearen K letra da eta EAEn ekoiztu, eraldatu eta/edo landutako nekazal produktuak identifikatu eta bereizten ditu. Bere kalitate, zehaztasun edo berezitasun mailak batzbesteko orokorra gaintzen du. Eusko Label produktu guztiak Erregelamendu Tekniko baten menpe daude eta arau guztiak betetzen direla bermatzeko, kontrol bereziak pasa behar dituzte. Kalitate fundazioa, kontrol eta produktuen ziurtapen organua da, Eusko Label-Kalitatea. Gainera, Euskal Okela, jatorri-deitura (JD) gisa arrezagutu du Europar Batasunak.

<sup>40</sup> Sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren joera hazkor garbia adierazten du. Hala ere, NICOSA TRADE, S.A. enpresaren desagertzeari aipamen berezia egin behar zaio. Bere sarrerak kontuan hartzen badira, 2000 eta 2004 bitarteko sektorearen eboluzioa ia laua baita. Kontuan hartutako urteetan ustiapen sarrekeriko sektoreko enpresen mailek, aurretik adierazitakoez gain, ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten.





Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
680	%48,43	%68,79	15	%28-30	%225

Kontzentrazio-indizeak mugatuak dira eta gainera, sektoreko irekitze maila altua eta EAEtik at dagoen sektore bereko merkatal fluxu garrantzitsua kontuan izanik, adierazgarritasun gutxikoak direla esan daiteke. Badirudi, sektore honetako inportazioek duten pisu erlatiboaren garrantzia nabarmentzea beharrezkoa dela eta honek edozein kontzentrazio zeinu erlatibizatu behar izatea dakar.<sup>41</sup>

Inportatzailea den sektorea da eta inportazioek sektoreko ekoizpena errez bikoizten dute. Output merkatuak dimentsioz euskal eremua gainditzen du beraz, badirudi produktuen merkatuan, lehiakortasun efektiboaren arazorik ez dagoela. Aldiz, animalien garraio kostuen presentziak eta osasun erregelamenduak presentziak ez dira mespretxagarriak akabatze fasean. Hori dela eta, adierazgarria den merkatuaren dimentsio geografikoa erregionala da ziurrenik. Baldintza hauekin, atzerakako integrazioa eta azpisektore batzuetan dauden zatikako maila ezberdinak kontuan izanik, prezioen egoera erregionalak eta jatorri haragi merkatuek azterketa zehatzago bat beharko lukete.

Azpisektore «zuria» da.

<sup>41</sup> Honek, kanpo lehiaren presioak kalitateruntz zuzendutako sektorearen birmoldaketa bat bultzatu duela adierazten digu.

**152 azpisektorea, arrain egite eta kontserbagintza eta arrainez egindako produktuak** (EJSN), EAEko IOTen 12. atalari dagokio gutxi gorabehera, Arrain-kontserbak.

EAEEn ohiko ezarpena duen sektorea da zeinak enpresen berregituraketa eta birmoldaketa egoera jasan duen. Egoera honi heldutasuna eta hazkunde eza gehitu behar zaizkio<sup>42</sup> (nahiz eta kanpo merkatuetan hazkunde aukerak egon). Guzti honen, lehiaren areagotzea bultzatu du, batez ere prezio gaietan non marjin baxuekin lan egiten den.<sup>43</sup>

Bere egitura kontzentratu-zatikatu gisa kalifikatu daiteke non merkatuko %62a duten bi enpresa elkarbizi diren eta gainontzeko %38a EAEko ETE zerrenda luze baten artean banatzen den.

Arrain egite eta kontserbazio eta arrainean oinarritutako produktuen sektoreak bi enpresa nagusi ditu: CONSERVAS GARAVILLA S.A., 2002-2004 urtetako ustiapen sarreren kopuruak kontuan izanik, %47ko merkatu kuota inguru duena eta SALICA INDUSTRIA ALIMENTARIA S.A., 2002-2004ko datuen arabera, %15eko merkatu kuota duena.


Bi enpresa hauek osatzen duten metatutako merkatu kuota, ustiapen sarrerekiko kalkulatu den %62koa da. EAEan sektorea, 10 milioi euro baina gehiago fakturatzeko duten 3 enpresa ertaineko taldeak, 21 enpresa txikiak (2 milioi euro baina gehiago fakturatzeko dutenak) eta beste 25 mikroenpresek osatzen dute. Kasu askotan, finantza baliabide gutxi dituzten familia enpresak dira eta era berean, beraien instalazioak berritzeko finantza behar handiak dituztenak, arau orokorretara egokitu behar dutenak eta atunaren arrantzaldia finantzatu behar dutenak dira.<sup>44</sup>

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, laginak ia sektore osoa estaltzen du. 2004 urterako ustiapen sarreren kopuruak 351 milioi euro inguruko balioak ematen ditu, aurreko datuekiko oso egonkorrak direnak. Azken hau merkatua heldua denaren seinale da. Kopuru hauek IOT taulen ekoizpen kopuruen hurbilketa bat suposatzen dute, proportzioa 2004ko IOTen ekoizpen kopuruen %91 delarik. Ustiapen sarrerekiko sektoreko enpresen mailaketak ez du aldatuta esanguratsurik aurkezten.

<sup>42</sup> Merkatu bat hazten ez denean, enpresak lehiakideen merkatu kuota bilatzeko dinamikan sartzen dira.

<sup>43</sup> Galiziako kontserba-fabrika handiek (Calvo, Rianxeira, etab) atuna jasotzen dute eta ez hegaluzea. Batzuk beraien ontzidi propioa dute, integrazio bertikala ematen da, bolumena oinarri dute eta prezioan lehiakorak dira. Euskal kontserba-fabrikak aldiz, batez ere lehengai oinarritzen den kalitatean espezializatutako enpresa txikiak dira orokorrean, Garavilla eta Sálca izan ezik. Iparraldeko atun berri eta aldikoarekin lan egiten dute eta arrantza teknika tradizionalak erabiltzen dituzte.

<sup>44</sup> Lau hilabete bitartean, urte guztian fakturatutako den guztia erosi, landu eta *stockean* mantendu behar da.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
2.545	%72,77	%81,80	4	%44	%111

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize altuak ematen ditu baina indize hau sektoreko irekitze maila altua eta EAetik at dagoen sektore bereko merkatal fluxu neurrizkoaren bidez zehaztu behar da. Beraz, kontzentrazio maila altuak arindu egiten dira merkatu boterearen banaketa terminoetan. Sektore honetako esportazioen<sup>45</sup> pisu erlatiboaren garrantzia nabarmendu behar da zeinak edozein kontzentrazio zeinu erlatibizatu behar izatea dakarren.

Azpisektore «horia» da.


**154. azpisektorea, koipe eta oliogintza (landare eta animalia koipe eta olioak)** (EJSN), EAEan IOT taulen 14 atalari dagokio gutxi gorabehera, Landare-koipeak.

EAEan garrantzia handia eta estatuan eragina izan duen sektorea da. Enpresa euskaldun bat (KOIPE<sup>46</sup>, S.A.) Espainiako lehenengo olio-taldea izan zen, oliba

<sup>45</sup> Sektoreak, IOT taulen informazioa kontuan izanik, kanpo irekitze maila altua aurkezten du. Sektoreko lehenengo enpresak %16-25 balio-maila tartean aurkitzen dira. Datu hauek sektorearen nazioarteko dimentsio hazkorra baieztatuko lukete (eta ondorioz, bere merkatu adierazgarri geografikoa), batez ere, esportazio joera altua eta inportatzaile osagai adierazgarria duten enpresa txikiagoen existentziaren aurrean. Ikuspuntu esportatzaile naiz inportatzailetik, kanpora nahiko irekia den sektore bat dela esan daiteke.

<sup>46</sup> KOIPE, S.A. SOS (SOS CUÉTARA, S.A.) taldeak xurgatu du. SOS CUÉTARA, S.A eta KOIPE S.A.ren, xurgapen bidezko fusioa 2003 urtean eman zen SOS CUÉTARA, S.A. izena mantendu zutelarik.

eta girasol olio esparruan liderra. Enpresa honekin gertatutako edozerk, EAEko sektorean kontzentrazioarekin nahiz lehiarekin zerikusia duen edozein analisi kuantitatibo aldatzen du.<sup>47</sup> Egitez, egun, fakturazio bolumen murriztua duen erakunde bat soilik ageri da enpresen datu-basean, ondorioz, kontzentrazio-indizerako kalkulatu diren balioen izate eta esanahiaren ezereztatzen delarik. Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasuna antzigabea da, ustiapen sarreren kopuruek, IOT ekoizpen kopuruen portzentai oso baxua suposatzen dutelarik (%1,97 2004ean). Zentzu honetan, lagina esanguratsua ez dela baieztatu daiteke.




IOTen informazioaren arabera, sektoreak kanpo irekitze maila altua (%150 KIM) eta EAE eta gainontzeko estatu eta atzerriaren arteko industria-barneko merkataritza altua aurkezten du (%25eko BEE). Datu hauek, sektoreko parametroek dagoeneko aipatutako eragiketen aurrean duten aldaketa sustantziala egiaztatzen dute.

**155. azpisektorea, Esne-industriak** (EJSN), EAEko IOT taulen 11 atalari dago-kio gutxi gorabehera, Esne-industriak.

Azpisektore hau ezberdindutako bi segmentuk osatzen dute: esneki fabrikatzaileak eta izozkiak.

<sup>47</sup> Zentzu honetan, eragiketa hauek ikerketa honetan planteatu den azterketarako analisiarekin denboran bategiteak, erabilitako adierazleen interpretazio eta emaitzak erabat aldatzen ditu.

Esne-industria sektorean, bi enpresa handi dira azpisektore bakoitzean punta-puntakoak: HELADOS Y POSTRES, S.A.,<sup>48</sup> ustiapen sarreren kopuruak kontuan izanik, esneki sektorearen %49ko merkatu kuota duena; eta IPARLAT, S.A.,<sup>49</sup> %45 inguruko merkatu kuota duen esne likido eta beste esneki batzuk egiten dituen. Azken honek 2002 urtean ia %63ko merkatu kuota lortu zuen. 2004ko ustiapen sarreak oinarritzat harturik, bi enpresa hauen metatutako merkatu kuota, %94,8koa da. EAEan, sektorea enpresa ertain batekin (ESNELAT S.L zeinak 13,7 milioi euro baino gehiago fakturazten duen) eta fusioaren<sup>50</sup> ondorio diren ustiapen sarreak batzen baditugu, ia kontsiderazio berdina lortzen duen beste enpresa batekin (QUESERIAS DE ARAYA S.A) osatzen da. 2 enpresa txiki (2 milioi baino gehiago fakturazten dute) eta beste 8 mikroenpresa existitzen dira gehigarri moduan.<sup>51</sup>



Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-2004 urte bitarteko ustiapen sarreren kopuruek hazkunde garbia adierazten duten,

<sup>48</sup> HELADOS Y POSTRES, S.A. NESTLE taldeko kide denak, multidomestika estrategia (NESTLE taldeko ezaugarria) espainiako merkatuan ezarri zuen.

<sup>49</sup> IPARLAT, S.A. 1992 urtean sortu zen, Kooperatiba anitz eta Euskal esne-zentralen arteko integrazioaren ondorioz. 1996. urtean, botilatze planta berratu zen eta LACTARIA ESPAÑOLA jasotze sarea. Beraz, esneki produktuen ekoizpen eta merkaturatze prozesu osoa berratu zen.

<sup>50</sup> QUESERÍAS ARAYA, S. A.k (Sozietate xurgatzailea) eta QUESERÍA EL PASTOR VASCO, S.L.k (Sozietate xurgatua) 2005eko abenduaren 20an Quesería el Pastor Vasco S.L sozietatearen fusioaren bidezko xurgatzea aho batez adostu zuten. Non xurgatutako sozietatearen likidaziorik gabeko desagertzea eman zen (MEAO 008 zk.- 2006ko urtarilak 12).

<sup>51</sup> Hemen ere beste kontzentrazio eragiketa bat eman da ARTESANOS KARRANTZA, S.L. eta GESTILAT, S.L. artean emandako fusioaren bidezko xurgatzearen ondorio izan dena (MEAO 045 zk- 2007 martxoak 5).

2000 urteko 300 milioi euro kopurutik hasita 564 milioi euro eskuratu arte. Honen IOTen ekoizpen kopuruen proportzio oso altua, desproporziozkoa nolabait (%114 eta %134 tartean), suposatzen du. Zentzu honetan, IOT taularen irizpideak jarraituz, laginak sektore eremua gaintitzen du. Honen azalpena, EHko eta EJSNko IOT taularen definizioek bat egiten ez dutela delarik. Edozein kasutan, sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren eta ustiapen sarreren joera hazkorra aurkezten du dagozkien iturrien arabera.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
4.510	%99,18	%99,98	2	%31	%158

Kontzentrazio-indize oso altuak aurkezten ditu. Haatik, kanpo merkatuko fluxuak eta merkatu adierazgarri geografikoa (ikus aurrerago) kontuan izanik, sailkapen hau merkatuko boterearen banaketa terminoekiko zehaztu daiteke.

Hori dela eta, bi aspektu azpimarratu behar dira. Lehenik, bi ekoizle euskaldun nagusien (HELADOS Y POSTRES, S.A., de NESTLÉ ESPAÑA, S.A eta IPARLAT, S.A) jabe diren taldeen jatorria eta nazioarteko eremua eta bigarrenik, sektore honetako inportazioen pisu erlatiboaren garrantzia, zeinak edozein kontzentrazio zeinu gutxienez zehaztua izatea bultzatzen duen. Indize hauek eremu ireki batean kokatu behar dira sektorearen irekitze maila altua eta EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu garrantzitsua kontuan izanik. Guzti honek, kanpo lehia presioak, kalitateruntz bideratutako sektorearen berrantolaketa prozesu bat bultzatu duela adierazten du. Oinarrian, batez ere inportatzailea den sektore bat dela esan daiteke, non inportazioek sektoreko ekoizpen maila antzekoak dituzten.

Sektorearekiko izaera orokorra kontuan izanik, Merkatu Geografiko Adierazgarria (MGA) nazionala dela ikus daiteke eta honek a priori<sup>52</sup> aztertutako kontzentrazio arazoa zehaztu egiten duela.

Nahiz eta esnekiaren merkatu adierazgarriak euskal eremu geografikoa modu nabarian gailentzen duen, ezin da saihestu esnearen oinarriko inputak, kostu eta jasotze zirkuitoek, biltegiratze eta garraioak bertako merkatuari pisu garrantzitsua ematen diotela. Jatorrizko esne merkatuan kontuan izan behar den aspektu garrantzitsu bat merkatuaren erregularizazioa eta kuoten araubidea da. Ondorioz, ekoizleentzat arazoak eta aldaketa kostuak izaten dira. Sektorea Espainia mailan oligopolioa denez, merkatu erregionaltan eros ahalmenaren

<sup>52</sup> IPARLAT, S.A enpresa, eskualde eremuko esne ekoizpen enpresen artean lehenengoa izan arren, estatu mailan hamabigarren tokia besterik ez du eskuratu eta Espainiako esne ekoizle enpresa handiekiko distantzia nabaria da GRUPO EBRO PULEVA, GRUPO DANONE, GRUPO CORPORATIVO TEYPE eta GRUPO PASCUAL. HELADOS Y POSTRES, S.A., enpresari dagokionean berriz ezin da gauza bera esan, Espainia mailan nabarmenki gailentzen baita, liderra izanik.

arrisku ezberdinak ezin dira baztertu, gainera ekoizpen kuoten efektua eta esne merkatuaren irekitze progresiboa industria erabilpenerako eta hemedik sortutako inportazioen hazkundeak prezioen zehaztapenerako oso garrantzitsuak diren elementuak dira.

Azpisektore «laranja» da.

**157 azpisektoreari** dagokionez, **animalien elikadurarako produktuak fabrikatzea (EJSN)**, IOT tauletan atal zehatzik gabekoa eta EAEn garrantzia gutxi duen azpisektorea da.

Bere fakturazio bolumena mugatua da (50,4 milioi euro), enpresa ertain bakarra du, PIENSOS BASTIDA, eta bost enpresa txiki. Sektoreak estatu mailan nolabaiteko garrantzia duen kontzentrazioa aurkezten du, nahiz eta zereal eta soia-aren inportazioak eta sarrera hesien ausentzia merkatu boterearen faktore aringarriak izan. Sektore honek kontzentrazio-indize oso altuak aurkezten ditu (HHI 4.037koa da 2004. urteko ustiapen sarreraren datuetan oinarrituz). HHIren balioa 2 enpresen baliokidea da. Haatik, emaitza hauek ezin dira adierazgarri kontsideratu.


Analisiari dagokionez, 15. taldeko azpisektoreak pilatu dira: fruitu eta barazkien prestatze eta kontserbazioa, 153 EJSN, errotaritzako produktu, almidoi eta produktu almidoidunen fabrikazioa, 156 EJSN, eta beste janari produktu batzuen fabrikazioa, 158 EJSN.

Lehenego beharretarako ondasunak ekoizten dituzten azpisektoreak direnez, hala nola, fruitu eta barazkiak, ogia eta bere eratorriak eta ondorioz, presentzia iraunkorra dutenak direnez, beraien enpresen izate eta ezaugarriak aztertzeke zailak diren sektore batean bihurtzen dira, erabilitako iturrien arabera. IOTen atalekiko loturak ez dira batere zuzenak eta azpisektore hauek gehituaz soilik 13. atalarekin, Ogi eta errotaritzeta eta 15. atalarekin, Beste janari produktu batzuk, lotu daitezke nolabaiteko maila adierazgarriak estimatuz (laginaren adierazgarritasuna).

Oso zatikatuak daude; soilik dimentsio handiko bi enpresa barneratzen dira, NATRAZAHOR S. A. eta SNACK VENTURES MANUFACTURING S.L. (70 milioi euro baino gehiagoko fakturazioa dutenak), BRIOCHE PASQUIER RECONDO S.L., bezalako enpresa ertainak, nolabaiteko dimentsioa duten ETE anitzek eta ia hirurehun mikroenpresek osatzen duten zerrenda luzeak jarraitzen dietelarik. Orokorrean, ikuspuntu geografikotik, merkatua EAEko dimentsioan geroz eta zentratuago dagoela dirudi, azpisektore hauen izaera zatikatu eta azken kontsumitzaileari bideratutakoarekin bat egiten duelarik.

Hori dela eta, eransketa kontuan izanik, azpisektore hauen enpresen datu-basearen adierazgarritasuna neurrizkoa da. 2004. urterako ustiapen sarreraren kopuruak, 521 milioi eurotakoak dira. Kopuru hauek IOTen ekoizpen kopuruaren %55,4a osatzen dute 13. atalak, Ogi eta errotaritzeta eta 15. atalak Beste janari produk-

tu batzuk (2004ko 940,5 milioi euro orotasunean). Zentzu honetan, burututako doikuntza kontuan izanik, laginak azpisektoreen gehiengoa estaltzen du eta horregatik, adierazgarria kontsideratu daiteke.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

Atala	HHI	BEE	KIM
13	555	%75,69	%50
15	555	%44	%120

Batazbesteko kontzentrazio-indize oso baxua kalkulatzen da. Bakoitza aztertuz eta IOT taulen informazioan oinarrituz, 13. atalak neurritzkoa izateko joera duen KIM bat aurkezten duela baieztatu daiteke. BEEak EAE eta gainontzeko estatu eta atzerriaren artean geroz eta baxuagoa den industria barneko merkataritza dagoela adierazten du. 15. atalaren kasuan, KIM kopurua asko gailentzen da eta BEEa txikiagoa da.

Hasiera batean, azpisektore «zuriak» bezala kontsideratu daitezke.

EAEko lehia-egoerari buruzko ikerketa orokor honen helburuak kontuan izanik, lortutako erantsitako HHIaren emaitza desglosatzea erabaki da eta lehiari dagozkion arrisku posibleak zehazteko, «lehia semaforoa» matrizean dagokion BEEarekin erlazionatzea. Beraz, Ogi eta Errotaritza 13 atalari dagokionez, eta bere sailkapenaren berrausnarketa egin ondoren, sektore «berde» bezala sailkatzen da 2004 urterako 555 HHI eta %75,69ko BEE konbinatzen baitira. Balio sistema osoan, lehengaitik azken kontsumitzailea arte, parte-hartzen duten ageenteen artean



existitzen den desoreka, lehenengo beharrei lotutako ondasunei eragiten dien hazkundearen eragilea izan daiteke.

**159. azpisektorea. Edari alkholdunen elaborazioa** (EJSN), IOT taulen 16. atalari dagokio gutxi gorabehera, Edari alkholdunak. **Era berean, segmentu ezberdinak barnertzen ditu: 1591 edari alkholdunen destilazioa; 1592 hartiduragatiko alkohol etilikoaren destilazioa; 1593 ardoen elaborazioa; 1594 sagardo eta fruituetatik sortutako beste edari hartituak; 1595 hartiduratik eratorritako beste edari ez destilatutak; 1596 garagardoaren fabrikazioa; eta 1597 malta fabrikazioa.**

EAEan ohiko ezarpena duen sektorea da, batez ere, gradu baxuko edari alkholdunei dagokionean (ardoa, txakolina, sagardo). Oso lehiakorra den sektorea da eta tamaina guztietako enpresek osatzen dute (upategiak batez ere). Enpresa hauek, kalitate hobea bat lortzeko helburuak bultzaturik, eguneratze ibilbide esanguratsua eta adierazgarria dute. Sektore hauek «araututako sektoreak» dira kontseilu arautzaileek ezarritako baldintzak bete behar baitituzte (kalitatea, kuotak, etab.).<sup>53</sup>

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, neurrizkoa da. 2004 urterako ustiapen sarreraren kopuruak 393 milioi euro inguruko balioak ematen ditu, aurreko datuekiko joera hazkor bat duelarik. Kopuru hauek IOT taulen ekoizpen kopuruekin partzialki bat datoz (IOT taulen ekoizpen kopuruaren proportzioa %54koa da 2004ean). Aztertutako urteetan ustiapen sarrerekiko sektoreko enpresen mailaketak ez du aldaketarik izan DOMECC WINES ESPAÑA, S.A.ren kanpo hazkundearen bidez emandako hazkunde gorenarekin salbu.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta neurrizko kontzentrazioa du, non merkatuko %45a bi enpresa handiek eskuratzen duten, eta gainontzeko %55a sei upategi ertainek, hamabost enpresa txiki inguruk eta ia ehun mikroenpresek eskuratzen dute.


Edari alkholdunak elaboratzen dituen sektoreak, bi enpresa handi barnertzen ditu: DOMECC WINES ESPAÑA, S.A., 2004ko ustiapen sarrerak kontuan izanik %29 inguruko merkatu kuota duena eta EL COTO DE RIOJA, S.A., zeinak %17 inguruko merkatu kuota duen. Datu hauen arabera, bi enpresa huen metatutako merkatu kuota %45 ingurukoa izango litzateke ustiapen sarreraren arabera.<sup>54</sup>

Aزتتutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte.

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
1.341	%67,53	%78,15	7	%82	%60

<sup>53</sup> Garrantzia handiko jatorri-deitura anitzen existentzia nabarmentzen da, hala nola, «Rioja», «Bizkaiko Txakolina», «Getariako Txakolina» edo «Arabako Txakolina».

<sup>54</sup> Hala ere, 2005eko datuek kopuru hauek DOMECC enpresaren fakturazioaren eraketarekin arintzen ditu. DOMECCen fakturazioa %14a arte erori zen eta EL COTO sektoreko liderra izatera pasa zen horrela %30eko K2 bat sortuaz.



EAEko enpresetara mugatutako sektoreak neurrizko kontzentrazio-indize batzuk eskaintzen ditu, neurrizko kanpo irekitze maila batekin batera eta EAetik at sektore bereko merkatal fluxu baxuarekin. Ondorioz, neurrizko kontzentrazio mailak, merkatu boterearen banaketa terminuetan modu egokian proiektatzen dira. Autokontsumo altuarekin batera, sektore honetako esportazioen<sup>55</sup> pisu erlatibo hazkorra nabarmentzen da eta honek edozein kontzentrazio zeinu erlatibizatu behar izatearen joera sortzen du.

Azpisektore «horia» da.

**1598 azpisektorea, alkoholik gabeko edarien elaborazioa** (EJSN), EAEko IOT taulen 17 atalari dagokio gutxi gorabehera, Alkoholik gabeko edariak. Bere ezau-garriak direla eta, modu espezifikoan aztertu behar da.

Alkoholik gabeko edariak egiteko sektoreak, azpisektoreaz guztiz jabetu diren bi enpresa ditu: PBG HOLDING DE ESPAÑA ETVE, S.L. (PEPSI)<sup>56</sup> zeinak igoera gar-bian, %78ko merkatu kuota izatera iritsi den 2004ko ustiapen sarreren kopuruak kontuan izanik; eta COMPAÑÍA NORTEÑA DE BEBIDAS GASEOSAS NORBE-GA, S.A. (COCA COLA), 2004ko datuen arabera, %22 inguruko merkatu kuota duena. Hau da, bi enpresa hauen metatutako merkatu kuota %99,19koa da, 2004

<sup>55</sup> Sektoreko lehenengo enpresak %26-50 esportazio mailan aurkitzen dira (Idatu-basea). Datu hauek sektorearen nazioarteko dimentsioaren handitzea baieztatzen dute, batez ere, esportazio joera altua duten enpresa txikien existentziaren aurrean.


<sup>56</sup> PEPSI-COLA DE ESPAÑA, S. L. (Sozietate xurgatzailea) PBG HOLDING DE ESPAÑA, ETVE, S. L. PBG BOTTLING GROUP SPANISH INVESTMENTS, S. L. (Sozietate xurgatua).

urteko ustiapen sarrerekiko. EAEn, sektorea enpresa txiki batek (AGUA DE INSALUS, S.A.) eta bost mikroenpresek osatzen dute.

Edari freskagarrien merkatuan errekonozimendu orokorra duten marka historiko hauetara, hala nola, PEPSI eta COCA COLA, lotuta dauden enpresen ohiko nagusitasunek adierazgarria den gehigarri bat dute eremu geografikoa edozein delarik, PEPSI holdingaren bitartez eskuratu zituen<sup>57</sup> EAE bertako enpresekin existitzen den tradizioa hain zuzen ere (KAS taldea, beste batzuen artean).

Sektorearen barruan bi enpresa hauek duten aparteko pisua dela eta, balio kate gehigarrian negoziaketa boterearekin erlazioa duten faktore guztietan indar positio bat lortzen dute.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-2004 urteetarako ustiapen sarreraren kopuruak igoera garbia adierazten duten balioak ematen ditu: 2000. urtean 804 milioi euroatik 1092 milioi eurotarainoko balioak hain zuzen ere. Honek 2004 urtean IOTen ekoizpen kopuruen proportzio oso altua, desproporziozkoa nolabait (%230), suposatzen du. IOTen irizpideak jarraituz, laginak sektorearen eremua gailentzen du. Hau, azpisektoreko enpresa duopolisten ezaugarri bereziak direla eta azaldu litekeelarik. Edozein kasutan, sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren eta ustiapen sarreraren joera hazkor garbia adierazten du, bakoitzaren iturrien arabera. Aztertutako urteak kontuan izanik, ustiapen sarrerekiko sektoreko enpresen mailek ez dute aldaketa esanguratsurik izan.



<sup>57</sup> PBG HOLDING DE ESPAÑA ETVE SL Araban helbideratutako eta ezkutuan dauden hogeitau eskumendeko izanik sortzen da, izen ezberdinak dituelarik. PBGan baneratu diren konpainia berri guztiek beraien jarduera edari eta aperitiboen fabrikazio eta banaketan zentratzen dute. PEPSIcoren arabeko fabrika munduko hirugarrena da ekoizpen bolumenarekiko.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
6.482	%78	%65

Bere egitura duopolio formakoa eta oso kontzentratua dela esan daiteke. HHIaren balioak bi enpresen baliokidea den zenbakia ematen du (guztiak berdinak izango liratekeen kasuan). Sektorearen neurrizko irekitze maila mantentzen du eta EAetik at dagoen sektore bereko merkatal fluxu baxua. Ondorioz, kontzentrazio maila oso altuak, merkatu boterearen banaketa terminuetan modu egokian proiektatzen dira. Aurreko edari alkoholodunen azpisektoreekiko antzekotasuna kontuan izanik, sektore honetako esportazioen pisu erlatibo hazkorra nabarmentzen da, zeinak sektoreko kontzentrazio altua erlatibizatu lezakeen. Merkatu geografikoak EAEko dimentsioa gailentzeko joera du, eskaintzaren ikuspegitik batez ere.

Azpisektore «gorria» da

**17. TALDEA, ehungintzaren fabrikazioa eta ehungintza-produktuak** (EJSN), EAEko IOTen P19 atalari dagokio.

Sektore honek, 2004. urtean zehar, EAEko ekoizpen osoko 74.679 mila euro suposatzen zituen.

Azken urteetan, EAEn, jardueraren beherakada bat nabari izan da. Asiako ehungintza-produktuen inportazioaren ondorioz, joera hau etorkizunean mantendu daitekeelarik.


Ehungintza eta ehungintza-produktuen fabrikazioa zatikako industria bat da eta enpresa txiki asko ditu. Haatik, TAVEX ALGODONERA, S.A.<sup>58</sup> nazioarteko taldeak duen, *denim* ehunaren (jantzi bakeroak egiteko erabiltzen den ehuna) ekoizpenaren lidergo mundiala nabarmentzekoa da.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, TAVEX ALGODONERA, S.A. barneratzeak ustiapen sarrerek EAEko ekoizpen kopuruak nabarmenki gaintitza dakar. Ustiapen sarreren kopurutik kentzen bada, eta ALGODONERA DE SAN ANTONIO INDUSTRIAL, S.A.ri (Bergara) dagozkion kopuruak mantentzen badira soilik, laginak sektorea bere osotasunean ordezkatzeko duela ikus daiteke.

<sup>58</sup> TAVEX ALGODONERA S.A, Bergaran sortu zen nazioarteko ehungintza talde handia da eta zuzenean edo zeharka gainontzeko estatuan, Italian, Marokon, etab kokatuta dauden beste enpresa asko kontrolatzen ditu.

2006 urteko ekainean TAVEX eta SANTISTA TEXTIL brasildar enpresaren arteko fusioa onartu zen. SANTISTA TEXTIL, denim ehunaren munduko ekoizle handienetakoa da eta Hegoamerikan, Camargo Correa merkatal eta industria konglomeratuan barneratuta dagoen, lan-jantzietan puntutako enpresa da. Horrela, hiru kontinenteetan 12 ekoizpen fabrika dituen denim ehunaren lider mundiala sortzen da (ehun-bakeroa). 2007 urtean zehar, Mexikon eskuratutako fabriken bitartez hazten jarraitu du, horrela homidura plataforma EEBBtan osatzen delarik, munduko denim konsumitzaile handiena dena.

Aztertutako urteak kontuan izanik, ustiapen sarrerekiko sektoreko enpresen mailak ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten, TAVEX<sup>59</sup> kasuari aipamena egiten diotenean izan ezik.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
3.846 <sup>60</sup>	%6	%425

Kontzentrazio-indize oso altua aztertzen da (TAVEX datuekin justifikatzen dena) barne eskariaren estaldura maila oso txikia<sup>61</sup> delarik eta kanpo irekitze maila oso altua<sup>62</sup>.

Lehenengo 5 enpresek ustiapen sarrera guztien %80a<sup>63</sup> ordezkatzen dute.

Sektore hau, sektore «berdea» bezala sailkatu daiteke.

<sup>59</sup> Hala eta guztiz ere, ikerketan aztertu diren urteetan lehenengo enpresen artean kokatzen diren hainbat enpresa egun ez dutela existitzen ikus daiteke, hala nola, UDALBIDE SOCIEDAD ANÓNIMA (2004 urtean punta-puntakoa), STUKA,S.Ak 2005eko ekainean eskuratu zuena.

<sup>60</sup> Kopuru hau 2006 urtetik aurrera handiagoa izango da, TAVEX taldea eta SANTISTA (zeinak bere tamaina eta negozio kopuruak nabarmenki handitzen dituen) arteko fusioaren ondorioz.

<sup>61</sup> Ikuspuntu geografikotik, ehungintza eta ehungintza produktuen egitearen industriarentzako merkatuak EAEaren dimentsio gaintzen du, jantzigintza industria (aztertzen ari garen sektorearen bezeroa dena) munduko eta Estatuko beste eremu batzuetan kokatzen baita (Katalunia eta Balentzian batez ere).

<sup>62</sup> TAVEXek bere ekoizpenaren %76-100 bere bezeroak diren 50 herrialde ezberdinetara esportatzen du.

<sup>63</sup> TAVEXek balio totalaren %60a suposatzen du gutxi gorabehera.


### 18. TALDEA, Jantzigintza eta larrugintza industria (EJSN), EAeko IOTen P20. atalari dagokio gutxi gorabehera, Jantzigintza eta larrugintza.

Zatikako sektore bat da eta enpresa txiki eta oso txikiak osatzen dute. Sektore hau EAEn, gainontzeko Europa osoan bezala, etengabeko aldaketa eta berregituraketa egoeran aurkitzen da eta 2005eko urtarilak 1ean merkatu mundialaren liberalizazioak sortutako eszenatoki berri bati aurre egin behar dio. Data honetan, inportazio kontingentziak ezabatu ziren.

2004. urtean, EAEn Jantzigintza eta larrugintza industriak, ekoizpen kopuruen 219,2 milioi eurotako kopurua suposatu zuen. Enpresa txiki ugari jasotzen ditu: TALLER USOA LANTEGIA, S.A.<sup>64</sup> salbu, zeinak 2004. urtean, bere menpe 244 langile zituen. 20 langile baino gehiago dituzten enpresak merkatuko 10 enpresa handienak dira soilik.

Ustiapien sarrerei dagokionez, sektorean bi enpresa gailentzen dira, GINKANA, S.A haur jantzietan espezializatua dena eta %18 inguruko merkatu kuota duena, eta IMPORT ARRASATE, S.A kirol jantzietan espezializatua eta %16 inguruko merkatu kuota duena 2000-2004 bitarteko datuen arabera. Bi enpresa hauek marka irudiaren bitartez ezberdindutako enpresen adibide izan daitezke.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-2004 urteetako ustiapien sarreraren kopurua 130 milioi euro ingurukoa da eta honek 2004ean IOTen ekoizpen kopuruen %58a suposatzen du.



<sup>64</sup> TALLER USOA babestutako lan-gune bat da eta bere eginbehera, pertsona ezinduei lan aukera es-tableak eta normalizatuak eskaintzea da eta era berean, integrazio soziala lortzea. 2004ko bere ustiapien sarrerak merkatuko %4ko kuota suposatzen dute, sektoreko 6. tokia eskuratzen duelarik.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
790	%52,	%68	%8	%450


Kontzentrazio-indize baxuak eta oso adierazgarriak ez direnak ikus daitezke, kanpo irekitze maila oso altu delarik eta barne eskariaren estaldura oso urria (ikus-puntu geografikotik merkatu adierazgarriak EAEko dimentsioa gainditzen du).

Jantzigintza enpresak «aurreraka» bertikalki integratzen direla ikusten da, jostun soilak izatetik txikizkako merkatari izatera pasatzen direlarik.

Sektore «zuria» da.

**19. TALDEA, Larruaren prestaketa, ontze eta leunketa; Larruzko eta bidaiaria artikuluen fabrikazio. Guarnizionaritza, talabarteri eta zapatagintza aritku-luak.** (EJSN) EAEko IOTen P21 atalari dagokio gutxi gorabehera, Larru eta oinetakoen industria.

Sektore honetan, EAEan, gainontzeko estatu osoan bezela, azkeneko urteetan emandako salmenten, enpresen eta lanaren gutxitze progresiboa sektoreko ezauzgarriak dira. Globalizaziotik eratorritako zailtasun garrantzitsuen aurrean aurkitzen den sektorea da.



2004. urtean, EAEan larru eta oinetakoen industriak 40,8 milioi eurotako ekoizpen kopurua suposatu zuen. Aztertutako datu-basean, ustiapen sarrerekiko, larru ekoizpenean 150 urteetako lan-esperientzia duen JUAN ALONSO E HIJOS, S.A,

enpresa punta-puntako enpresa da %16ko merkatu kuota duelarik. Bigarren tokian, CURTIDOS SALVATIERRA, S.A.L, enpresa kokatzen da %15eko merkatu kuotarekin. Enpresa hau, 1995. urtean sortu zen JULIAN LÓPEZ HEREDIA sektoreko enpresa aintzindariaren itxieraren ondorioz. Hirugarren tokian, FERNANDO MONTES Y CÍA, S.L., kokatzen da zeinak %15eko merkatu kuota duen. Enpresa hauek oinetako, jantzi, larru, auto, eta bestelako industrientzako material eta larruaren egite, ontze eta leunketa jardueretan zentratzen diren enpresak dira. Haatik, sektorean amaierako produktua egiten dutenak ere aurki ditzakegu, oinetako eta boltsak batez ere.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, ustiapen sarreren kopurua IOT taulen ekoizpen kopuruen %73 da. Hau da, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen du.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
839	%60	%80	%9	%492

Ustiapen sarrerei eta enpleguari dagozkien kontzentrazio-indizeak baxuak dira eta kanpo irekitze maila oso altua eta barne eskariaren estaldura oso murriztua dute gainera. Ondorioz, EAE eta gainontzeko estatu eta atzerriaren artean industria-barneko merkatua badagoela esan daiteke.

Sektore «zuria» da.

**20. TALDEA Egurra eta kortxoaren industria, altzariak, saskiak eta espartzuak salbu.** Euskal ekonomian erlatiboki garrantzitsua den azpisektore batean 500 enpresa inguru biltzen ditu. Bere izaera zikliko nabarmena eta aldaketa ekonomikoen aurrean duen sentsibilitatea bere ezaugarri nagusiak dira. Sektore honek nahi eta nahi ez, balio sistemaren bitartez jarraian dauden sektoreekin erlazionatu behar du. Txosten honetan, 20. taldea sektore edo azpisektore (21. TALDEA) hauei aurreratzen da.

Sektorean ETEak nagusitzen direla baieztatu daitekeen ekintza da.<sup>65</sup>


Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, ustiapen sarreren kopurua 566 milioi euro ingurukoa da. Honek, IOTen ekoizpen kopuruen %81,5eko proportzio oso altua suposatzen du. Zentzu honetan, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen duela baieztatu daitekeelarik.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
151	%66	%72

<sup>65</sup> Bost enpresa ertain, hirurogei enpresa txiki inguru eta larehun mikroenpresa baino gehiago.





Sektoreak euskal ekonomiaren kontzentrazio-indize baxuenetariko bat eskaintzen du. Lehia-egitura hau sektoreko irekitze maila altuak eta EAetik at dauden sektore bereko neurrizko merkatal fluxuak indartzen dute. Beraz, kontzentrazio txikiaren baieztapena merkatu irekitze maila nabariaren ondorioz indartzen da.

Produktuaren merkatu adierazgarriak, egurraren lurreko garraioaren kostuak dira eta, eskualdeko dimentsio garrantzitsu bat du. Aldiz, tamaina handiagoa duten bezeroen *output*aren merkatu adierazgarriak erlatiboki irekiagoak dira. Beraz, zatikako sektore honen aurrean, negoziaketa boterearen asimetria bat eman daiteke eta honek eragindako botere monopsonikoaren arriskua sortu daiteke merkatu honetan.


Egoera hau 2005 urteko C-interreg datuak kontuan izanik ikus daiteke, non EAE sektoreko bezero handi bat bezala agertzen duen, erkidego moduan seigarren tokian kokatuz eta estatuko %7ko kuota izanik. Hala eta guztiz ere, hornitzaileen kasuan, hamaikagarren tokiraino jaisten da %3,6ko merkatu kuotarekin.

Sektore «zuria» da, ez du lehia arazorik eta egitura orekatua eta lehiakorra du.

**21. TALDEA. Paper-industria.** Nazioarteko jarduera indartsua, duen izaera zikliko nabaria eta aldaketa ekonomikoen aurrean duen sentsibilitatea taldearen ezaugarri nagusiak dira.

Euskal ekonomiarentzat, sektore honen estrategiaren adierazgarritasuna bere partaidetza zuzena baino pixka bat altuagoa da, beste jardueren gaineko indar edo eramateko gaitasun nabaria baitu.

21. TALDEA  
Paper-industria



EAEko ekonomiaren jardueran finkapen handia duen sektorea da.<sup>66</sup> Testuinguru honetan, nahiz eta paperaren ekoizpenak bere zatikako egoera mantendu izan, banaketa sistemak kontzentrazio nabaria jasan du Espainia EBean barneratu zenetik.

Outputaren merkatu adierazgarria estatukoa eta nazioartekoa da. Hala eta guztiz ere, inputaren merkatu adierazgarriak egurraren lurteko garraioaren kostuen ondorioz, eskualdeko dimentsio garrantzitsua du.<sup>67</sup>

**211 azpisektorea, paper-orea, papera eta kartoiaren fabrikazioa** (EJSN) EAEko IOTen 23. atalari dagokio gutxi gorabehera, Paper-orea.

Paper-orea fabrikatzen duen sektoreak, bi enpresa indartsu ditu: 2000-2004 urteetako ustiapen sarreraren arabera %28-30 inguruko merkatu kuota duen IBERPAPEL<sup>68</sup> TALDEAri dagokion PAPELERA GUIPUZCOANA DE ZICUNAGA, S.A batetik, eta bestetik PAPRESA S.A<sup>69</sup>. (lehen Papelera Española zena), 2000-2004

<sup>66</sup> Ur ugari izateaz gain eta zelulosa egiteko beharrezkoak diren lehengaiak gertu izan arren, ekoizpen eta mantenu mediu ekipoen enpresa fabrikatzaileak nahiz ingenieritzak ditu. Hauek paper industriari buruzko kultura zabala dutelarik.


<sup>67</sup> Basogintza banaketa garrantzitsu batekin atzerako integrazio bertikalaren aukerak, negoziaketa boterearen asimetria sortuko luke baso ustiapenaren antzeko zatikako sektorearen aurrean (20 taldeko 151 HHI) eta merkatu honetan botere monopsonikoaren arriskua sortuko litzateke.

<sup>68</sup> IBERPAPEL bere jarduera hiru zati ezberdinen bidez garatzen duen ore eta paper ekoizle talde bateratua da: Basogintza, industrialia eta merkatala. Bere jarduera batez ere Europa eta Hegoamerikara zabaltzen da eta lidergo egoera mantentzen du ekoizpen eta kostu terminuetan. Banaketari dagokionez, IBERPAPEL TALDEAK Hernaniko PAPELERA GUIPUZCOANA DE ZICUNAGA fabrikari barneratutako zelulosa eta paper fabrika bana ditu.

<sup>69</sup> PAPRESA S.A 2007 urteko abenduan ALFONSO GALLARDO TALDEAK (PAPELERA RENTERÍA, S.L.) eskuratu zuen. Horrela, Extremadurako burdingintza holding-a sektore berri batean bete-betean

urteetako datuak kontuan izanik, %16-18 inguruko merkatu kuota duena. Beraz, bion arteko merkatu kuota metatua %46koa da ustiapen sarreren arabera. EAEan sektorea 8 enpresa ertainek, bost enpresa txikiek eta jarraian dauden bederatzitik mikroenpresek osatzen dute. Guztira laginak 24 enpresa barneratzen dituelarik.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-04 urteetako ustiapen sarreren kopurua 2000. urtean 396 milioi euro eta 2004. urtean 480 milioi euro tartekoa da, IOTen ekoizpen kopuruarekiko proportzio altua suposatzen duelarik (2000 urtean %60 eta 2004. urtean %69 bitartekoa). Zentzu honetan, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
1.484	%70,75	%93,44	7	%19	%152

Bere egitura oligopoliko dela esan liteke, erlatiboki neurritzkoa den ETE zerrendak osatzen dutelarik. Azpisektoreak neurritzko kontzentrazio-indizeak aurkezten ditu, baina indize hauek adierazgarritasun gutxikoak dira, sektoreko irekitze maila<sup>70</sup> altua

sartzen da, duela urte asko aurrera daramatzan jardueren dibertsifikazio politika baieztatzen delarik. GALLARDO TALDEAK Gipuzkoan beste paper-fabrika bat martxan jartzeko asmoa du.


<sup>70</sup> CIVEX datu-basea: sektoreko lehenengo enpresak %26-50 esportazio mailan aurkitzen dira. Kopuru hauek sektoreko nazioarteko dimentsioak baieztatuko litzukete (eta ondorioz, bere merkatu adierazgarri geografikoarenak).

eta EAEtik at dagoen sektore bereko merkatal fluxu garrantzitsua kontuan izanik. Honek, ikuspegi geografiko batetik aztertuta, merkatu adierazgarriak EAEren dimentsioa gainditu egiten duela suposatzen du non kanpo lehiaren presioak sektoreko egoeran eragiten duen. Egitez, EAEko sektorea, mundu mailan berrantolaketa prozesu baten eragina jasaten ari dela dirudi, tokiko eremura<sup>71</sup> zabaltzen hasi delarik.

Azpisektore «zuria» da.

## 212. azpisektorea paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa (EJSN), EAEko IOTen 24. atalari dagokio gutxi gorabehera. Paperezko artikulua.

Bere egitura zatikatua dela esan liteke eta ETE ugari dituena. Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioaren sektoreak sei enpresa ertain ditu non hiru gailentzen diren fakturazio handiagoa baitute: SMURFIT KAPPA IBERSAC, S.A., GRUPO SMURFIT KAPPAko kide dena eta merkatu kuota %15 ingurukoa duena, PAPELERA DEL ORIA, S.A., %13ko merkatu kuota inguru duena eta PAPELERA DE AMAROZ, S.A., zeinak %11 inguruko merkatu kuota duen, 2004. urteko ustiapen sarreraren arabera. Datu hauek kontuan izanik, hiru enpresa hauen metatutako merkatu kuota %39 ingurukoa da, ustiapen emaitzetatik abiatuz. EAEko sektorea, 23 enpresa txikiko taldearekin eta 42 mikroenpresekin osatzen da, laginak guztira 71 enpresa dituelarik.



<sup>71</sup> 2000-2002ko datuetan, SMURFIT KAPPA NERVIÓN S.A. eta MUNKSJO PAPER S.A.-enpresen ustiapen sarrerak baztertu dira. Egun, bi enpresak, egoitza Irlandan duen SMURFIT KAPPA GROUP taldearen menpe daude 1998 eta 2000 urtean hurrenez hurren eskuratu baitzituen eta aurrerago egin zuen berrantolaketa ondoz. Bestalde, PAPELERA DEL LEIZARÁN S.A eta PAPELERA TOLOSANA S.A., GALGO PAPER, S.A.n barneratu dira.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2000-04 urteetako ustiapen sarreren kopuruak 273 milioi euro ingurukoak dira, zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruaren neurrizko proportzio bat suposatzen duen (2000. urteko %57,69 eta 2004. urteko % 55,82 artean). Zentzu honetan, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen du.


Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	C5	C10	NEE	CDI	GAE
430	%47,99	%64,08	23	%81	%60

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, kontzentrazio-indize baxuak aurkezten ditu. Esportazio<sup>72</sup> ugari eta inportazio gutxi izatearen ondorio da sektorearen irekitze maila neurrizko-altu bat izatea. Hala ere, autokontsumo ugari ematen da eta beraz, EAEtik kanpo merkatal barne sektoreko fluxu baxua sortzen da. Honek, eskaintzaren perspektibatik, merkatu adierazgari baterantz bideratzen du eta ikuspuntu geografiko batetik, EAEren dimentsioa gaitzen du, baina ez eskariaren perspektibatik.


Sektore «berdea» da.

**22. TALDEA. Argitalpen, arte grafiko eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa**, bere azpisektoreekin batera (221 Argitalpena; 222 Arte grafikoak eta hauekin erlazioatutako zerbitzuen jarduerak; 223 grabatutako euskarrien erreprodukzioa), EAEko IOT taulen 25. atalarekin erlazioatzen dira, Argitalpen eta arte grafikoak. Azpisektore hauetatik, lehenengoa, 221 Argitalpena zehazki aztertzen da.



<sup>72</sup> Ikus CIVEX. Sektoreko lehenengo enpresak %26-50 espotazio mailan aurkitzen dira.

**222 azpisektorea. Arte grafikoak eta beraiekin erlazionatutako zerbitzuen jarduerak**, oso egitura zatitua aurkezten du eta 350 enpresa baino gehiagok osatzen dute, hauetako bostek tamaina ertaina dutelarik. Lehia arazorik gabeko egitura honen emaitza HHI baxua duela da, 2004 urtean 167 delarik, eta EBZ 60. Lehenengo bost enpresek %21,33ko pisu erlatiboa dute eta lehenengo 10 enpresek ia %33,97 eskuratuko lukete ustiapen sarreren arabera eta datu-baseko lagina kontuan izanik.




**223a, Grabatutako euskarrien erreprodukzioa**, hiru mikroenpresa barnertzearen ondorioz, ez da adierazgarria.

Azpisektore hauen enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 663 milioi euro ingurukoa da, zeinak proportzio altua suposatzen duen (2004. urteko %74,07), IOT ekoizpen kopuruekiko. Zentzu honetan, laginak sektorearen gehiengoa estaltzen duela baieztatu daiteke.

Argitalpen eta arte grafikoaren atalak, irekitze maila altu bat aurkezten du (2004. urtean KIM %68 delarik) normalean orekatutako esportazio eta inportazioen fluxu nabariaren ondorioz delarik. 2004. urtean aldiz, inportazioak gailentzen dira modu nabarian. Haatik, autokontsumo indartsua ematen da, prentsa argitalpenari lotuta hurrean. Zentzu honetan, joera hazkorra duen EAetik kanpoko merkatal barne sektoreko fluxu baxua ematen da (2000-04 urteetako batzuekiko BEE %70,35, 2004ko %63,8ko BEE batentzat). Guzti honek, ikuspuntu geografikotik merkatu adierazgarriak EAE dimentsioa gailentzen duela adierazten du, batez ere liburu argitalpenarekin erlazionatutako segmentu batzuekin hurrean (tokiko eremu nabaria duten euskaraz argitaratutakoak salbu).

**221 azpisektoreari, Argitalpena**, dagokionez, bere egitura oligopolikotzat kalifikatu daiteke, eta enpresa txiki ugari dituen (ehun baino gehiago). EAEko enpresetara mugatutako azpisektoreak, neurrizko kontzentrazio-indizeak aurkezten ditu (HHI 1184koa delarik 2004. urtean) honi, irekitze maila altua baina merkatal sektore bereko fluxu baxua lotuko bagenizkioke, sailkapen neutro batera bideratuko gintuzke eta azpisektorea «berdea» izango litzateke. Hala eta guztiz ere, indize eta sailkapen hauek zehaztasuna behar dute eta lehiaren ikuspuntutik kolore arriskutsuagoetara nolabaiteko bideratzea.



Alabaina, 221 azpisektoreko HHI esanguratsua ez den arren, eta sektoreko kontzentrazioa bere osotasunean neurrizko-baxua izanik, liburu eta prentsaren<sup>73</sup> argitalpen segментuak kontuan hartzen direnean ezberdintasun nabariak daudela dirudi.

Zentzu honetan, enpresaren ikuspuntutik eta 2004. urteko ustiapen sarrerak kontuan izanik, datu-baseetako laginatik abiatuz, VOCENTO TALDEAK %42,59ko pisu erlatiboa lortuko luke 221 azpisektoreko lehen bi enpresen bidez. Bestalde, lehenengo bost enpresek %64,14ko pisu erlatiboa eskuratuko lukete eta lehenengo 10 enpresek ia %78,75 lortuko lukete. Sektoreko ustiapen sarrerekiko mailakete ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten kontuan izan diren urteetan.


Kontzentrazio maila handiena prentsa segmentuan esanguratsua da, merkatu adierazgarria euskal eremuko baita eta garrantzia handiko segmentu lokalak bai-

<sup>73</sup> DIARIO EL CORREO, S.A., «El Correo», SOCIEDAD VASCONGADA DE PUBLICACIONES, S.A., «El Diario Vasco», EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A. «Deia» eta BAIGORRI ARGITALETXE, S.A. «Gara». Baliabideen Azterketa Orokorrean metatutako datuen arabera (2007), «El Correo»k 520.000 irakurleen batzbestekoa du «El Diario Vasco» 296.000, «Gara» 91.000, «Deia» 87.000, «El País» (GRUPO PRISA) Euskal argitalpenak 64.000, «El Mundo del País Vasco» (UNIDAD EDITORIAL) 41.000. BAO-ren aurreko azterlanen datuen arabera, (2000-2007 urteetan) ia ez dago aldaketa esanguratsurik.

titu. Prentsa argitalpen eta iragarkiei lotutako argitalpenaren artean ezberdinketa bat egin behar da. Iragarkiei lotutako argitalpenak, eremu geografiko zabalagoa du baina hala eta guztiz ere, eskualdeko eta tokiko segmentu garrantzitsuak aurkeztea ziurra izan ohi da. Edozein kasutan, iragarkien merkatuan prentsa idatziak ordezkioak diren neurri ugari aurre egin behar die. Hori dela eta, kontzentrazio mailari lotutako merkatu boterea nahiko gutxitu daiteke.

Euskarazko testuen argitalpena beste ikuspegi adierazgarri bat da. Jarduera honekin gehien erlazionatutako enpresak euskal merkatura bideratzen dute beraien jarduera, argitalpenaren sektorean produktu ezberdinu batekin lehiatzen baita gehien bat (berezitasuna hizkuntza delarik). Kasu batzuetan, estatuaren osagarria den merkatua da non produktu ezberdinak eskaintzen diren, hizkuntza ezberdinetan argitalpenak argitaratzen baitituzte. Beraz, kasu honetan merkatu adierazgarria eskualdekoa da.

**23. TALDEA, Koketegiak, petrolio-finketa eta erregai nuklearren tratamenduak,** (EJSN) EAEko IOT taulen 26. atalari dagokio gutxi gorabehera, Petrolio-finketa.



2004 urtean zehar Petrolio-finketaren industriak, 2.610,3 milioi eurotako ekoizpena suposatu zuen; datu honek euskal ekonomiako sektore estrategiko bate-runtz zuzentzen gaitu. Haatik, Petr leos del Norte, S.A. (PETRONOR)<sup>74</sup> enpre-

<sup>74</sup> PETRONOR partaidetutako enpresa da, %86a REPSOL YPFri dagokio eta %14a BILBAO BIZKAIA KUTXARI (BBK). Bere jarduerak, petrolio-findegia-aren ustiapen eta eraikuntza eta petrolio produktuen finketa eta bere eratorriekin erlazionatutako jarduerak dira, garraioa, bilketa, banaketa eta produktuen salmenta barneratzen dituelarik.



sak, REPSOL YPF-aren eskumendekoa denak, kantitate horren %99a sortu zuen. Sektore honetan tokia duten gainontzeko enpresa gutxi batzuek aldiz, kopuru txikiak izan zituzten.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:


HHI	BEE	KIM
9.800	%76	%63

PETRONOR enpresaren presentziak, sektoreak kontzentrazio-indize oso altuak izatea bultzatzen du. Bestalde, langileen kopurua kontuan izanik HHI kontzentrazio-indizea ere oso altua da, 7000 gainetik. Alaber, EAE-an, sektoreak irekitze maila altua<sup>75</sup> aurkezten du.

Sektore «gorri» baten aurrean gaude.

**24. TALDEA. Industria kimikoa** EAE-ko IOTen hurrengo atalak pilatzen ditu gutxi gorabehera, 27. atala: oinarriko kimika, 28. atala: kimika industrial, 29. atala: farmazia-industria eta 30. atala: azken kontsumoko kimika.

Sektoreko euskal ekoizpen totala 1.745,3 milioi eurotakoa izan da 2004 urtean zehar eta zuhurki hazkorra den joera izan du. Euskal ekoizpen kimikoaren erdia industriarentzako produktu kimikoen fabrikazioaren sektoreari dagokio.



<sup>75</sup> PETRONOR lehenengo euskal konpainia esportatzailea da.

24. taldeak, Industria kimikoak, 200 enpresa barneratzen ditu, non %50a baino gehiago mikroenpresak diren, %25 inguru enpresa txikiak, %15a enpresa ertainak, eta 3 enpresa handi GENERAL QUÍMICA S.A., DERIVADOS DEL FLÚOR, S.A. eta KRAFFT, S.L. eta FAES farmazia taldea, azken hau oso handia delarik.


Industria kimikoaren bezerorik garrantzitsuenak, burdingintza sektorea, metalezko artikulua, plastikoa, papera, material elektriko eta elektronikoa eta kautxua dira.

Sektorearen garrantzi ekonomikoa eta barneratutako azpisektoreek dituzten ezberdintasunak kontuan izanik, 24. taldeko azpisektore bakoitza aztertzen da. Hala eta guztiz ere, azpisektore guztiek duten eta oinarritzkoa den aspektua, adierazgarria den merkatuak EAE-ko merkatua gainditzen duela da.

Hortaz, **241 azpisektorea, Oinarritzko produktu kimikoen fabrikazioa**, EAEko IOT taulen 27. atalarri dagokio, Oinarritzko Kimika.

Zatikako sektorea da, %38ko merkatu kuota batzen duten bi enpresa handi barneratzen ditu GENERAL QUÍMICA, S.A.<sup>76</sup> eta DERIVADOS DEL FLÚOR, S.A., %90ko merkatu kuota duten zazpi enpresa ertain, eta gainontzekoak enpresa txiki eta mikroenpresak direlarik.

Datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, jasotako enpresen ustiapen sarre-  
rek EAEko ekoizpen osoaren %50 suposatzen dutela zehaztu behar da, beraz, nahikoa dela kontsideratzen da.



<sup>76</sup> REPSOL-YPF taldeko eskumendekoa da eta kimika espezialitateetan arrezagututako garrantzia lortu du nazio eta nazioarteko eremuan.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:


HHI	BEE	KIM
1.185	%11	%275,12

HHI indizearen informazioa, barne eskariaren estaldura mugatua eta kanpo irekizte maila altua kontuan hartzen direnean ñabartzen da.<sup>77</sup>

Beraz, sektore «zuria» da.

Modu berean, **242, 243 eta 247 azpisektoreen pilaketa, pestiziden fabrikazioa eta beste nekazal produktu kimikoak, margo, berniz eta antzeko estalduren fabrikazioa eta zuntz artifizial eta sintetikoaren fabrikazioa**, 28. atalari dagokio, EAEko Kimika Industrialia.

Lagina ez da aski adierazgarria, bertan jasotako 50 enpresen ustiapen sarreren baturak EAE osoko %30 besterik suposatzen ez baitute. Adierazgarritasun urri honen zergatia, nahiz eta beraien jarduera nagusia<sup>78</sup> ez izan, laginean jarduera hau garatzen duten enpresak falta izatea, eta EAEn beraien jarduera garatzen duten multinazionalen presentzia izan daitezke.



<sup>77</sup> 2004 urtean inportazioek euskal ekoizpena ia hirukoiztu zuten EAE-an.

<sup>78</sup> Amaierako kontsumo kimikoaren azpisektorean agertzen den eta industriarako, eraikuntzarako edo automobilentzat produktu kimikoak garatzen dituen KRAFFT, S.L. enpresaren kasua da hau.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:


HHI	BEE	KIM
825	%44	%109

Azpisektore «zuria» dela esan daiteke.

**244 azpisektorea, farmazia produktuen fabrikazioa**, 29. atalari dagokio, Farmazia Industria.

Sektore honen ezaugarri nagusiak, ikerketa eta garapenean egindako inbertsio aha-lerin handia eta tamainan handitzeko beharra dira. Guzti honek, mundu guztian zehar kontzentrazio prozesuetan murgildutako sektore bat izatera bultzatzen du.

Farmazia industriak, EAEan, 92,9 milioi eurotako ekoizpena sortu zuen 2004. urtean. Pertsona kopuru mugatuak erabiltzen ditu eta enpresa gutxi dira eremu honetan lan egiten dutenak.



Sektoreko enpresen datu-basean, FAES.<sup>79</sup> farmazia talde espainiarra barneratu da. Ekintza honek, datu-baseko enpresen ustiapen sarrerak kontuan izanik kalkulatu den kontzentrazio-indize altuaren zergatia adierazten du. Jarraian, portuguesa

<sup>79</sup> FAES FARMA 1933. urtean sortu zen, egun FAES bezela ezagutzen denaren enbrioi eta matrizea. Hedapen handiko prozesu estrategikoa jarraitu duen taldea da, egun negozio bolumenarekiko estatuko farmazia konpainien hirugarrena da. Bere jarduera Espainia eta Portugalen garatzen du. 2004. urtean 168 milioi eurotako sarrerak izan zituen eta 800 pertsona baina gehiagoz baliatzen da.

den BIAL INDUSTRIAL FARMACÉUTICA, S.A. enpresa ertaina kokatzen da, gainontzekoak enpresa txiki eta mikroenpresak direlarik.

Halaber, 244 azpisektorearen analisisan kanpo irekitze maila oso altua (KIM %554,92-koa) eta oso mugatutako barne eskariaren estaldura maila (BEE %7,71-koa) nabarmentzen dira. Farmazia jarduera globala da.

Sektore «berdea» da.

**245. Xaboi fabrikazioa eta 246. Beste produktu kimiko batzuen fabrikazioa** azpisektoreen pilaketa, EAEko IOT taularen 30. atalari dagokio, Azken kontsumo kimikoa.

2004. urtean datu-basean jasotako enpresen ustiapen sarrerek (400,3 milioi euro) EAEko IOT tauletan jasotako ekoizpena gainditzen dute (207,3 milioi euro). Hau, enpresa nagusi batzuk, EAEtik kanpo ekoizpen fabrikak dituztelako eta laginean KRAFFT, S.L.<sup>80</sup> enpresa barneratu delako gerta daiteke, zeinak 2004ean 56,1 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituen eta 28. atalari dagokion 242-3-7 azpisektorean kokatuta egon daitekeen, Industria kimikoa.

Oso zatikatua dagoen sektorea da, KRAFFT, S.L. enpresa handiari zazpi enpresa ertainek jarraitzen diote, ondoren ehun enpresa txikiek eta gainontzeko guztiak mikroenpresak dira.

Sektore «zuri» gisa sailkatzen da.


**25. TALDEA. Kautxu produktu eta plastikozko materien fabrikazioak, 251 azpisektorea, kautxuzko produktuen fabrikazioa eta 252 azpisektorea, plastikozko produktuen fabrikazioa barneratzen ditu.** Azpitalde bakoitzaren analisi zehatza egin da. C-interregek<sup>81</sup> aldiz, bi azpisektoreen estatistikak 9. atalean pilatzen ditu, Kautxu industria eta materia plastikoak. Beraz, informazio hau sektoreen bereizketa egin aurretik aurreratzen da. Enpresa hauek euskal eremuan garrantzia handia dute eta nolabaiteko azalpena eskatzen dute ikerketa honetan erabili den enpresen datu-basean aurkitutako eta saiesten saiaturako arazoa<sup>82</sup> dela eta.

<sup>80</sup> KRAFFT 1953. urtean eratu zen. Bere jarduera, auto, industria eta eraikuntzarako produktu kimikoen garapen, fabrikazio eta merkaturatzea da. Andoainen (Gipuzkoa) dago kokaturik eta 60 herrialde baino gehiagotara banatzen ditu bere produktuak.

<sup>81</sup> 2005 urteko datuak kontuan izanik, EAEak toki nagusia du bezero erkidego handien mailaketan bigarrena izanik %19,9 estatuko merkatu kuotarekin. Punta-punta Kataluina kokatzen da %21 merkatu kuotarekin. Hala ere, hornitzaileen mailaketan zazpigarren posturaino jesiten da %7,7ko merkatu kuota eskuratzen duelarik eta kasu honetan, lidergoa Gaztela eta Leonek duen %13,9-ko merkatu kuotarekin.

<sup>82</sup> Bi sektoreetan, aztertutako urte guztietan, ez da enpresa garrantzitsu bat azaltzen. 2004 urtea oinarritzko urtea da ikerketa honetan EAEko enpresen informazio osoa eskuragarri baitago eta beraz, homogeneitate maila handiagokoa lortu daitezke.

25. TALDEA  
Kautxu produktuen fabrikazioa



**251 azpisektorea, kautxuzko produktuen fabrikazioa,**<sup>83</sup> EAEko IOT taulako 31 atalarekin erlazionatzen da, Kautxu eta pneumatikoak. Euskal ekonomian duen garrantzia berezia nabarmentzen da. Sektoreko estatuko jardueraren zati esanguratsu bat EAEan egiten da, batez ere pneumatikoen azpisektorean. Zehazki, eraldaketa ez pneumatikoen enpresen %16a EAEan kokatzen da eta pneumatikoen kasuan, MICHELIN (Gipuzkoan eta Araban) eta BRIDGESTONE-FIRESTONE (Bizkaian) multinazionalen fabrikak ere EAEan kokatzen dira. Bi talde multinazional hauei atxekitutako arazoa dela eta, azpisektore honek arreta berezia behar du.

BRIDGESTONE HISPANIA, S.A.,<sup>84</sup> punta puntako enpresa, ez da 2004 urteko datuetan agertzen eta honek kalkulaturako indizeak modu oso adierazgarrian

<sup>83</sup> Nahiz eta sektoreak landutako produktuak mota zabal eta ezberdinetakoak izan, industrializatutako mendebaldeko herrialdeetan (eta horrela gertatzen da EAEan), merkatuetan partaidetza-kuota handienak pneumatikoak fabrikatzen dituzten azpisektoreek dituzte. Ekoizpen osoaren %70 inguru suposatzen du bere ekoizpenak bai bolumen terminuetan baita fakturazio terminuetan ere (kanpo merkataritzan partaidetza hua gainditzen da) eta sektore osoarekiko nagusitzen den enpresa dimentsio garbia du, kautxuzko industria-transformatzailearen eboluzioaren gehiengo zehazten duelarik. Kautxuaren industria-transformatzaileak izera laguntzailea du batik bat, bai pneumatikoen ekoizpenean baita kautxuzko beste produktuen ekoizpenean ere, sektorea banatu daitekeen jardueraren bi segmentuetan hain zuzen ere. Zentzu horretan, bere jardueraren eboluzioa eta bere lehia egitura beste industria sektoreei modu estuan lotuta daude. Hauen artean, ibilgailuen industria gailentzen da, zeinari pneumatikoen ekoizpena eta kautxuzko beste produktuen zati bat zuzentzen zaion. Beste hainbat norako aipatu behar dira: etxetresna elektrikoak, oinetakoak, eraikuntzak eta industria orokorrean.

<sup>84</sup> BRIDGESTONE HISPANIA, S.A.-ak Basauri, Burgos, Galdakao eta Puente San Miguel-en fabrikak ditu eta BRIDGESTONE EUROPEren menpe dago, zeina era berean BRIDGESTONE CORPORATION jatorria Japonen duenaren menpe dagoen.

aldatzen ditu.<sup>85</sup> Espainiar eskumendekoak, EAEan datuak aurkezten ditu eta beraz, laginean azaltzen da, nahiz eta 2004 urtean ez azaltzearen arrazoiak zeintzuk diren ez jakin. Hori dela eta, 2005 urtean eskuragarri zeuden datuekin indizeak berriro kalkulatu dira enpresen datu-baseko irizpideak mantentzen direnez, konpondu daitekeen ausentzia delako.

MICHELINek bere bi lantegi nagusiak EAE-an ditu: Lasarteko<sup>86</sup> eta Gasteizko<sup>87</sup> lantegiak. Bere antolakuntza egitura kontuan izanik aldiz, bere jarduera ez da euskal enpresen jardueratzat ageri eta enpresen datu-basetik at daude.

Horrela, salbuespenez, analisiaren urte nagusia aldatzen da eta urte ezberdinetan eskuragarri dauden datuekin lortutako indizeak erabiltzen dira (BRIDGESTONE HISPANIA aldagaia barneratzeko)

Liderraren enpresa bolumena kontuan izanik (%76,71 pisu erlatiboa), bere egitura oso kontzentratua dela esan daiteke. Gainontzekoa (laurdena baina gutxiago) zatikatua da eta bertan enpresa tamaina mota guztiak agertzen dira: beste enpresa handi bat (CIKAUTXO, SCL. %6,82 batekin), bost enpresa ertain, 22 enpresa txiki eta 46 mikroenpresa, guztira lagina 75 enpresek osatzen dutelarik.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, hazkorrak diren balioak aurkezten ditu ustiapen sarrerren kopuruak; 2000 urteko 804 milioi euroetatik 2004 urteko 1.271 milioi euro arte. Honek IOT taulen ekoizpen kopuruen proportzio oso altu bat suposatzen du (%94,85). Zentzu honetan, IOT taulen irizpideak kontuan izanik, sektoreko eremua estaltzen du laginak. Edozein kasutan, sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren eta ustiapen sarrerren joera hazkor garbia agertzen du bakoitzaren iturriekiko. Sektoreko enpresen mailek, kontuan izandako urteetako ustiapen sarrerekiko, ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten, aipatutako 2004 urteko ausentziaz salbu.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
5.944	%88,39	%92,17	2	%86	%80

<sup>85</sup>  *Holding* balizuaren egitura juridikoa duen nazioarteko talde frantsesa COMPAGNIE GÉNÉRALE DES ÉTABLISSEMENTS MICHELIN (CGEM) eta bere eskumendekoaren bitartez MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL S.A., Espainian jarduera garrantzitsu bat mantetzen duena da. Azken honek industria jardueren zuzendaritza Valladolid-en du eta merkatal eta finantza jardueren zuzendaritza berriz Madrilen.

<sup>86</sup> Lasarteko lantegia, 1934 urtean ireki zena, Espainiako MICHELIN lantegietan dekanoa da. MICHELIN TALDEAK Tailandiako eremu geografikoko beharrak asetzeko bertan duen lantegia salbu Lasarteko lantegia da mundu osoan zehar merkataturzen diren Michelin markako moto pneumatikoen zati handiena ekoizten duen lantegia.

<sup>87</sup> Gasteizko fabrika Espainiako bigarren MICHELIN fabrika da eta 1966 urtean ireki zen. Egun, herri laneko pneumatikoen saila da MICHELIN TALDEAN ekoizpen bolumen handiena lortzen duena. 1995 urteko Guinness liburuan argitaratutako errekor harrigarria mantentzen du, munduko pneumatiko handiena fabrikatu baitzuen, 5.782 kiloko pisua zuena eta 3,72 metroko diametroa.

Kontzentrazio-indize oso altuak aurkezten ditu. Sektorearen irekitze maila altua<sup>88</sup> mantentzen du, bere esportazio maila altua eta EAE-tik at duen sektore bereko merkatal fluxu baxuaren ondorioz. Edozein kasutan, sektoreko esportazioen pisu erlatibo eta hazkorra aipatu eta gailentzea beharrezkoa dela dirudi zeinak sektoreko kontzentrazio kezkarria erlatibizatzen duen. Honek, merkatu adierazgarriak, ikuspuntu geografikotik, EAEn dimentsioa gainditzeko joera duela adierazten du, batez ere, eskaintzaren perspektibatik. Nabarmenki sektore globala dela esan daiteke, batez ere automozioarekin erlazionatutako segmentuari dagokionean (pneumatikoa bereziki)

Azpisektore «gorria» da.

Gehigarri moduan, ikuspuntu kualitatiboago batetik, kautxuzko sektore-eraldatzaileak egun bere etorkizuna baldintzatzen duten zenbait mehatxuri aurre egin behar diela adierazi behar da eta hurrengoak kontuan izan behar dira: zenbait segmentuetan plastikozko materiak modu hazkorrean kautxuzko produktuen ordezkatzeari, Asiako hego-ekialde eta Europako ekialdeko herrialdeek sortzen duten lehia, ingurugiroarekiko betebeharrak, «teknologia garbien» erabilera edo produktuen iraunkortasun eta erresistentziaren handitzea. Azkenik, automozio sektorearekin eta lehenengo marken merkatuak eta birjarpen merkatuak suposatzen duten alderdi ezberdinekin zerikusia duten pneumatikoen fabrikazioan existitzen den balio katearen fase ezberdinetan dauden lehiaketa eta negoziaketa jarrera ezberdinak nabarmendu behar dira.

**252 azpisektorea, plastikozko materia produktuak**, EAEko IOT taulako 32. atalarekin erlazionatzen da.

Tamainarekiko oso orekatua den enpresen banaketa bat planteatzen du eta lehia arazorik ez duen azpisektore bat sortzen du.

Nahiz eta kasu honetan adierazleetan oinarritzko eraginik ez izan, aurreko azpisektorearekiko antzeko moduan, kooperatiba-sozietate<sup>89</sup> baten ausentziaren aurrean, datu-baseko datu berrienak konpondu egin dira.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke. Hiru enpresa handi<sup>90</sup> eta ETE ugari osatzen dute (hogei enpresa ertain inguru, 50 enpresa txiki inguru eta mikroenpresa ugari). Lagina berriz, berrehun enpresek baino gehiagok osatzen dute.


<sup>88</sup> CIVEX datu-baseko datuak kontuan harturik, sektoreko lehenengo enpresak %51-70 esportazio maila tartean aurkitzen dira. Kopuru hauek sektoreko nazioarteko dimentsioa baieztatuko lukete (eta ondorioz, bere merkatu geografiko adierazgarriarena). Aldiz, EAE eta gainontzeko estatu eta atzerriaren artean jarduera gutxi duen industria barneko merkataritza existitzen da (gutxi inportatzen da baina asko esportatzen da). Ikuspuntu esportatzaile batetik (eskaintza) kanpo irekitze joera duen sektoretzat har daiteke.

<sup>89</sup> MAIER S. COOP. (bere sarrerekiko bigarren tokia eskuratzen du). Datu-baseko azken datua 2002 urtekoa da. Datu berrienak 2006 urteko 168,3 milioi eurotakoak dira (iturria: konpainiako web orria) eta hauek indizeak kalkulatzeko erabili dira. Zentzu hoentan, HHI 819 baliotik 611 baliora aldatzen da egindako kalkulu berriaren ondorioz. Bi kasutan, kontzentrazioa baxua dela ikus daiteke.

<sup>90</sup> MAIER S. COOPz gain, bigarren tokian, TUBOPLAST HISPANIA, S.A. kokatzen da punta-puntako enpresa gisa eta PET IBERIA, S.L., hirugarren tokian.



Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2002-2004 urteetako ustiapen sarrerren kopurua 1.100 milioi euro ingurukoa da zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruen proportzio oso altua suposatzen duen (2004 urtean %94,33-koa). Zentzu honetan, laginak ia sektorea bere osotasunean esaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:


HHI	BEE	KIM
819	%59	%89

EAEko enpresetara mugatutako sektorearen kontzentrazio-indize baxuari, sektorearen irekitze maila altua eta EAetik kanpo sektore bereko neurrizko merkatal fluxua gehitzen zaio. Honek ikuspuntu geografikotik, merkatu adierazgarriak nolabait EAEko dimentsioa gainditzen duela adierazten du, batez ere eskaintzaren perspektibatik.

«Zuria» den azpisektorea da.

**26. TALDEA Metalezkoak ez diren beste mineral produktu batzuen fabrikazioa**, oso ezberdinak diren azpisektoreak pilatzen ditu, hala nola, **261 azpisektorea, Beira eta beirazko produktuen fabrikazioa, 262-3-4-7 eta 8 azpisektoreen pilaketa Metalezkoak ez diren bestelakoen fabrikazioa eta 265-266, Porlan,**

**kare eta igeltsuaren fabrikazioa eta Hormigoi, igeltsu eta porlan elementuen fabrikazioa:** jardueren heterogeneotasuna dela eta, aipatutako azpisektore bakoitzaren analisi zehatzago bat egin da.



**261 azpisektorea, Beira eta beirazko produktuen fabrikazioa.** EAEko IOT taulen 33. atalari dagokio gutxi gorabehera, Beira industria.


Nahiko kontzentratua den sektorea da baina mikroenpresa kopuru handia du. Lehenengo hiru enpresek, VIDRALA, S.A.,<sup>91</sup> GUARDIAN LLODIO, S.L.<sup>92</sup> eta VIDRIERA Y CRISTALERÍA DE LAMIACO, S.A, merkatu kuotaren %80a bereganatzen dute eta lehenengo bost enpresen artean berriz %88ko merkatu kuota dute. Lehenengo biak oso enpresa handiak dira, hirugarrena handia da eta jarraian bi enpresa ertain eta lau enpresa txiki aurki daitezke. Gainontzekoak, 44 enpresako taldea osatu bitartekoak, mikroenpresak dira.

Nahiz eta lehenengo enpresek salmenten zati handiena eskuratu, beira negozio barnean segmentu ezberdinetan espezializatutako enpresak dira (elikagaietzako ontziak, autoak, beirateria, e.a). Honek, kontzentrazio-indizeen analisisien bidez aurkitutako lehia arrisku zeinu posibleei garrantzia kentzen dio. Halaber, irekitze maila altuak merkatu adierazgarriak EAE gainditzera bultzatzen du.

<sup>91</sup> VIDRALA beiraren ontziraketa sektoreko lehenengo enpresa espainiarra da. Bere oinarritzko negozioa edari eta elikagaietzako botilen fabrikazio eta salmenta da, non bere salmenten gehiengo ardoaren sektorean kontzentratzen den.

<sup>92</sup> GUARDIAN LLODIO beira eta auto industriarako haizetako fabrikazioan jarduten da. 1.000 haizetako mota ezberdin egiten ditu eta Europa eta Afrikako iparraldera banatzen ditu.

Datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, jasotako 44 enpresen ustiapen sarrerek EAEko ekoizpen kopurua gainditzen dutela zehaztu behar da. Hau, datu-basearen lehenengo tokietan EAETik kanpo lantegiak dituzten enpresak jasozten direnaren ondorio izan daiteke.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:


HHI	BEE	KIM
2.680	%40	%120

2004. urtean kontzentrazio-indize altua aurkezten du barne eskariaren estaldura maila neurrizkoa izanik. Haatik, eskualdea gainditzen duen irekitze maila altua aurkezten duen sektorea da.

Sektore «horia» da.

**Azpi-sektore ezberdinen pilaketa:** 262 azpi-sektorea Erregogorrek ez diren zeramika produktuen fabrikazioa eraikuntzara zuzendutakoak salbu; Erregogorrek diren zeramika produktuen fabrikazioa, 263, Zeramikazko azuleju eta baldosen fabrikazioa, 264, adreilu, teila eta eraikuntzarako lur-egosi produktuen fabrikazioa, 267, Harri industria eta 268 metalezkoak ez diren produktu mineral anitzen fabrikazioa, EAEko IOT taulen P35 Metalezkoak ez diren besteak atalari dagokio.

EAEko ekoizpenak, arinki joera hazkorra duen 1.061,145 milioi eurotako kopurua aurkezten. Hala ere, laginean 346,2 milioi eurotako ustiapen sarrerak jasotzen dira kontuan hartutako 90 enpresentan oinarrituz, non adierazgarritasuna baxua dela adierazten den.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
975	%79,66	%42


Beraz, sarrerekiko kalkulatu den 2004 urteko kontzentrazio-indizea baxua da, eskualdea gainditzen duen kanpo irekitzea maila neurrizkoa da eta barne eskariaren estaldura altua da. Informazio hau laginaren adierazgarritasun txikiaren ondorioz ñabarturik geratzen da.

Azpi-sektore hauen pilaketa modu bateratuan kontuan izanik, «berdea» dela esan daiteke.

**265 eta 266 azpi-sektoreak. Porlan, kare eta igeltsuaren fabrikazioa eta Hor-migoi, igeltsu eta porlaneko elementuen fabrikazioa,** EAEko IOT taulen P34 Porlana atalari dagokio.

2004 urtean EAEko ekoizpena (130,7 milioi euro) datu-basean jasotako 85 enpresen ustiapen sarrerek gainditzen dute (512,4 milioi euro). Azken honen azalpena, EAEtik at lantegiak dituzten enpresak ugariak direla izan daitekeelarik.

Datu-basean, 265-2 azpisektorearen, Karearen fabrikazioan, enpresa oso handi bat gailentzen da CALCINOR, S.A.<sup>93</sup>



Aztertutako indizeek emaitza hauek dituzte:

HHI	BEE	KIM
901	%26,64	%248

Ustiapen sarreren arabera kontzentrazio-indize baxua duela kontuan izanik eta barne eskariaren estaldura mugatua kanpo irekitze maila altuarekin bateratuz, «zuria» den sektore baten aurrean gaudela baieztatu daiteke.

Haatik, analisi zehatzago bat egitea komenigarria da, bertan bi azpitalde oso ezberdinak barneratzen baitira: 2651 (nabarmendu behar diren berezitasunak dituen porlanaren industria) eta 2652 (karearen fabrikazioa).


Bestalde, porlanaren sektoreak dituen ezaugarri bereziak aipatu behar dira, 265-2, zeina askotan, lehiaren defentsarako organuen bidez babesten den.

<sup>93</sup> Hogei eskumendekoz osaturik gutxi gorabehera, nazioko lidergoa du kare eta bere eratorrien ekoizpenean eta dibertsifikazio estrategia baten ondorioz, kanpo hazkunde prozesu indartsu batean barneraturik dago. Burdingintzarako kareen hornitzailea da eta labeen, koilaren eta bihurgailuen babesarako erregogoren hornitzailea. Hornitzaile honek, zenbait eskuraketa eragiketen bidez hazten jarraitzen du. Hori dela eta, KELSEN (erregogor) eta ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO taldean barneratzeak bukarako bezeroei sarrera eman dio eta merkatuko estrategiak modu efektiboagoan aurreratzen uzten dio. Egun, bere lehenetasunen artean, balio gehigarria duten produktak sortzea du.

Halaber, euskal porlan industria, 265-1 (porlan industria) bi enpresa handik osatzen dute: CEMENTOS LEMONA, PORTLAND VALDERRIVAS-FCC taldean duela gutxi barneratu dena eta CEMENTOS REZOLA.<sup>94</sup>

Euskal porlan enpresen datu-basearen datuak kontuan izanik, 265-1 azpisektorean kontzentrazio indartsu bat ikuskatzen da, HHI 3.151ekoa delarik. Beraz azpisektore hau «gorria» bezela sailkatu daiteke non inportazioak eta esportazioak oso urriak diren jarduera beraren berezitasunengatik.

**27 TALDEA. Metalurgia**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **271 azpisektorea, Burdinezko, altzairuzko eta ferroaleaziozko (IAEE) oinarritzko produktuen fabrikazioa, 272, Hodian fabrikazioa, 273 Burdinezko eta altzairuzko eraldaketaren beste jarduera batzuk eta IAEE ez diren ferroaleazioen ekoizpena eta burdin eta altzairuaren beste eraldaketa prozesu batzuk, zeinak hurrengoetan pilatu dituen; 274 azpisektorean, Metal preziatuen eta burdinezkoak ez diren beste metal batzuen ekoizpena eta lehenengo eraldaketa eta 245 azpisektorean Metalen galdaketa.** Euskal Barne Produktu Gordinera ekarpen handiena egiten duen sektoretariko bat da.<sup>95</sup>



<sup>94</sup> SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERAn pilatuta dago, HORMIGONES Y MINASekin batera eta era berean, ITALCEMENTI GROUPEan barneratuta dago zeina munduko porlan egileen artean bostgarren taldea den. CEMENTOS REZOLA y HORMIGONES Y MINAS EAEn punta-puntako enpresak dira. Espainian, CEMEX mexikar taldeak du lidergoa, 8 porlan lantegi ditu, 110 hormigoio makina eta 10 banaketa zentru eta itsas-geltokiak. Datu-basean ez dira Cementos Rezolari dagozkion kopuruak barneratu eta honek kalkulaturako indizeak okertzen ditu.

<sup>95</sup> Eraikuntza eta higiezin jarduerak baztertzen baditugu, ekoizpenaren ikuspuntutik lehenengoa da. Garrantzia hau estatuko eremuan ere islatzen da. Beraz, C-interreg 2005 urteko datuak kontuan izanik, Metalurgia sektoreak eta metalezko produktuen fabrikazioak pilatzen dituena, EAE, bezeroen mailaketan liderra da, %21,1 estatuko kuota duelarik. Honi, Kataluniak jarraitzen dio baina bion arteko aldea handia da Kataluniak %14,3ko kuota baitu. Madril ere gertu aukitzen da %11,8-ko merkatu kuotarekin.

Guztien artean, burdingintza jarduerak pisu erlatibo handiena izan duen eta izaten jarraitzen duen jarduera da, euskal ekonomiarentzako<sup>96</sup> izugarritzko garrantzia duelarik eta enpresa batzuen izaera adierazgarria nabarmentzekoa izanik. Garatutako burdingintza jardueran aldaketa garrantzitsu eta sakonak eman dira. Aldaketa hauen artean, ekoizpen teknologietan izan diren etengabeko aurrerapenak eta enpresa kudeaketan izan diren aldaketak gailentzen dira. Hauen bitartez, sektoreko ekoizpenaren hobekuntza eta sektoreko aktoreen aldaketa eman da non egun nazioarteko konglomeratuak nagusitzen diren beraien jarduera eremua zuzenean mundu osokoa izanik. Azken urteetan munduko altzairu fabrikatzaile handienak diren MITTAL eta ARCELOR enpresek izan duten kanpo hazkunde eragiketa guzti honen adierazle garbia da,<sup>97</sup> munduko punta-puntako taldea sortu dutelarik noski.

Hala ere, nahiz eta jarduera hau egun euskal ekonomian presente egon, orotazuzenean duen garrantzia geroz eta txikiagoa dela begi-bistakoa da.

Funtsean, birmoldatutako jarduera bat da zeinak EAEan kokatutako establezimenduak, talde handietako partaide izan daitezen baimendu duen, hala nola, MITTAL-ARCELOR, SIDENOR, GSB, TUBACEX, TUBOS REUNIDOS. Guzti honek, EAERI burdingintza jardueran buru mantentzeko laguntza ematen dio. Haatik, badirudi enpresa titulartasunaren eboluzioak sektorearen inguruak zirriborratu dituela, ekoizpen establezimenduen kudeaketa kontrola EAetik hurrun geratzen baita batzuetan. Guzti honek, sektoreko lehia-egituraren gain eta dagoeneko mugatua dagoen kontzentrazio-indizeen erlatibizazioarengain eragina du noski.

**271-272-273 azpisektoreen** pilaketak, euskal ekonomian ohitura eta pisu handiko eta tamainaz banaketa egokia duen sektore baten egitura oso lehiakorra eskuratzen du (**271 azpisektorea, Burdinezko, altzairuzko eta ferroaleaziozko (IAEE) oinarritzko produktuen fabrikazioa, 272, Hodien fabrikazioa, 273 Burdinezko eta altzairuzko eraldaketaren beste jarduera batzuk eta IAEE ez diren ferroaleazioen, ekoizpena eta burdin eta altzairuaren beste eraldaketa prozesua**) EAEko IOTen 36. atalarekin erlazionatzen da, Burdingintza.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke, banaketa egokia duelarik, 16 enpresa handi<sup>98</sup> eta ETE ugari (hogei enpresa ertain gutxi gorabehera, beste hain beste enpresa txiki


<sup>96</sup> Nahiz eta euskal ekonomiaren «hirugarrentzeko» joera jarraian ondorioz bere pisu erlatiboa geroz eta txikiagoa izan, porduktu anitzentzako altzairuaren lehengai edo inputaren baldintzek bere eboluzioak erkidegoaren garapen ekonomikoaren zeaugarriak agerian jartzea bultzatzen dute. Gainera, ekonomia zikloaren aurrikuspena adierazten du, adierazle aurreratua izango balitz bezela, zuzenean inbertsio ondasun/azpiegiturekin lotzen baita.

<sup>97</sup> AHV adierazgarriak ACBn izandako eraldaketak, globalizaziorako joera duen merkatu baten sekuentzia oso adierazgarria adierazten du. Bere jatorri euskaldunetik estatuko esku publikoetara (CSI) pasa zen lehenik, ondoren, ACERALIaren bidez esku pribatuetara, hauetatik ARCELOR bidez Luxemburgoko eskuetara, eta azkenik hinduak diren eskuetan amaitu duelarik MITTAL-ARCELORen hain zuzen ere.

<sup>98</sup> Edozein kasutan, enpresa handi hauen artean, ARCELOR (egun, MITTAL-ARCELOR) enpresaren azpian daudenekin erlacionatu behar dira: ACERIA COMPACTA DE BIZKAIA, S.A., ARCELOR OLABERRIA, S.L., ARCELOR BERGARA, S.A. Bestalde, hodian sektorean (TUBOS REUNIDOS y CONDESA) adierazgarriak diren kontzentrazio eragiketak sortzen ari dira baina aztertutako urteen arabera azterlan honetako datuetan ez lukete eraginik izango.

eta berrogeita hamar mikroenpresa). Laginean ehun enpresa baino gehiago barnertzen direlarik.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urteko ustiapen sarrerak 5.262 milioi eurokoak dira IOT taulen ekoizpen kopuruekiko proportzio ia perfektua suposatzen dutelarik (2004 urtean %96). Zentzu honetan, laginak sektorea ia bere osotasunean estaltzen duela esan daiteke.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
587	%43	%113

Kontzentrazio-indize baxua adierazten du eta esportazio eta inportazio ugariak sortutako sektoreko<sup>99</sup> irekitze maila oso altua. EAetik kanpo sektore bereko neurrizko merkatal fluxua sortzen da. Guzti honen arabera, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEko dimentsioa gainditzen duela baieztatu daiteke.

Azpi-sektore «zuria» da.


**274 azpi-sektorea metal preziatuen eta burdinezkoak ez diren beste metal batzuen ekoizpena eta lehenengo eraldaketa.** EAEko IOT taulen 37 atalarekin erlazionatzen da. Burdinezkoa ez den metalurgia.

<sup>99</sup> CIVEX datu-basea: sektoreko lehenengo enpresak %51-70ko esportazio maila artean aurkitzen dira, NERVACERO,S.A. salbu %16-25 esportazio maila tartean aurkitzen delarik.



Laginak enpresa oso handi bat barneratzen du: BEFESA ALUMINIO BILBAO S.L., %66,66ko pisu erlatiboa duena baina esportazio mailan %26-50 balioen artean kokatzen dena. Gainontzeko herena, lau enpresa ertainek, hauetako bi (BOST-LAN, S.A. eta ALUMINIO INYECTADO ALIASA, S.L.) %51-76 esportazio mailen artean daudelarik; zortzi enpresa txikiak eta hamasei mikroenpresek osatzen dute. Lagina 26 enpresek osatzen dute. Lehenengo bost enpresek %87,79ko pisu erlatiboa dute eta lehenengo hamar enpresek berriz %94,35 eskuratuko lukete.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 317 milioi eurotakoa da, zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruekiko neurrizko proportzioa suposatzen duen (224 urtean %41). Zentzu honetan, laginak partzialki estaltzen du sektorea, beraz, kontzentrazio maila interpretatzerako orduan kontuan izan behar den argumentua da. Datu honen azalpena, metalurgia sektorean dibertsifikatutako enpresen existentziarekin erlacionatu daiteke eta ondorioz metalezkoak ez diren fakturazioak barneratzen dira aurreko antzeko azpisektoretan.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
4.555	%26	%113

Bere egitura ez dago aurreko kasuan bezain orekatua, nahiz eta merkatu adierazgarriak kontzentrazio-indizea erlatibizatzen duen. Sektorean enpresa handi baten presentzia nabarmentzen da zeina kontzentrazio-indize oso altuaren azalpena den. Hala ere, sektorearen irekitze maila oso altua da, inportazio garrantzitsu eta

esportazio gutxiago baina adierazgarriak direnak sortutakoa. EAetik at sektoreko bereko merkatal fluxu altua sortzen da.


Azpisektore «berdea» da.

**275 azpisektorea Metalen galdaketa**, EAE-ko IOT taulen 38. atalarekin erlazionatzen da, Galdaketa.

Burdingintza azpisektorearen antzera, euskal ekonomian ohitura eta pisu handia duen eta tamainarekiko banaketa egokia duen sektore batean lehiaketa arazorik gabeko egitura aurkezten du. Haatik, eskualdeko merkatuaren estaldura altua dela eta, sektorearen hausnarketa sektore «berdea» izatera aldatu da.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta banaketa egokia duela, enpresa handi bat eta ETE ugari dituelarik (hogei enpresa ertain gutxi gorabehera, hogeita hamar enpresa txiki eta berrogehi mikroenpresa). Laginean ia ehun enpresa barnertzen direlarik.

Aipatutako azpisektoreen enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarrerren kopurua 790 milioi euro ingurukoa da, IOT taulen ekoizpen kopuruekiko proportzio altua suposatzen duelarik (2004 urtean %70-a). Zentzu honetan, laginak sektorearen zati handiena estaltzen du.




Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
490	%38,49	%57,96	%78	%75

Kontzentrazio-indize baxua nabari da, sektoreko irekitze maila altuarekin batera, esportazio<sup>100</sup> garrantzitsuek eta inportazio txikiagoek eragin dutelarik. Hala ere, EAE-tik kanpo sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, eskualdeko merkatu estaldura altua da. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspegi geografiko batetik, EAEko dimentsioa zati batean gainditzen duela adierazten du, batez ere eskaitzaren perspektibatik. Dena dela, autokontsumo altua sortzen da.

**28. TALDEA, Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta tresneria salbu.** EAEko IOT taulen hurrengo atalei dagokie gutxi gorabehera: P39, Metalezko eraikuntza, P40, Forja eta estanzazioa, P41, Ingeniaritza mekanikoa eta P42 Metalezko artikulua.

EAEko jarduera atal hauen ekoizpen totala 7.000 milioi euro ingurukoa izan zen. Jarduera honen garrantzia, enpresen kopuru altua, eta jarduera ezberdinen berezitasunak kontuan izanik, berezitateko analisiak egiten dira.




**281 azpisektorea, Eraikuntzarako metalezko elementuen fabrikazioa,** EAEko IOT taulen P39<sup>101</sup> atalari dagokio. Datu-basean barneratutako 528 enpresentzako, 2004 urtean 857,9 milioi eurotako kopurua jasotzen du. Bi enpresa handi gailen-

<sup>100</sup> CIVEX datu-basea: sektoreko lehenengo enpresek, esportazio maila altuetan beraien joera esportatzailea aldatzen dute. Horrela, azpisektoreko hirugarren eta laugarren enpresak (J.L. FRENCH AN-SOLA, S. L. eta FUCHOSA S. L.) esportazio maila altuenean aurkitzen ditugu (%36-100). Bigarrena berriz, (VICTORIO LUZURIAGA-USURBIL, S.A.), %51-75 esportazio mailen artean eta punta puntako enpresa OUTOKUMPU COPPER TUBES, S.A., %26-50 esportazio mailen artean.

<sup>101</sup> Hala ere, P39 atalak, Metalezko eraikuntzak, 282 eta 283 azpisektoreak barneratzen ditu, hurrengo lerroetan aztertzen direlarik.

tzen dira: NERVION MONTAJES eta MANTENIMIENTOS S.L.<sup>102</sup> eta ULMA CONSTRUCCION,<sup>103</sup> jarraian bost enpresa ertain daudelarik eta gainontzekoak enpresa txiki eta mikroenpresak direlarik.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
230	%67,94	%70,33

Zatikako sektorea da, kontzentrazio-indize oso baxua du eta lehenengo bost enpresek %27ko merkatu kuota dute. Lehenengo hamar enpresek berriz, %36 eskuratzen dute. Barne eskariaren estaldura maila neurritzkoa da.

Azpi-sektore «zuria» da.


**282 azpi-sektoreak, Tangak, depositu handiak eta metalezko edukiontzien fabrikazioa. Berokuntza zentralerako berogailuak eta galdarak eta 283 Lurruntzailen fabrikazioa.** EAEko IOT taulen P39 atalarekin erlazionatzen dira eta 232,949 milioi eurotako ustiapen sarrerak aurkezten dituzte (datu-basean 104 enpresa izanik).

Lau enpresa ertain izan ezik, gainontzeko guztiak enpresa txikiak eta mikroenpresak dira.

<sup>102</sup> MONESA talde dibertsifikatuan barneratzen da.

<sup>103</sup> Lau kooperatibek osatutako eta jarduera oso dibertsifikatua (zazpi negozio unitate estrategiko) duen ULMA TALDEKO negozio unitatea da.


Jarduera honen kontzentrazio-indize mugatua eta barne estaldura kopuru neurritzailekoak kontuan izanik, kontzentrazio zeinurik aurkezten ez duen sektore «zuria» dela esan daiteke.



**284 azpisektorea, Metalen forja, estanzazio eta enbutizioa; Hautsen metalurgia, eta 285 azpisektorea, Metalen tratamendu eta estaldura, Ingenieritza mekaniko orokorra hirugarrenen kontura** EAEko IOT taulen P40 ataleriki erlazionatzen dira gutxi gorabehera, Forja eta estanzazioa, eta P41 atalarekin, Ingenieritza mekanikoa. Datu-basean, 844 enpresa barneratzen dituzte 2.119,6 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituztelarik (ia-ia euskal ekoizpen totala).

Kontzentrazio-indize oso baxua (HHI: 95) eta neurritzaile barne eskariren estaldura (BEE: %70 ingurukoa) kontuan izanik, oso zatikako egitura duen sektore «zuria» dela baieztatu daiteke. Lehenengo hamar enpresen artean, %24,85eko merkatu metatutako kuota soilik eskuratzen dute.

Azkenik, **286 azpisektorea, Aiztogintza eta mahai-tresneria, lanabes eta burdinaria artikuluen fabrikazioa eta 287 azpisektorea, Produktu ezberdinen fabrikazioa, altzariak salbu**, EAEko IOT taulen 42. atalarekin erlazionatzen dira, Metalezko artikulua. Datu-basean, 800 enpresa barneratzen dituzte 2.702,1 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituztelarik. Kopuru honek EAEko ekoizpen totala gainditzen du (2.434,2 milioi euro), honen azalpena, enpresen datu-basean EAEtik at lantegiak dituzten enpresen presentzia eta jarduera dibertsifikatua burutzen duten enpresen existentzia da eta ez sektore hauei dagokienez soilik.



Aztertutako indizeek emaitza hauek dituzte:

HHI	BEE	KIM
90	%41,46	>%100

Sektore «zuria» da, kontzentrazio-indize oso baxuak ditu, barne eskariaren estaldura neurritzeko eta kanpo irekitze maila altua. Merkatu geografiko adierazgarria EAE baino handiagoa da produktu hauek normalean, «ongi bidaiatzen» duten produktuak baitira. Hori dela eta, kostu baxuko herrialdeetatik ekartzen diren produktuak mehatxuak dira beraiantzako eta berrikuntza eta lehiakide hauetatik ezberdintzeko egin behar duten ahalegina funtsezkoa da.


**29. TALDEA, Makineria eta lanabes mekanikoaren eraikuntza industria.** Hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **291, Makineria, lanabes eta material mekanikoen fabrikazioa; 292, Erabilera orokorreko beste makineria, lanabes eta material mekanikoen fabrikazioa; 293, Nekazal makineriaren fabrikazioa; 294, Makina-erraminten fabrikazioa, zeinak pilatu egin ditugun; 295, Erabilpen espezifikorako makineria ezberdinen fabrikazioa, 296, Arma eta munizioen fabrikazioa, eta 297, Etxeko tresnen fabrikazioa.**

Orokorrean oreka eta bolumen handiko enpresa banaketa aurkezten du zeinak kontzentrazio-indize baxuak azaltzen dituen. Hala ere, eraikuntzarako makineriarekin duen loturaren barnean, nahiko heterogeneoa den taldea da eta azpisektore sailkapen zehazgabea du.<sup>104</sup>

<sup>104</sup> Honek batzuetan sailkapen ezberdinetako kopuruek egokitzapen egokiak ez aurrikustea bultzatzen du. Badirudi beraz, zentzu honetan, jarduera honekin zerikusia duten enpresen existentzia nabar-

Edozein kasutan, Euskal Barne Produktu Gordinera ekarpen gehien egiten dituzten sektoreko talde bat da.

Bestalde, kontu bateratuak aurkezten dituzten eta EAetik kanpo ezarpenak dituzten enpresek datu-basean duten presentziak, I-O tauleko datuekin egokitzapenak egiteko garaian, azpisektore hauekin lotutako zenbait kopuru gehiegi handitzea eragiten du.



**291 azpisektorea, Makineria, lanabes eta material mekanikoen fabrikazioa eta 292 azpisektorea, Erabilera orokorreko beste makineria, lanabes eta material mekanikoen fabrikazioa (pilatuta) 293, Nekazal makineriaren fabrikazioa eta 294 azpisektorearekin batera, Makina-erraminten fabrikazioarekin (pilatuta);** euskal ekonomian ohitura eta pisu handiko eta tamainaz banaketa egoia duen sektore baten egitura oso lehiakorra eskuratzen du. EAEko IOT taulen 43. atalarekin erlazionatzen da, Makina-erraminta.


Makina-erramintaren fabrikazioak EAEn ezarpen nabaria izan du bere jatorritik. Hala ere, azken hamarkadetan EAEn kontzentrazioa hazkor bat jaso da, batez ere, Gipuzkoako lurralde historikoan eta egun jardura adierazgarri eta bereizgarrian bilakatu da.<sup>105</sup>

mendu behar dela. Enpresa hauek dibertsifikazio maila altua eskuratzen dute dagozkien zenbait azpisektoreetan (gama zabaleko produktuak) beraz, azpisektore bakar batekiko lotura hertsia ez da guztiz zehatza. 291-292 eta 293-294 azpisektoreen eransketa nolabait sailkapen desberdintasun hau zuzentzen du.

<sup>105</sup> Zentzu honetan, nahiz eta makina-erraminta fabrikatzen duten enpresen kopurua pixkanaka jeisten joan den, dimentsio baterakor bat lortu ahal izateko, EAEan kokaturik daudenen proportzioa (ba-

Enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, azpisektore hauen 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 1.845 milioi eurotako da, zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruekiko desproporzio garrantzitsu bat suposatzen duen (2004 urtean %199-koa). Honen arrazoiak, sailkapen zailtasunak eta bateratutako kontuak dituzten enpresen kanpo ezarpenen existentziak direlarik.

**291-292 azpisektoreen kasuan**, bi enpresa oso handi dituzte,<sup>106</sup> laukotea osatzen duten enpresa handiak, hamabost enpresa ertain, enpresa txiki ugari (60 bat) eta mikroenpresa anitz (150 inguru), laginean berrehun enpresen kopurua gainditu arte. EAEko enpresetara mugatutako azpisektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du (HHI 570). Lehenengo bost enpresek, %41,93ko pisu erlatiboa dute eta lehenengo 10 enpresek %57,55 eskuratuko lukete ustiapen sarreren eta datu-baseko laginaren arabera.




**293-294 azpisektoreak** 16 enpresa ertain, 30 enpresa txiki eta 80 mikroenpresa barneratzen dituzte, egitura ona eta osasungarria dutelarik. EAEko enpresetara mugatutako azpisektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du (HHI: 330). Lehenengo bost eta haman enpresek %30,07 eta %48,30 suposatzen dute hurrenez hurren.

tez ere Gipuzkoan) %70 arte handitu da (Gipuzkoan %55, enplegu terminuetan %60-aren gaitetik igotzen den pisua). Deba Behera bailara jardura honetan espezializazio maila altuen duen eremua izanik. Donostian egoitza soziala duen Asociación Española de Fabricantes de Máquina Herramientak (AFM) eremu honetan duen lana adierazgarria da.

<sup>106</sup> ORONA, SCL. eta FAGOR ARRASATE, SCL. gain, datu berriagoen arabera, hurrengoak gehitu beharko lirateke: GAMESA ENERGY TRANSMISSION, S.A. eta THYSSSENKRUPP ELEVATOR MANUFACTURING SPAIN, S.L..





Orokorrean, esportazio ugariak eta garrantzia gutxiago ez duten inportazioek sortutako sektorearen irekitze maila oso altua nabari daiteke (%107-ko KIM-a).<sup>107</sup> EAEtik kanpo sektore bereko merkatal fluxu neurrizkoa sortzen da (BEE %44). Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEaren dimentsioa gainditzen duela adierazten du.

Bi azpisektore pilaketak (291-292 eta 293-294) azpisektore «zuriak» dira. Beraien egiturak orekatutzat har daitezke eta banaketa egokiak dituzte.

Alderdi kualitatiboago batetik, bezeroen behar pertsonaletara etengabe egokitzeko hornitzaile, erabiltzaile eta banatzaileekin maiz komunikatzeko beharra sortzen du, erantzun bide berriak aurkitzeko, ez soilik komertzialak baizik eta finantzarioak, salmenta ondoko zerbitzuak, teknikoen errekrutatze eta formazioa, lankidetzak ezberdinak, etab. helburu dutelarik.


**295 azpisektorea, erabilpen zehatzetarako makineriaren fabrikazioa**, EAEko IOT taulen 45. atalarekin erlazionatzen da, Bestelako makineria.

Datu-basean 225 enpresa barneratzen dituzte, zeinak 874,3 milioi eurotako us-tianpen sarrerak dituzten eta IOT taulen ekoizpen kopuruekiko proportzio baxua suposatzen duten (2004 urtean %26).

<sup>107</sup> CIVEX datu-basea: Sektoreko lehenengo enpresak %26-50 esportazio maila tartean aurkitzen dira. Punta-puntako enpresaren batek (GRUPO DANOBAT) %51-75 maila eskuratu du eta THYSEN-KRUPP ELEVATOR MANUFACTURING SPAIN, S.L. enpresak %76-100 balio maila izatera iritsi da. Kopuru hauek sektorearen nazioarteko dimentsioa baieztatuko lukete (eta ondorioz, bere merkatu geografiko adierazgarria).

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta banaketa egokia duena; hiru enpresa handi,<sup>108</sup> hamabost enpresa ertain eta enpresa txiki (66) eta mikroenpresa ugari (140 inguru), laginean berrehun enpresen kopurua gainditu arte.

Laginak sektorearen laurdena estaltzen du, kasu honetan EAEko eta EJSNko IOT taulen definizioek bat egiten ez baitute eta honek aurreko azpisektoreetan aurkitutako desportzioa, automatikoki konpentsatzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
290	%30,90	%44,19	35	%33	%126


EAEko enpresei mugatutako azpisektoreak kontzentrazio-indize oso altua aurkezten du. Gainera, sektorearen irekitze maila oso altua eta EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu neurrizko-altua existitzen da. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAeren dimentsioa gainditzen duela adierazten du.

Azpisektore «zuria» dela esan daiteke.

**296 azpisektorea, Arma eta munizioen fabrikazioa**, ez da EAEko IOT taulen atal zehatz batekin erlazionatzen.

<sup>108</sup> FAGOR INDUSTRIAL, S. COOP., SIEMENS VAI METALS TECHNOLOGIES, S.A. eta VOITH PAPER, S.A., pisu erlatiboaren %10 baino gehiago ez du bat berak ere ordezkatzeko eta hiru enpresen artean 2004 urterako %22,5 eskuratzen dute.

Datu-basean 18 enpresa barneratzen dira, zeinak 99,6 milioi eurotako ustiapen sarrerek dituzten eta euskal industriako erlatiboki mugatua den kopurua suposatzen duten. Nahiz eta EAEan nolabaiteko historia duen sektorea izan, enpresa asko dira beraien jarduerak birmoldatu dituztenak eta beraz, beraien kontzentrazio-indizeak oso adierazgarriak ez direla baieztatu daiteke.




Sektorearen irekitze mailarekiko (KIM) eta barne eskariaren estaldurarekiko (BEE) erlatiboak diren datuen faltagatik, kontzentrazio-indizea altua da (HHI 2.439-koa). Guzti hau bi enpresa ertain dituen duopolista egituraren ondorio da non SAPA PLACENCIA, S.L. punta-puntako enpresak 2004 urteko ustiapen sarreren arabera, %41,10ko pisu erlatiboa eskuratzen duen. BERETTA-BENLLI IBERICA, S.A. enpresak aldiz, %24,56 mantentzen du. Beraz, bion artean merkatuko bi heren menperatzen dituzte (%65,66). Liderra, CIVEX datu-baseko datuen arabera, %5-15 esportazio mailan aurkitzen da, bigarrenak aldiz esportatzaile joera handiagoa mantentzen du bere maila %16-25ekoa izanik. Gainontzeko herena, sei enpresa txiki eta hamar mikroenpresen artean banatzen da.

**297 azpisektorea, Etxeko tresnen fabrikazioa**, EAEko IOT taulen 44. atalarekin erlazionatzen da, Etxeko tresnak

Datu-basean 27 enpresa barneratzen dituzte, zeinak 1.427,7 milioi eurotako ustiapen sarrerek dituzten eta IOT taulen ekoizpen kopuruekiko nolabaiteko desproporzioa suposatzen duten (2004 urtean %146).<sup>109</sup>

<sup>109</sup> Lehenago azaldutako sailkapen zailtasun arrazoiak eta kanpoan bateratutako kontuak dituzten lantegien existentzia dela eta. Azpisektore honetako punta-puntako enpresak, FAGOR ELECTRO-DOMESTICOS, S.L., atzeriko zenbait produkzio lantegi mantentzen ditu (KPL), eta datu-basean



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
4.907	%90	%98,77	2	%51	%99

Oso kontzentrazio-indize altuak aurkezten ditu, nahiz eta irmoa den FAGOR ELECTRODOMESTICOS, SCL enpresaren kopuruak kontzentrazioaren analisia indargabetzen duen. Bere egitura oso kontzentratua dela esan daiteke, oso nabarmena den enpresa baten lidergoak menperatzen duelarik. Punta-puntako enpresa honek<sup>110</sup> 2004 urteko ustiapen sarreraren %68,70 adieraziko luke eta lau enpresa handiek urrutitik jarraituko lukete (COPRECI, S. COOP., CANDY HOOVER ELECTRODOMESTICOS, S.A, ORKLI, SCL.). Honi GEYSER GASTECH, S.A., gehituko genioke eta K5 %90 arte igoko litzateke, ETE eta mikroenpresen hondar kontsiderazio batekin eta laginako hogeita hamar enpresa inguru eskuratu bitartean.

Jasotako emaitzen arabera, azpisektore «laranja» bezela sailkatu beharko litzateke. Hala ere, aurreko hausnarketak kontuan izanik, sailkapen hau merkatu boterearen banaketa terminuetan zehaztu daiteke. Gainera, indize hau testuinguru ireki


datu bateratuekin agertzen da. Haatik, guzti hau azpisektore honetan garrantzitsuak diren enpresa kooperatibak 2004 urteko datu-basean ez azaltzearekin konpentsatzen da hala nola, ORKLI, SCL zeinak 2000 eta 2002 urteetan sarrera gehien zituztenen artean laugarren tokia zuen eta COPRECI, S. COOP, (KPL ugari zituen baina kasu honetan datua ez da irmoa) kooperatibaren eta CANDY S.P.A multinazionalaren kide zen CANDY HOOVER ELECTRODOMESTICOS, S.A., enpresaren atzetik zegoen.

<sup>110</sup> Beti FAGOR ELECTRODOMESTICOS, SCL. enpresaren kopuru irmoaren arabera.

eta global batean kokatu behar da, sektorearen irekitze maila altua<sup>111</sup> eta EAEtik kanpoko sektore bereko merkatal fluxu neurritzkoa kontuan izanik. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEko dimentsioa gaindizten duela adierazten du. Funtsean, bezeroen jarraipeneko (etxetresna elektrikoak fabrikatzen dituzten multinazional handiak) sektore global bat da zeinak EAEn funtsezko osagai esportatzailea duen eta kontuan hartutako urte guztietako esportazioek ekoizpen sektorearen erlatiboki antzekoak diren mailak adierazten dituzten.

Zentzu honetan, nabarmentzekoa da sektoreko enpresa nagusiek jarraitutako estrategiek bereizketa bat egiten dutela gure lurretan kokatutako lantegiekin esportazio osagai handiago baten artean edo Kanpo Inbertsio Zuzenaren (KIZ) erabilte handiago baten artean, Kanpo Lantegi Produktiboen (KLP) bitartez atzerrian ekoiztutako esportazioak ordezkatzeko. Edozein kasutan, bi joera estrategikoei sektore globala kontuan izan behar dela adierazten dute eta beraz, lortutako kontzentrazioa erlatibizatu behar dela.

**30. TALDEA. Bulegoko makinaren eta ekipamendu informatikoen fabrikazioa,** EAEko IOT taulen P46. atalari dagokio gutxi gorabehera, Bulegoko makineria eta ekipo informatikoak.



<sup>111</sup> CIVEX datu-basea: Sektoreko lehenengo enpresentzako, kopuru irmoak aurkezten ez dituztenak, COPRECI S. COOP eta GEYSER GASTECH, S.A. %51-75 bitarteko esportazio mailan aurkitzen dira. ORKLI, SCL. enpresak %76-100 esportazio maila eskuratzen du eta horrela bere estrategia esportatzaile garbia erakusten du. CANDY HOOVER ELECTRODOMESTICOS, S.A. aldiz, %26-50 bitarteko esportazio mailan aurkitzen da. FAGOR ELECTRODOMESTICOS, SCL posizio multinazionala gehituko bagenu, kopuru hauek sektorearen nazioarteko dimentsioa baieztatuuko lukete (eta ondorioz, bere merkatu geografiko adierazgarriarena).

Datu-baseak soilik bederatzi enpresa jasotzen ditu, zeinak 5,4 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituzten. Sarrera hauek EAEko ekoizpenaren %10 suposatzen dute beraz, laginaren adierazgarritasuna oso urria da.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	BEE	KIM
3158	%5	%480,79

Nahiz eta kontzentrazio-indizea oso altua izan eta laginako lehenengo bi enpresek CYCMA, S.L.<sup>112</sup> eta EITEK INFORMÁTICA, S.L.,<sup>113</sup> merkatu kuotaren %71 izan, kontzentrazio zeinu hauek bazterturik geratzen dira EAEko merkatua errez gainditzeko duen merkatu adierazgarritara zuzentzen diren inportazio eta esportazio altuen erreferentzien bidez.<sup>114</sup> Kanpo irekitze maila (estatu eta nazioartekoa) oso altua da baina barne eskariaren estaldura %5 besterik ez da. Datu hauek aurkezten duten jardueraren merkatu adierazgarria ez da EAE, estatu edo mundiala baizik.

Sailkapenean «berdea» den sektore baten aurrean gaude, baina laginaren adierazgarritasun urriak garrantzitsuagoak diren konklusioak ateratzeko aukera eragozten du.

Hala ere, EAEn informatika eta elektronika jarduerak elkarlotura dutela zehaztea beharrezkoa da, ondorioz, 32. taldean dauden enpresa batzuk hemen ere lekua dute.<sup>115</sup>

**31. TALDEA. Makineria eta material elektrikoaren fabrikazioa,** euskal ekonomian ohitura eta pisu handikoa den eta tamainaz banaketa egokia duen sektore baten egitura oso lehiakorra da. Honek lehia arazorik gabeko egiturari bidea ematen diolarik. EAEko IOT taulen 47. atalarekin erlazionatzen da, Materila elektrikoa.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta banaketa egokia duela; bost enpresa handi<sup>116</sup> eta ETE ugari ditu (ia hogeita enpresa ertain, berrogeita hamar enpresa txiki eta 120 mikroenpresa), EAEko laginean ia berrehun enpresa barneratu arte.

<sup>112</sup> Merkatu espainiarrean biltegitratze informatikoen aintzindaria.


<sup>113</sup> Informazioko teknologietan aditua den konpainia.

<sup>114</sup> EAEko ekoizpenak 56.192 milioi eurotako kopurua aurkeztu zuen, inportazioak 225.063 milioi eurotakoak izan ziren eta esportazioak berriz, 45,1 milioi eurotakoak.

<sup>115</sup> Telekomunikazio Cluster elkarteak, GAIA, 1988. urtean sortu zenak, egun elektronika, informatika eta telekomunikazio eremuan produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten 170 enpresa barneratzen ditu. GAIA-ren zeregina, elektronika-informatika eta telekomunikazio sektorearen garapen eta hazkundera bultzatzea da eta sektoreko teknologien bereganatze eta erabilpen egokia bultzatzea informazio gizartearen eta ezagutzaren garapenean laguntzeko helburua izanik.

<sup>116</sup> Bat konkretuki oso handia da (ORMAZABAL Y COMPANIA, S.A.) eta lau enpresa handi (CELAYA EMPARANZA Y GALDOS, S.A., MANUFACTURAS ELECTRICAS, S.A., E.C.N. CABLE GROUP, S.L. e INDAR MAQUINAS ELECTRICAS, S.L.). Haatik, zehatzak izanik, nahiz eta partzialki izan, beste bi enpresa barneratu beharko lirakeke (FAGOR ELECTRONICA, S.COOP. y ELECTROTECNICA ARTECHE HERMANOS, S.A.) beraien dibertsifikazio estrategiaren ondorioz, beste azpitalede batzuetan kokatzen direnak.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 1.076 milioi eurotakoa da eta honek IOT taulen ekoizpen kopuruaren proportzio altua (2004 urtean %73) suposatzen du. Zentzu honetan, laginak sektorearen zatirik handiena estaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
409	%37,98	%51,51	24	%136	%36

EAEko enpresei mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aukezten du. Era berean, esportazio eta inportazio<sup>117</sup> ugarien ondorio den irekitze maila oso altua existitzen da. EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu neurritzkoa sortzen da. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEko dimentsioa gainditzen duela adierazten du.


Sektore «zuria» dela esan daiteke.

**32. TALDEA. Material elektronikoaren fabrikazioa. Irrati, telebista eta komunikabideen tresneria eta aparatuen fabrikazioa,** EAEko IOT taulen P48. atalari dagokio, Material elektronikoa.

<sup>117</sup> CIVEX datu-basea: sektoreko lehenengo enpresak esportazio maila ezberdinen artean nahiko banaak daude. Orokorrean sektoreko nazioarteko dimentsioa baieztatzen delarik (eta ondorioz, bere merkatu geografiko adierazgarriarena).

Bi enpresa handi daude ANGEL IGLESIAS, S.A (IKUSI<sup>118</sup>) eta FAGOR ELECTRÓNICA, S.Coop. (MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVA<sup>n</sup> barneratuta eta 2004 urteko datuetan barneratu ez dena). Hauei hiru enpresa ertainek jarraitzen diete, bost enpresa txikik eta gainontzekoak mikroenpresak dira. Hau da, orokorrean dimentsio txikia duten enpresen bidez osatutako sektorea<sup>119</sup> da. Kapital atzeritarraren presentzia mugatua ere aipatzekoa da.

Datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, basean jasotako 50 enpresa inguruko ustiapen sarrerak 231,6 milioi eurotakoak dira, hau da, euskal ekoizpenaren %70 gainditzen dute. Guzti honek, oso adierazgarriak<sup>120</sup> diren datuak eskuartean izatea errezten du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
1891	%80	%90	%25,73	%197,49

<sup>118</sup> IKUSI enpresak Espainian 11 lantegi ditu eta nazioarteko merkatuan Europa, Amerika eta Asian ditu lantegiak. 80 herrialde baino gehiagotan presente dago eta Komunikabide teknologien merkatuan lehiakide orokor batean bihurtzeko apustua egin du.

<sup>119</sup> Aztertutako epean, EAEan enpresen kopuru eta enpleguan hazkunde bat nabari da. Erlatiboki ezarpen berria duen sektorea da (enpresa gutxi dira hogeita hamar urte baino gehiago dituztenak) eta eskariaren eta jardueren dibertsifikazioak bultzatzen dute.

<sup>120</sup> Gainera, FAGOR ELECTRÓNICA, S. COOP. enpresaren ustiapen sarrerak 2004 urtean kontuan izan ez direla kontuan izan behar da, hauek ez baitaude SABI-n jasoak, nahiz eta aurreko epeetan jasoak egon.




Nahiz eta mikroenpresa askoren presentzia izan, erlatiboki kontzentratua den jarduera da. Hala ere, inportazioak eta esportazioak kontuan hartzerako orduan, informazio hau zehaztu egin behar da, sektore «berde» batean bihurtzen delarik. Sektore honek ez du arrisku zeinurik adierazten nahiz eta kontzentrazio-indizearen balioa aztertu, material elektronikoaren fabrikazioa EAE gainditzen duen merkatu geografiko batera zuzentzen baita.

**33. TALDEA. Doitasun optiko eta erloju doitasunezko mediku-kirurgia tresneria eta tresnak,** EAEko IOT taulen 49. atalarekin erlazionatzen da, Doitasun-materiala.

Bere egitura orekatua dela, banaketa egokia duela eta enpresa handien ausentzia nabari dela esan daiteke. Sektoreko laginak soilik ETEak jasotzen ditu (sei enpresa ertain, 18 enpresa txiki eta 56 mikroenpresa) EAEko 80 enpresa barneratu arte.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua 245 milioi eurotakoa da eta honek IOT taulen ekoizpen kopuruen proportzio moderatua suposatzen du (2004 urtean %49). Zentzu honetan, laginak ia sektorearen erdia estaltzen duela baieztatu daiteke



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
623	%47,94	%64,52	16	%53	%94

EAEko enpresei mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du. Gainera, esportazio<sup>121</sup> eta inportazio nabarietako sortutako sektorearen irekitze maila altua existitzen da. EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu neurritzkoa sortzen da (BEE %53). Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEko dimentsioa gainditzen duela adierazten du.

Sektore «zuria» dela esan daiteke.

**34. TALDEA. Motordun ibilgailuen, atoi eta atoi ertainen fabrikazioa,** EAEko IOT taulen P50 atalari dagokio, Automobil eta hauen piezak.

EAEko ekonomian pisu gehien duten sektoreak dira.<sup>122</sup> Sektoreak EAEn 300 enpresa barneratzen ditu, bai automobil eta autobus gutxi fabrikatzen dituztenak baita hauen osagai asko saltzen dituztenak ere. Sektoreko enpresa asko Ibilgailuetako Osagaien Industrien Euskadiko Kluster Taldean taldekatzen dira. Talde hau, 1993. urtean sortu zen Eusko Jaurlaritzaren industria politikak bultzaturik eta sektorea dinamizatzeke

Laginean bi enpresa oso handi aurki daitezke, TENNECO AUTOMOTIVE IBÉRICA, S.A.<sup>123</sup> eta IRIZAR,<sup>124</sup> sei enpresa handi, 20 enpresa ertain, 10 enpresa txiki eta beraien bezeroen aurrean, automobilak fabrikatzen dituzten enpresen aurrean, negoziaketa botere mugatua duten mikroenpresak dira gainontzekoak.

Laginako enpresen (91 enpresa) ustiapen sarrerak EAEko sektoreko ekoizpenaren %45 suposatzen dute, hau da, adierazpen maila neurritzkoa duen lagina da. Laginean ez da jaso Mercedesek Araban<sup>125</sup> burutzen duen jarduera. Ekintza honek nolabait laginaren ustiapen sarreraren eta sektoreko ekoizpen totalaren arteko diferentzia azaltzen du.

Enpresen pisu erlatiboari dagokionez, ustiapen sarreraren eta enpresen balioki-dea den kopururaren arabera (enpresa guztiak berdina izango balira eta HHIak emandako balioaren arabera) hurrengo emaitzak jasotzen dira:

K5	K10
%51	%66


<sup>121</sup> CIVEX datu basea. Sektoreko lehenengo enpresak %26-50 eta %51-70 esportazio mailen artean banatuta daude, orokorrean sektoreko nazioarteko dimentsioa egiaztatuz.

<sup>122</sup> 2004 urtean zehar sektoreko EAEko ekoizpenak 3.288,6 milioi eurotako kopurua aurkezten du eta esportazioak (EAEtik kanpoko salmentak) 2.174 milioi eurotakoak dira. 40.000 pertsonaz baliatzen da gutxi gorabehera.

<sup>123</sup> TENNECO kontrol sistema eta ihes jaulkipenen fabrikatzailea da. Ermuan produkzio instalazio bat du non konpainiak motelgailuak, habeak eta esekidura moduluak fabrikatzen dituen bai lehenengo mailako fabrikatzaileentzat baita ordezko pieza gisa bezela ere.

<sup>124</sup> IRIZAR enpresak luxusko autobusak egiten ditu (Espainiako liderra izanik eta Europako sektorean bigarrena) eta bere merkatal jarduera 71 herrialdeetan zabaltzen da. Ormaiztegi (Gipuzkoa) enpresa, 731 pertsonen osatzen dute.

<sup>125</sup> Mercedes Benz EAEko enpresa industrial handiena da, 1.400 milioi euro fakturatzen ditu urtean eta EAE osoan burutzen diren esportazioen %10aren jabe da.



34. taldea «zuria» dela esan daite. Kontzentrazio maila baxua duen sektorea da (HHi: 842). Barne eskariaren estaldura maila baxua da, automobilak fabrikatzen dituzten enpresen presentzia mugatua baita. Soilik Irizar (autobusei karrozeria jartzera dedikatzen da) eta Mercedes Benz (laginean barneratu ez dena) aipatu daitezke. Dena dela, kanpo<sup>126</sup> irekitze maila oso altua duen sektore bat da.


**35. TALDEA. Beste garraio material baten fabrikazioa**, ezaugarri oso ezberdinak dituzten azpisektoreak barneratzen ditu. **351, Itsasontzigintza eta konponketa; 352 trenbideetako materialen fabrikazioa; 353 Eraikuntza aeronautiko eta espaziala, 353-354, motor eta bizikleten fabrikazioa eta beste garraio materialen fabrikazioa**, beraz, taldea ezberdindu egiten da.

**351 azpisektorea, Itsasogintza eta konponketa**, EAEko IOTen P51 atalari dagokio gutxi gorabehera. Itsasogintzak 2004 urtean 146,3 milioi eurotako ustiapen sarrerak aurkezten ditu (laginean jasotako 45 enpresentzat) eta EAEko ekoizpen totalaren %65 ingurukoa da (223,1 milioi euro)

2004 urtean jardueraren beherakada<sup>127</sup> nabarmen bat begiztatu daiteke 2002 urteko 479,25 milioi eurotako ekoizpenarekin alderatzen bada. Jeitsiera honen zati bat, berregituraketa prozesuaren bidez eman dela esan daiteke.

<sup>126</sup> Ibilgailuetako Osagaien Industriaren Euskadiko Kluster Taldeak ematen duen informazioa kontuan izanik, 2007 urteko udaran argitaratu zena, EAEko sektoreak 100 produkzio instalazio ditu dagoeneko atzerrian. Hedapena erregistratutako merkatu berrien hazkuntzaren ondorioa da, hala nola, Mexiko, Brasil, Polonia, Errepublik Txekiarra, Eslobakia, Errumania, Txina edo India. Euskal enpresak merkatu berrietan barneratzen ari dira globalizatu diren bezeroei lagunduz.

<sup>127</sup> Europan jarduera honek izan duen beherakada nabarmentzen du, Asiako hego-ekialdearen hazkundearekin kontrajarrria dagoen kuota beherakorra duelarik.



EAEko ohiko jarduera bat da eta ziurgabetasun<sup>128</sup> urte batzuren ostean, hurrengo lau urteetarako lana du.<sup>129</sup>

2004 urteko datuek enpresa handi bat barneratzen dute, ASTILLEROS ZAMAKONA, S.A., honi bi enpresa ertainek jarraitzen diote ASTILLEROS DE MURUETA, S.A eta ASTILLEROS BALENCIAGA, S.A. Lehenengo hiru enpresek %65 inguruko merkatu kuota eskuratzen dute. Jarraian, ehun enpresa txiki aurkitzen dira eta gainontzekoak, laginako 45 enpresak osatu bitartekoak, mikroenpresak dira.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
2.084 <sup>130</sup>	%73,64	%84,86	%65,96	%73,62

Esportazio sarrerekiko kalkulaturako kontzentrazio-indizea altua da. Barne eskariaren estaldura neurritzkoa da eta kanpo irekitze maila ere neurritzkoa da.


<sup>128</sup> IZAR lantegien pribatizazio prozesua eta Sestoako Construcciones Navales del Norte instalazioaren esleipenaren ondorioz, EAE osoan itsasontzigitza pribatua izatera pasatzen da.

<sup>129</sup> Euskadiko Itsas Industrien Taldeak argitaratutako informazioaren arabera (ADIMDE) zeinak arrantza-ontziko armadoreak, merkataritza-ontziko armadoreak, ontzigitza eta industria laguntzailea elkartzen dituen.

Era berean, Europak duen egoera ona 2005 urtean munduan sinatutako kontratuen errekor historikoaren eragin zuzena dela zehazten da eta asiako ontzitegiek duten saturazioaren eragina (2009-2010 arteko garraio-epea dutelarik). Beraz, kontratuak Europako ontzigitzatik eratorri dira. %11,4a besterik ez du, Korearen %36-aren aurrean, Japonen %23 eta Txinaren %16aren aurrean.

<sup>130</sup> ASTILLEROS BALENCIAGA, S.A. enpresa ez da laginean barneratu. 295 taldean kokatuta dago eta 18.000 mila euro inguruko ustiapen sarrerak ditu. Xehetasun honek kalkulaturako kontzentrazio-indizea eta lehenengo bost eta hamar enpresen kuotak handitzen ditu.

Hala ere, kontzentrazio-indizeak langile kopuruarekiko aztertzen badira, egoera guztiz ezberdina da, kontzentrazioerik nabari ez baita (HHI: 675).




Sailkapenean «horia» den sektorea da, baina kontuan izan behar da sektorean ontzigtza eta industria laguntzaileak elkarbizi dutela eta honek kalifikatzaile horren garrantzia zehazten du. Era berean, bezeroen negoziaketa boterea kontuan hartzen badugu, armadore handiak batez ere, arantza-ontziko eta merkataritza-ontzikoak, ez dira zeinu kezagarriak.

**352 azpisektorea, Trenbideetako materialen fabrikazioa**, EAEko IOT taulen P52 atalari dagokio, Trenbideetako materiala. 729,5 milioi eurotako ustiapen sarrerak sortzen ditu (lagina osatzen duten enpresak 13 direlarik), euskal ekoizpen totala baino askoz ere handiago dena, 316,2 milioi eurotako. Datu hau Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A (CAF).<sup>131</sup> Enpresak bateratutako sarrerekin azaltzen da.

Kontzentrazio-indize oso altuak CAF enpresaren kopuru irmoak laginean barneratzeak azaltzen du. Hala ere, barne eskariaren estaldurak (BEE: %6,52) eta EAETik kanpo dagoen jardueraren mailak (KIM: %132,58) sektorean dagoen edozein kontzentrazio zeinu ezabatzen du. Era berean, bezeroen ezaugarriek, kasu askotan erakunde publikoak direnak, eta konkurtsoen bitartez trenbide proiektuak lortzearen bitartez, kontzentrazio maila altua zehazten du.

<sup>131</sup> Bere egoitza Beasainen du, Zaragoza, Irún, Elmira eta Linaresen ere baditu lantegiak; nahiz, fabrikazio, muntaia eta mantenu instalakuntzak beste herrialde batzuetan.



### 353 azpisektorea. Eraikuntza aeronautiko eta espaziala, EAEko IOT taulen P53 atalari dagokio gutxi gorabehera, Aireontziak.

EAEan erlatiboki berria den jarduera bat da. Laginean 19 enpresa barneratzen dira, 875,9 milioi eurotako ustiapen sarrerekin. Bi enpresa oso handi daude INDUSTRIA DE TURBO PROPULSORES, S.A (ITP<sup>132</sup>) eta AERNNOVA AEROSPACE S.A.<sup>133</sup>. Bi hauei, bost enpresa ertainek jarraitzen diete (GRUPO ALCOR barne).

Sektore kontzentratu bat da, ustiapen sarrerekiko kontzentrazio-indize oso altua du (HHI: 3.865) eta lehenengo bost enpresek %94,70ko merkatu kuota metatua dute. Gainera, lagina osatzen duten bost enpresa GRUPO ALCORen,<sup>134</sup> menpe daudela kontuan hartzen bada, kontzentrazioa handitu egiten da.


Azpisektore «laranja» da kontzentrazio-indize altuak eta barne eskariren estaldura neurritzkoa<sup>135</sup> kontuan izanik. Kontzentrazio zeinu hauek kanpo estaldura maila

<sup>132</sup> INDUSTRIA DE TURBO PROPULSORES S. A., partaidetutako-enpresa da, Sener Aeronáutica (%53,125) eta Rolls-Royce (%46,875) direlarik partaide. Bere jardueren artean, ingeniariaritz, Ikerketa eta garapena, Fabrikazio eta Galdaketa, Muntaiak eta Motore aeronautikoen eta gas-turbinen frogak. Batzuetan, motore eta hegazkinen mantenimendua nahiz motoreen erosteta eta salmenta zerbitzuak ematen ditu.

<sup>133</sup> Lehen GAMESA AERONAUTICA, eta orain Caja Castilla La Mancha Corporación, S.A. enpresak kontrolatzen du.


<sup>134</sup> ALCOR taldea, talde industrial bat da eta bere helburua aeronautika, automozio eta teknologia berrien sektoreetako enpresa teknologikoen sortze eta garatzea da.

<sup>135</sup> Hala ere, EJSN 353 eta EAEko IOT taulen P53 atalaren arteko korrespondentzia kontuan izanik, barne eskari errearen estaldura P53arentzako kalkulaturakoa baino txikiagoa dela baieztatu daiteke.



altuarengatik nahiz enpresek<sup>136</sup> aurre egiten dieten bezero motagatik (oso konzentratuak) balioa galtzen dute.

Azkenik, **354 azpisektorea, motor eta bizikleten fabrikazioa** eta **355 azpisektorea, Beste garraio materialen fabrikazioa**, EAEko IOT taulen P54 atalari dagokio gutxi gorabehera.



<sup>136</sup> Enpresek burututako jarduera globala da, bezeroak tamaina handiko eta negoziaketa boterea duten aeronautika enpresa kopuru mugatu bat direlarik (Boeing, Airbus, Embraer, e.a).

127,6 milioi eurotako ekoizpen kopurua sortzen duen sektorea da.


Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
2.744 <sup>137</sup>	%87,87	%98	2	%4	%154

Datu-baseko ustiapen sarrerekiko kontzentrazio-indizea oso altua da baita lehenengo bost eta hamar enpresen metatutako kuotak ere. Barne eskariaren estaldura oso mugatua da eta kanpo irekitze maila oso altua. Kopuru hauek aurrikusi daitezke oso marka kopuru altuetara sarbidea duen azken kontsumitzailearen bitartez eskuratutako produktuak baitira (bizikletak eta motorrak nagusiki).

Azpi-sektore «berdea» da, arrisku zeinurik gabekoa, jarduera globala izanik, kontzentrazio-indizeak eskaintako informazioa zehaztuta geratzen baita.

**36. TALDEA. Altzarien fabrikazioa.** Beste manufaktura-industriak, hurrengo azpi-sektoreak barneratzen ditu: **361 azpi-sektorea, Altzarien fabrikazioa; eta 362, Bitxigintza, zilargintza eta antzeko produktuen fabrikazioa, 363, Musika-tresnen fabrikazioa, 364 Kirol artikuluen fabrikazioa, 365, Joko eta jostailuen fabrikazioa, eta 366 azpi-sektoreak, Bestelako manufaktura-industria batzuk, ikerketa honetarako pilatzen direlarik.**



<sup>137</sup> Laginean, Bizkaian kokatutako, bizikleten fabrikazioan bizitza luzea duen eta egun Mondragón Corporación Cooperativan barneratuta dagoen ORBEA enpresaren ustiapen sarrerak ez dira kontuan hartu.




361 azpisektoreak, **Altzarien fabrikazioak**, EAeko jarduera garrantzitsu bat jasotzen du. Gainontzeko lau azpisektoreen pilaketak aldiz, nahiko heterogeneoa den eta adierazgarritasun txikiagoa duen multzoa osatzen dute. Edozein kasutan, lehia arazorik gabeko jarduerak dira.

**361 azpisektorea, Altzarien fabrikazioa**, EAeko IOT taulen 55. atalarekin erlazionatzen da, Altzarien fabrikazioa.

Sektoreko laginak soilik ETEak jasotzen ditu (zazpi enpresa ertain, 28 enpresa txiki eta 172 mikroenpresa) 209 enpresa kopurua barneratu arte.

361. azpisektoreari dagokionez, Altzarien fabrikazioa, eta sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 353 milioi eurotakoa da zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruekiko proportzio urria suposatzen duen (2004 urtean %38-koa). Zentzu honetan, laginak sektorea gutxiengoan estaltzen du. Sektoreko kooperatiba anitzen existentziak datu-basean bere ausentzia azaldu dezake. Guzti honek indizeen adierazgarritasuna zalantzan jartzen duelarik.




Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
324	%31,45	%44,58	31	%88	%51

Azpisektorea «berdea» da. Bere egitura orekatua, banaketa egokia duena eta enpresa handirik gabekoa dela esan daiteke. EAeko enpensei mugatutako sek-

toreak kontzentrazio-indize baxua, sektoreko irekitze maila neurrizkoa eta EAETi at sektore bereko merkatal fluxu baxua ematen du. Beraz, kanpo merkatal fluxuei buruzko hausnarketak eta merkatu geografiko adierazgarria kontuan izanik, kontzentrazio maila murriztuak merkaturako boterearen banaketa terminuetan egoki zuzentzen dira. Nahiz eta, datu hauetatik euskal altzarien<sup>138</sup> autokontsumo altua eskura daitekeen. Badirudi sektore honetako esportazioen<sup>139</sup> pisu erlatiboa nabarmentzea beharrezkoa dela zeinak, edozein kasutan, edozein kontzentrazio-indize erlatibizatu behar izatea ondorioztatuko lukeen. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAEko dimentsioa gainditzeko joera duela adierazten du, batez ere, eskaintzaren perspektibatik.

**362-363-364-365-366 azpisektoreen pilaketak (362, Bitxigintza, zilargin-tza eta antzeko produktuen fabrikazioa, 363, Musika-tresnen fabrikazioa, 364 Kirol artikuluen fabrikazioa, 365, Joko eta jostailuen fabrikazioa, eta 366, Bestelako manufaktura-industria batzuk),** euskal ekonomian pisu gutxi duen sektore bateko lehia arazorik gabeko egitura bat du. EAEko IOT taulen 56. atal heterogeneoarekin erlazioztatzen da, Beste manufaktura-industria batzuk.



<sup>138</sup> IKEA bezelako multinazional handiak sortu bitartean behintzat, bere «DIY» («Do It Yourself») konzeptu iraultzailea dutelarik. Hala ere, Euskal Herrian garatutako IKEA fenomenoak ikerketa honetatik at geratzen da erabilitako epealdiak direla eta.

<sup>139</sup> CIVEX datu-basea. Sektoreko lehenengo enpresa (XEY CORPORACIÓN EMPRESARIAL, S.L.) %76-100 esportazio mailan aurkitzen da eta bigarrena, (KEMEN MOBILIARIO Y ORGANIZACIÓN DE OFICINAS, S.L.) %51-75 esportazio mailan kokatzen da. Honek, sektoreko nazioarteko dimentsioa baieztatzen du (eta ondorioz bere merkatu geografiko adierazgarriarena), barne eskariaren estaldura maila altuaren tentsioa murrizten duelarik.

Bere egitura, aurreko kasuarekiko antzeko moduan, orekatua, banaketa egokia duena eta enpresa handirik gabekoa dela esan daiteke. Sektoreko laginak soilik ETEak jasotzen ditu (bost enpresa ertain, hamabi enpresa txiki eta 89 mikroenpresa) EAeko 113 enpresa barneratu arte.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua 239 milioi eurotakoa da zeinak IOT taulen ekoizpen kopuruekiko nolabaiteko desproporzioa suposatzen duen (2004 urtean %127). Hau, EAeko eta EJSNko IOT taulen definizioek guztiz bat egiten ez dutelako azaldu daiteke. Zentzu honetan, laginak burututako sektore pilaketa gainditzen duela baieztatu daiteke.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
760	%56,11	%69,30	13	%25	%140

EAeko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du. Batzutan, erlatiboki garrantzitsuak diren esportazio<sup>140</sup> eta inportazioek sortutako sektoreko irekitze maila oso altua ematen da. Gainera, EAetik kanpoko sektore bereko merkatal fluxu altu bat sortzen da. Honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografiko batetik EAeko dimentsioa gainditzen duela adierazten du.

Azpisektore «zuria» da.

### 37. TALDEA. Birziklapena, EAeko IOT taulen P57 atalari dagokio, Birziklapena.

2004 urtean zehar sektoreko euskal ekoizpen osoak 149,8 milioi eurotako eta joera hazkor garbia duen kopurua aurkezten du.


37. taldeak, Birziklapenak, 70 enpresa inguru barneratzen ditu 2004 urteko datu-basean. Enpresa hauen ustiapen sarrerak EAeko ekoizpen kopuruak soberan gainditzen ditu (618,4 milioi euro 149,8 milioi euroren aurka).

Enpresa oso handi bat aurki dezakegu, BEFESA,<sup>141</sup> hamar enpresa ertain, eta gainontzekoak enpresa txikiak eta mikroenpresak dira. Tamaina handiena du-

<sup>140</sup> CIVEX datu-basea. Sektoreko lehenengo enpresak %26-50 esportazio mailan aurkitzen dira, orokorrean, sektoreko nazioarteko dimentsioa baieztatzen dutelarik (eta ondorioz bere merkatu geografiko adierazgarriarena).

<sup>141</sup> BEFESA, ABENGOA Ingurumen Zerbitzuen eskumendekoa da. BEFESA-k, Espainian, Portugalen, Britainia Handian, Frantzia, Alemanian, Suedian, Ukrainan, Errusian, Argentinan, Brasilen, Mexikon, Nikaraguan, Perun, Indian, Aljerian, Marokon eta Txinan presentzia du. Bere jarduera ingurumen zerbitzuak industriari mailegatu eta ingurumen azpiegiturak eraikitzean zentratzen da, aluminiozko eta altzairuzko hondakinen birziklapena eta galbanizazioa, hondakin industriaren kudeaketa eta ingurumen ingeniari-tza jarduerak garatuz, 2006 urteko abenduak 31ko kopuruaren arabera 1.889 pertsona erabiltzen dituelarik.

ten enpresak BEFESA antzekoak, Espainiako toki ezberdinetan lantokiak dituzte eta honek laginako ustiapen sarrerek EAeko ekoizpen totala gainditzea azaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
3.600	%71	%81	%80	%83

2004 urteko BAFESA enpresaren ustiapen sarrera altuek, 367,3 milioi eurokoek, bere birziklapen eta ingeniarietza nazioarteko jardueratik eratorriak direnek, 37. taldeak ustiapen sarrerekiko kontzentrazio-indize eta enplegu altua aurkeztea azaltzen dute. Hurrengo enpresa ertainen artean handiena denak, EURO METAL RECYCLING, 21,2 milioi eurotako ustiapen sarrerak izan zituen.


Eskualdea gainditzen duen kanpo irekitze maila altua da eta barne eskariaren estaldura altua da ere. Hau da, inportazioak oso urriak diren bitartean, esportazio kopuruak aintzat hartzeoak dira.

Beraz, kontzentrazio-indizea (oso altua) eta barne eskariaren estaldura maila (altua ere) kontuan hartzen baditugu, sektore «gorri» baten aurrean gaude. Haatik, euskal ekoizpenaren zati handiena atzerrirako izateak eta Birziklapen taldeak birziklatzen diren materialekiko (beira, paper, txatar, hondakin elektriko, elektroniko, e.a.) enpresa oso ezberdinak taldekatzeak sektoreko kontzentraziozeinuak murrizten ditu.

Era berean, jarduera honek aurkezten dituen hazkunde aukerek, EAEko ekoizpen kopuruen eboluzio hazkorrek, nahiz birziklapenaren aldeko arategiak, sektorean lehiakide berriak agertzea atzeratu edo eragotzi dezaketen akordien ausentzia areagotzen du.

**40. TALDEA. Energia elektriko, gas, lurrun eta ur beroaren ekoizpen eta banaketa,** hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **401 azpisektorea, Energia elektrikoaren ekoizpen eta banaketa, eta 402, Gas ekoizpena; Hiri-hodi bidezko erregai gaseosen banaketa, gasbideak salbu, eta 403, Lurrun eta ur beroaren ekoizpen eta banaketa,** zeinak EAEko energia-sektorea biltzeko pilatu diren.

Energia-baliabideen urritasuna, petrolioaren menpekotasuna, euskal industria egitura (burdingintza, porlan, paper, beira, e.a) zeinak produktu unitateko energia kontsumo altuak behar dituen eta kanpo defizit iraunkorra, EAEak berezitasunak izan ditzan laguntzen duten ezaugarriak izango lirateke. Energia menpekotasuna kontsumoaren bidez handitzen da eta estatuarekiko proportzioan handiagoa da. Testuinguru honetan, euskal sektore elektrikoan hasitako proiektuak teknologia aurreratua duten generazio elektrikoak instalazkoak martxan jartzera eta elektrizitatearen garraio eta banaketa sarea hobetzera zuzendu dira, eskaintza eta eskariaren arteko joan-etorria babestu ahal izateko.



Energia sektorea, araututako sektore gisa, baina eskumen ezberdinak dituenak, sektoreko egoera hobetzeko helburua izanik eta landutako programek eranginda, EAEan bilakaera izan du. Horrela, lortu nahi diren helburuak objektu izanik, Eus-

ko Jaurlaritzak erakunde ezberdinen eta baltzu publikoen<sup>142</sup> menpeko tresna sortak eskuratu zituen eta egitasmo ezberdinak<sup>143</sup> martxan jarri zituen.

Logikoki, energia, elektrizitate eta gas sektorearen pitinka pitinkako liberalizazioak oinarritzko testuinguruan aldaketa sustantzial bat suposatu du.

**401 azpisektorea, Energia elektrikoaren ekoizpen eta banketa,** EAEko IOT taulen 58. atalarekin erlazionatzen da, Energia elektrikoan.

EAE, energia elektrikoaren kontsumitzaile garrantzitsua da, estatu eremuan %9ko partaidetza duelarik. Hala eta guztiz ere, buruhornikuntzaren defizit garbia aurkezten du eta beraz, inportatzaile saldo altu bat. Energia aldaketa honek, sortzen duen desorekaz gain, penintsulako sistema elektriko multzoarentzako garraio galera garrantzitsuak suposatzen ditu.

Energia sektorea bezelako araututako sektore baten analisiari lotutako zailtasunari, sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunaren arazoa lotzen zaio. Horrela, 2004 urterako ustiapen sarrerren kopuruak 17.846 milioi eurotako balioak erakusten ditu zeinak 2004 urteko IOT taulen ekoizpen kopuruen sekulako proportzioa (%939) suposatzen duen. Laginak sektoreko eremua desproporzionaliki gaintzen du IOT taulen irizpideak kontuan izanik. Hau, sektore honetako enpresa nagusienak<sup>144</sup> dituen ezaugarri berezien bitartez azaldu ahal izango litzatekeelarik. Guzti honek, logikoki, lortutako kontzentrazio-indizea esanguratsu ez izatea bilakatzen du. Horrela, EAEko enpresei mugatutako sektoreak maximoaren gertukoa den kontzentrazio-indize bat aurkezten du (9.666-ko HHI-a).


Sektoreko kanpo irekitze maila oso baxua da (KIM %15ekoa) eta barne eskariaren estaldura oso altua (BEE %88koa). Esportazioak oso urriak dira eta zenbait epealdietan baliogabeak. Inportazio kopuruak aldiz, murrizteko joera dute. Beraz, kontzentrazio-indizea (oso altua) eta barne eskariaren estaldura maila (oso altua

<sup>142</sup> Energiaren Euskal Erakundea (EEE) zehazki planifikazio, koordinazio eta energia eremuan EAEko Sektore Publikoaren jardueren kontrolaz arduratzen da. EEE sozietate ezberdinen nukleoa osatzen du, hauen artean, Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. (CADEM) %100ean, Sociedad de Gas de Euskadi (SGE) (2003. urtean pribatizatu zena —NATURCORP—), Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. (SHE) %100ean, Naturgas Energía %30ean, Eólicas de Euskadi %50ean, Bahía de Bizkaia de Gas %25ean, Bahía de Bizkaia Electricidad %25ean, BEC Solar %30ean, gailentzen dira biomasa, minihidraulika edo baliabide meatz-geologioekin zerikusia duten beste askorekin batera.

<sup>143</sup> 3E-2010 plana, hurrengo erara laburbildu daiteke: Adierazle gako gisa Intentsitate energetikoa; sektore ez industrialetan aurrezpen neurrien sendogarria, CO<sub>2</sub>-aren jaulkipena energia mix-ean irizpide gako gisa, teknologia eta elkartutako industria garapenaren bilaketa eta ekitzen ekonomia eta gizarte eraginaren neurketa.

<sup>144</sup> Izan ere, IBERDROLA S.A. enpresaren kopuruek soilik, (17.545 milioi euro) bederatzi aldiz baino gehiagotan gaintzen dute IOT taulen ekoizpen kopurua. Azalpena, bere sarrerren izaera sendoa da noski. Egitez, beste batzuen artean, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELECTRICA, S.A., IBERDROLA GENERACIÓN, S.A., HIDROELECTRICA IBERICA, S. L., EÓLICAS DE EUSKADI, S.A., CIENER, S.A., ENERGÍA PORTATIL COGENERACIÓN, S.A., enpresen kopuruak barneratuta daude. Baina bere izaera multinazionalarekin ere lotuta dago zeinak EAera bere sarrera nazional eta nazioartekoak ekartzen dituen. Gutxiengo partaidetza zehaztu beharko litzateke (%25) gehigarri moduan sektoreko bigarren enpresan, BAHIA DE BIZKAIA ELECTRICIDAD, S.L.

ere) kontuan izango bagenitu, sektore «gorri» baten aurrean egongo ginateke. Haatik, aurretik adierazi den enpresa nagusiaren enpresa izaera berezia eta sektoreko ezaugarri erregulatzaileekin batera, kontzentrazio-indizearen adierazgarritasuna erlatibizatzen da.



Oligopolio izaera nabarmena duen eta oraintsu liberalizatu den sektorea da. Bere arazoak, merkatu elektrikoaren berezko arazoak dira, sortze eta merkaturatzean lehia dute, eta banaketan monopolio naturala (araututakoa). Energia sektoreak, beregitureketa eta desarautze<sup>145</sup> prozesu garrantzitsu bat jasan du, lehenengo Elektrizitatearen Liberalizazio Zuzentarauetik (96/92/EC) 1999 urteko liberalizazioa eta gero 2003/54/EC Zuzentaraua. Espainiar merkatuko lege markoek bilakera izan dute 1994 urteko LOSEN eta 1996 urteko protokolo elektrikitik (funtzionamenduaren oinarri operatiboarekiko eta merkatuaren liberalizazioa helburu duten enpresa elektrikoaren administrazio akordioa) 1997ko Sektore Elektrikoaren Legea eta Elektrizitateko Iberiar Merkatuari buruzko xedapen berriak bitartean.

Edozein kasutan, merkatu elektrikoak neurri liberalizatzaile testuinguru batean eta malgua den erregulazio berri bat izanik, energia elektrikoaren banaketa eta igorpenetan monopolio naturala duten sektoreak gordetzen ditu, sistema kudeatzaile teknikoaren bitartez aritzen den bitartean (Espainiako Sare Elek-

<sup>145</sup> Elektrizitate handizkako merkatua sortu da (OMEI, iberiar merkatuan espainiar esparru bezela barneratu dena, MIBEL) eta Elektrizitatea kontratatze eskubidea merkatal enpresei edo alde biko kontratuen bidez erostean ekintza orokortu da. Tarifa-merkatuak erabiltzaile askoren segmentu handien merkatuan berdintzeko oso zailak diren baldintzak mantentzen ditu. Merkatu elektrikoaren liberalizazio bultzada, sektoreko egitura oligopolikoarekin aurkitu da (murrizketa teknikoetatik sortzen den merkatu boterea eta spot handizkako merkatuan sortzen diren lehia-arazoak) eta 2005 urteko aurrera energiaren prezioek izan duten igoerarekin.

trikoa) eta independentea den erakunde arautzailea duelarik: Energiaren Batzorde Nazionala.

Industria ekoizpeneko prezio-indizeen analisiak, energia elektrikoaren *input* industriaren prezioek EAEn Espainiarekiko handitzeko joera dutela adierazten du<sup>146</sup> (ikus prezioen dibergentzia-taula 3.2 epigrafean) 2000. urtetik aurrera lortutako energiaren prezioetan emandako murrizketak 2005. urtetik aurrera energiaren prezioen igoerari buruzko eta tarifa eta defizit-tarifari dagokion kostuaren efikaziaren zati bat galtzen hasi direla pentsatu liteke. Hala eta guztiz ere, gaiak zehaztasun handiagoaren objektu izan beharko luke baina ebidentzia ez da guztiz argia EUSTAT-eko energiaren prezio industriaren eboluzio-profil ezberdinak direla eta.

**402-403 (402, Gas ekoizpena; Hiri-hodi bidezko erregai gaseosen banaketa, gasbideak salbu, eta 403, Lurrun eta ur beroaren ekoizpen eta banaketa) azpisektoreen** pilaketa EAeko IOT taulen 59. atalarekin erlazionatzen da, Gas eta ur-lurruna. Zehaztasun handiagorik eman gabe, energia sektorearen sarreran azaldu baita dagoeneko, lehenago aztertu dugun IBERDROLA, S.A enpresaren antzeko egoeraren aurrean gaudela esan behar da baina laginaren adierazgarritasunean eraginik ez duelarik

Izan ere, kasu honetan enpresa oso handi bat aurki dezakegu, NATURGAS ENERGÍA,<sup>147</sup> zeinak 428 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituen eta 2004. urteko ustiapen sarrerak kontuan izanik, %85,35eko pisu erlatiboa duen. Kopuru honetan, NATURGAS ENERGÍA COMERCIALIZADORA, S.A., NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN eta NATURGAS ENERGÍA TRANSPORTE, S.A., enpresen bereizitako kopuruak barneratu dira kontzentrazio-indizea egoki islatzeko.

Laginak beste enpresa handi bat<sup>148</sup> barneratzen du duopolioa osatzen duelarik. BAHIA DE BIZKAIA GAS, S.L.,<sup>149</sup> enpresari buruz ari gara zeinak NATURGAS ENERGÍA enpresarekin batera %94,97ko pisu erlatiboa eskuratzen duen 2004. urteko ustiapen sarrerak kontuan izanik. Sektore pilaketa hau, enpresa ertain batekin, enpresa txiki batekin eta bost mikroenpresekin osatzen da.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004. urterako ustiapen sarreren kopurua 502 milioi eurotakoa da eta honek 2004. urtean IOT taulen ekoizpen kopuruen proportzio oso altua suposatzen du. Zentzu honetan, IOT taulen irizpideak jarraituz, laginak sektorearen eremua modu egokian estaltzen du.


<sup>146</sup> Nahiz eta EAerentzako EInko industria-energiaren prezio indizeen eboluzioak ez du EUSTATEkoekin bat egiten.

<sup>147</sup> Aurretik aipatutako eta EEera lotuta dauden sozietateetako bat da.

<sup>148</sup> Izatez, 2005. urterarte ez du kontsiderazio hau lortzen.

<sup>149</sup> 2004. urteko ustiapen sarrerak kontuan izanik, EEera lotuta dauden sozietateetako bat da zeinak, goiera garbian, %10ko merkatu kuota eskuratzen duen.





Azpisektore «gorria» da. Bere egitura oso kontzentratua eta duopolio forma duena dela esan daiteke. Kontzentrazio-indize oso altuak aurkezten ditu (2004 urterako HHI 7.392). 2004. urteko ustiapen sarrerak kontuan izanik, lehenengo bi enpresek %94,97ko pisu erlatiboa dute. HHIren balioak enpresen baliokidea den zenbaki bat ematen du, 1 zenbakia hain zuzen ere. Sektorearen irekitze maila baxu-neurrizkoa mantentzen du (2004. urtean KIM %35ekoa, nahiz eta 2000-2004 epealdian batazbestekoa %19raino jeisten den) eta EAetik at sektore bereko merkatal fluxu baxua (BEE %84koa).

Beraz, kanpo merkatal fluxuei buruzko eta merkatu geografiko adierazgarriari buruzko egindako hausnarketak kontuan izanik, kontzentrazio maila oso altuak, merkatu boterearen banaketa terminuetan modu egokian bideratzen dira. Edozein kasutan, sektore honetako esportazioen pisu erlatibo hazkorra nabarmentzea beharrezkoa dela dirudi zeinak sektoreko kontzentrazio kezkarria erlatibizatu ahal izango lukeen. Guzti honek, merkatu adierazgarria, ikuspuntu geografikotik, EAeko dimentsioa gaintitzen hasi dela adierazten du, batez ere eskaintzaren perspektibatik.


**41. TALDEA. Ur-bilketa, arazketa eta banaketa,** EAeko IOT taulen P60 atalari dagokio gutxi gorabehera, Ura.

2004. urtean, EAeko ekoizpena 370,9 milioi eurotako izan zen, 2000-2004 epealdiak joera hazkor argia erakutsi zuelarik.<sup>150</sup>

<sup>150</sup> Nahiz eta interes orokorrekoa izan, uraren kudeaketa Administrazio Publikoen eskumena da azken terminuan. Hauek uraren erabilerearen emakidak burutzeko baldintzak ezartzen dituzte, ikuskapen funtzioak betetzen dituzte eta zehapen-araubideak ezartzen dituzte. Terminu orokorretan, EAeko ur kontinentalen kudeaketaren eskumen panorama oso konplexua da administrazio ugari esku-

2004. urtean 85,3 milioi eurotako ustiapen sarrerak izan zituen enpresa handiena, DEGREMONT, S.A.<sup>151</sup> da. Enpresa honek, nahiz eta SABI datu-basean talde honetan kokatu, uraren «erakunde kudeatzaile» eta euskal merkatu geografikoa elkarren artean banatzen duten datu-baseko gainontzeko enpresekiko jarduera ezberdina<sup>152</sup> du. Erakunde bakoitzaren ustiapen sarrerak, neurri handi batean, biztanleriaren bolumenaren menpe daude, bakoitza kontuan izanik. Tarifetan ere ezberdintasunak daudelarik.

Laginean 16 enpresa jasotzen dira, zeinak 2004. urterako 237,2 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituzten, hau da, EAEko kopuruen %63. Honek laginaren adierazgarritasun nahikoa adierazten du.



2004 urtean kontzentrazio-indizea altua da (HHI: 2.075). Lehenengo bost enpresen artean %80,43ko merkatu kuota dute eta lehenengo 10 enpresek ustiapen sarreren arabera %99 eskuratzen dute. Datu hauek aurreko epeetarako antzekoak dira. Beraz, jarduera hau «laranja» dela esan daiteke. Haatik, araututako sektore bat da non bezeroak Administrazio Publikoak diren.

hartzen baitute. Gaiari buruzko informazioa zabaltzeko, «El agua, una responsabilidad compartida» (2006), EAEko kasua, Nazio Batuen bigarren txostenarentzako prestatu dena eta Munduko Baliabideen Garapeneri buruzkoa dena <http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001461/146111S.pdf> helbidean aurkitu daiteke.


<sup>151</sup> DEGREMONT enpresa, 1954. urtean sortu zen, GRUPO SUEZen eskumendekoa eta ingeniari-tza eta geotekniko munduko konpainia nagusienetako bat da. DEGREMONT enpresaren fakturazioaren %30 geotekniko instalazioen ezartzeari dagokio.

<sup>152</sup> Nahiz eta SABI datu-basean kokatzen den talde honetan.

**45. TALDEA. Eraikuntza**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **451, Obren prestaketa**, **452, Higiezin eraikuntza orokorra eta ingeniari-tza zibileko obrak** (4521, Eraikinen eraikuntza orokorra eta ingeniari-tza zibileko antzeko obrak (zubiak, tunelak, e.a.), **4522 Teilatu eta itxitura egituren eraikuntza**, **4523, Autobide, errepide, lurreratze eremu, trenbide eta kirol-zentron eraikuntza**, **4524, Obra hidraulikoak**, **4525, Beste eraikuntza espezializatuak**), **453, Eraikin eta obren beste instalazio batzuk** (4531, Instalazio elektrikoak, 4532, Isolamendu termiko, akustiko eta bibrazio-higidura ekiditeko isolamendua, 4533, Iturgintza eta klimatizazio instalazioak, 4534, Eraikin eta obren beste instalazio batzuk), **454, Eraikin eta obren akabera** (4541, Kisuztatzea, 4542, Zurgin-lanak burutzeko instalazioak, 4543, Lur eta hormen estaldura, 4544, Beiratzatzea eta pintura, 4545, Eraikin eta obren akaberen beste lan batzuk) eta **455, Langilea esleitutako eraikuntza eta eraispen-ekipamenduaren alokairua**. Talde honetan zenbait pilaketa egin dira.

EAEko IOT taulen 61. atalarekin erlazionatzen da.



EAEko ekoizpen bolumen handiena duen sektore-atala da, 2004 urtean 14.452 milioi eurotako balioa eskuratzen du eta euskal ekonomiarentzako sektore honek duen adierazgarritasuna adierazten du.






Bere kontzentrazio-indizeak baxuak dira kasu guztietan, (HHI 531, 501, 227, 157, 191, 62 eta 675 hurrenez hurren). Haatik, eraikuntzaren izaera «ez espor-tagarriak» eta bestalde logikoa den bere barne eskari estalduraren maila oso altuak (BEE %100 ingurukoa) azpisektore hauek «berde» gisa sailkatzera bultzatzen dute. Enpresa anitzek elkar bizi dute jardura hauetan eta mikroenpresak modu

unagarrian nagusitzen dira, zatikako sektorearen egiturari erantzunez, eraikuntza ohikoa izanik.


Eraikuntza taldeko azpisektore ezberdinen enpresa-egiturak zatikako maila ezberdinak aurkezten ditu. Lehenik, zatikako maila altuena duten enpresa-egituraren grafikoak aurkezten dira non ez diren enpresa handi edo oso handiak agertzen:









Herri-lanen azpisektorean esanguratsuki gertatzen den bezela, eraikuntza taldeko beste azpisektore batzuk, enpresa handi eta oso handien presentziaren bitartez, finkapen ezaugarri garrantzitsuak aurkezten dituzte:






Funtsean, eraikuntza jarduera espezifikoarekin erlazioz atutako azpisektore ugari dituen sektore-taldea da. Betiere, azterlan honetan burututako analisiak ez du zatikako izaeratik eratorritako lehia-arazorik antzeman baina ezin da erabatekotasunez<sup>153</sup> baieztatu zenbait segmentu eta egoeretan existitzen ez direnik.

<sup>153</sup> Merkatuko segmentu ezberdinak aztertu beharko lirateke, Obra zibilaren kasuan bezela, Administrazio Publikoa bezero den kasuak barne harturik. Nahiz eta Administrazio Publikoek botere

**50. TALDEA. Motor-ibilgailuen, motor eta ziklomotorren salmenta, mantentimendu eta konponketa; motor-ibilgailuen erregaiaren txikizkako salmenta, EAEko IOT taulen 62. atalari dagokio gutxi gorabehera, Automobilen salmenta eta konponketa.**

EAEan jarduera honek 1.332,290 milioi eurotako kopurua aurkezten du 2004. urtean, joera hazkor garbia duelarik.



Laginako enpresen %76 mikroenpresak dira, %16 enpresa txikiak, %7 ertainak, bi enpresa handi daude GAURSA AUTOAK, S.A.<sup>154</sup> eta ESPECIALIDADES ELÉCTRICAS LAUSAN, S.A.<sup>155</sup> eta enpresa oso handi bakar bat GKN DRIVELINE ESPAÑA, S.A.<sup>156</sup>

Laginean 1.171 enpresa jasotzen dira EAEko ekoizpen totala baino askoz ere altuagoak diren ustiapen sarrerak dituztelarik (ia hirukoiztu egiten dituzte). Ezber-

konpentsatzailea izan, baldintza hoberenak lortzeko konkurtsoak izanik, azken teoria eta esperientziek enpresen arteko joera paraleloen aukera erakutsi dute. Arrisku hauek ez dira azpibaloratu behar, batez ere enpresen kopurua mugatua denean eta sarrera hesi garrantzitsuak dauden kasuetan («saillkapenerako» kontratu publikoen kasuan lez, beste arrazoi batzuen artean).

<sup>154</sup> RENAULT kontzesionarioa non ibilgailu berri, ia berri eta aukerazkoak (marka guztietakoak) aurkitu daitezkeen eta mantentimendu zerbitzuak, mekanika eta karrozeria konponketak, etab eskaintzen dituen.

<sup>155</sup> Industria-ibilgailu eta automobilen ordezeko piezen handizkako enpresa da. Bilbon sortu zen 1953. urtean eta Penintsula eta Balearretan banatutako 30 sukurtsal baino gehiago ditu.


<sup>156</sup> EAEan bost instalazio dauzkan multinazional talde bati dagokio, GKN DRIVELINE. Bere jarduera automoziorako osagaien fabrikazioaz gain nekazaritzako makina eta aeroespazialera zuzentzen da (talde ezberdinetan aurkitu daitezkeen enpresa da, 34. taldean adibidez).



dintasun hau arrazoi ezberdinen arabera azaldu daiteke; EJNSko taldeen arteko eta EAEko IOT tauletan kontsideratutako atalek erabat bategiten ez dutelako batetik, laginean salmentaz gain beste jarduera produktibo bat garatzen duten enpresen presentziagatik bestetik eta azkenik, 50. taldearen barruan, burutzen dituen jardueren erlazioa dela eta, azpisektore ezberdinetan enpresa bera agertzeagatik (salmenta eta mantenimendua, adibidez)

Inportazio eta esportazioek ia tokirik ez duten jarduera dela kontsideratzen da. Horrela, barne eskariaren estaldura %100 ingurukoa da (BEE: %96,45) eta kanpo irekitze maila oso baxua (KIM: %8,14); hau da, merkatua EAE bera den jarduera baten aurrean gaude.

Nahiz eta 50. taldea azpisektore ezberdinetan bereizi daitekeen, 501 motor-ibilgailuen salmenta, 502 Motor-ibilgailuen mantenimendu eta konponketa, 503 Motor-ibilgailuen ordezeko pieza eta osagarrien salmenta, 504 Motor eta ziklomotoeen eta beraien ordezeko pieza eta osagarrien salmenta, mantenimendu eta konponketa, 505 Automoziorako erregaien txikizkako salmenta, guztietan kontzentrazio-indizea, ustiapen sarrerak kontuan izanik, oso baxua dela nabarmendu behar da. Oso zatikatutako azpisektoreak dira. Azpisektore «berdeak» bezela katalogatu daitezke bere merkatua EAE bera baita, lehia arrisku zeinurik gabekoa.




Hala ere, 501 azpisektoreari dagokionez, Motor-ibilgailuen salmenta, lehenengo tokiak automozio talde nagusienek betetzen dituztela zehaztu behar da, Renault, Ford, Volkswagen, etab. eta talde berdineko merkatu geografiko ezberdinetan ba-

natutako kontzesionario ezberdinen ustiapen sarrerren kopuruak batzen badira, kontzentrazio maila handitu egiten dela dirudi.

Heldua den jarduera da eta araudiaren<sup>157</sup> aldaketak direla eta eboluzio konstantean dago.

**51. TALDEA. Handizkako merkataritza eta merkataritza- bitartekoak, motordun ibilgailu eta motorrak salbu,** EAeko IOT taulen 63. atalari dagokio gutxi gorabehera, Handizkako merkataritza.



Jarduera honek EAEn, 2004. urtean, 4.192,1 milioi eurotako kopurua suposatu zuen; inportazioak nabarmenak izan ziren, 3.098,6 milioi eurotakoak, esportazioak aldiz, nabarmenki txikiagoak izan ziren, 1.267,6 milioi eurotakoak. Kopuru

<sup>157</sup> Europako Batzordeak 2002 urteko uztailearen 31ean Ibilgailuen Banaketa Erregelamendu berria (CE) Zb 1400/2002 onetsi zuen ibilgailuen banaketa sektorean lehiakortasun maila altuago bat, banatzaileekiko fabrikatzaileen (markak) kontrola murriztu eta prezio homogeneoagoak lortzeko. Hau da, marka-anitzetako kontzesionarioen sortzea sustatu eta EBko herrialdeen artean mugazgandiko salmentak bultzatzea. Horrela, kontzesionarioei fabrikatzaile ezberdinen ibilgailuak saltzen uzten zaie. Halaber, automobilaren salmenta jarduera saldu osteko zerbitzutik bereiztean, ibilgailuen konponketa atalean aldaketak sortzen dira. Horrela, kontzesionario bakoitzak konponketak bere instalazioetan egitea edo beste baimendutako konponketaile bat azpikontratatzearabaki dezake. (Lantegi independenteek marken konponketa eskuliburuak eskura ditzakete baita diagnosi eta eraminta sistemak ere. Horrela konponketa zentru guztiek zerbitzu berdinak eskaini ahal izango dizkie kontsumitzaileari eta beraz, erabiltzaileari onura sortzen dioten lehiakortasun handiagoa sortuko da).

hauek kanpo irekitze maila altua islatzen dute (KIM: %104,16) eta barne eskariaren estaldura neurrizko bat (BEE: %48,55).

Heterogeneoa den taldea da non enpresa kopuru handi bat biltzen duen taldea osatzen duten azpisektore ezberdinetan. Datu-basean jasotako 4.700 enpresa baino gehiagok biltzen duten ustiapen sarreraren kopurua 13.720,7 milioi eurotako da, kopuru hau aurretik zehaztutako EAeko ekoizpena baino askoz ere handiago izanik. Ezberdintasun hau azaltzen duten arrazoiak desberdinak dira; batetik, enpresen datu-basean handizkako merkataritzaz gain, ekoizpen eta txikizkako merkataritza jarduera garatzen duten enpresen presentzia, eta bestetik, talde berdinen barnean azpisektore ezberdinetan enpresa batzuek duten presentzia.<sup>158</sup> Halaber, enpresen ustiapen sarrerak, nahiz eta gehiengoak 2004 urtekoak izan, kasu batzuetan 2004 urte ostekoak dira beraz, ekintza honek ere kopurua handitzen laguntzen du.

Orotasunean, taldeak enpresa txiki kopuru oso altua (3.568) eta mikroenpresa ugari (1.018) ditu; enpresa ertain kopuru mugatua (165), enpresa handi oso gutxi (13) eta soilik 10 enpresa oso handi ditu. Zatikako taldea da.

51 taldearen heterogeneotasun eta orotasunean dituen enpresa kopuru handia dela eta, azpisektore bakoitzarentzako kontzentrazio-indizeak kalkulatu dira hiru digitoekin EJSN. Haatik, ikus daitekeen bezela, bereizketa honek ere ez du lehia-arrisku zeinurik sortzen, ustiapen sarrerak kontuan izanik kontzentrazio-indize oso baxua duten azpisektoreak baitira. Azpisektore hauek «zuriak» dira.<sup>159</sup>


**52. TALDEA. Txikizkako merkataritza**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **521, Espezializatu gabeko establezimenduetan txikizkako merkataritza**, **522, Espezializatutako establezimenduetan elikagai, edari eta tabakoaren txikizkako merkataritza**, **523, Farmazia produktu, mediku, edertasun eta higieine artikuluak**, **524, Espezializatutako establezimenduetan artikulu berrien beste txikizkako merkataritza bat**, **525, Establezimenduetan, bigarren eskuko ondasunen txikizkako merkataritza**, eta **527, Norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa**. Talde honetan pilaketa batzuk egin dira. EAeko IOT taulen 64. atalarekin erlazionatzen da, Txikizkako merkataritza.

Azpisektore hauen SABI datu-basean jasotako enpresen kopurua oso altua da eta beraien fakturazio bolumena ikaragarri atua da (5.395 milioi euro 2004 urterako). Atal honi dagokion IOT taulen ekoizpenaren (3.118 milioi euro 2004 urterako) ia bikoitza suposatzen du (%173). Guzti honen azalpen nagusiak, batetik enpresa eremuan kokatzen dira eta bestetik, sailkapen eremuko aspektuetan.

<sup>158</sup> MARINOIL SERVICE, S.A. adibidez, zeina 511, Merkataritzako bitartekoak azpisektorean naiz 515, Guztiz landugabeko nekazaritza produktuek ez direnen, txatarra eta hondakin produktuen handizkako merkataritza azpisektorean kokatzen den, 106,4 milioi eurotako ustiapen sarrera kopuruarekin.

<sup>159</sup> Edozein kasutan, kontzentrazio zeinuak antzemateko, analisi zehatzago bat egin beharko litzateke.

Lehenengoari dagokionez, euskal enpresa garrantzitsu baten existentzia nabarmentzea beharrezkoa dela dirudi (EROSKI SOC. COOP. LIM. DE CONSUMO, GRUPO MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVAko partaide da), zeinak sektorean adierazgarritasun indartsua eta bereizitako azpisektore ezberdinetan bere presentzia areagotzen laguntzen duen dibertsifikazio maila altua duen. Era berean, bere jardueren geografia eremuak euskal lurraldea substantzialki gainditzen du, fakturazioaren zati handi bat EAetik kanpo burutzea eragiten duelarik.



Ezaugarri hauek analisisian zenbait arazo sortarazten dituzte. Batetik, EROSKI-ren kontu bateratu eta bere dibertsifikatutako jarduera asko (gerora bakoitzaren sektorean bereizita agertzen direnak, 521 azpisektorean EROSMER edo 523an DAPARGEL adibidez) datu-basean elkarrekin egoteak negozio kopuruak bikoizu egiten dituzte. Hala eta guztiz ere, eragin hau zuzendu egin da. Bestetik, EAetik at lortutako fakturazioak sektore honi dagokion kopurua puztu egiten du eta zentzu honetan, lehen zehaztutako desproporzioaren azalpena dela esan daiteke.

Bigarren aspektuari dagokionez (sailkapen eremua), kasu honetan duen garrantziaren estimazioa egitea zaila delarik, EJSN kode eta atalekiko enpresa jardueretan ohikoak diren sailkapen arazoak ematen dira eta ez da atal eta jarduerakode bakoitzean bere jardueren bolumenaren egozte egoki bat burutzen. Horrela, sektoreko fitxategian barneratutako enpresa askok txikizkako salmentaren gehigarriak diren jarduerak dituzte, beraien eragina fakturazio kopuruetatik kendu ezin izan delarik.


Sektoreak zabaltasun harrigarria du, 3.458 sozietate barneratzen ditu eta hauei establezimendu kopuru izugarria eta sozietate formarik gabeko merkataritzalizentzia ugari gehitu beharko litzaizkieke. Bolumenaren araberrako azpisektore garrantzitsuenak hurrengoak dira; **521, Espezializatu gabeko establezimenduetan txikizkako merkataritza** (2.103,8 milioi euro 2004 urtean) eta **534, Establezimendu espezializatuetan artikulu berrien beste txikizkako merkataritza bat** (2.176 milioi euro 2004 urtean). Kontzentrazioaren araberrako azpisektore garrantzitsuenak, **521 Espezializatu gabeko establezimenduetan txikizkako merkataritza** (HHI 3.276 da 2004 urtean) eta **523, Farmazia produktu, mediku, edertasun eta higiene artikuluak** (HHI 2.647 da 2004 urtean) dira hauen artean adierazle esanguratsuak kontsideratu daitezkeelarik.

Merkataritza (txikizkako atal honetan) funtsean zerbitzu bat da eta beraz, manufaktura industria-sektoreetatik bereizten dituen berezko baldintza batzuk ditu. Zerbitzuak produktuetatik desberdintzen dira, ez soilik ezaugarri fisikoetan (ukiezintasuna, ekoizpen eta kontsumoaren aldiberekotasuna, galkor izaera), baizik eta ekoizpen eta emate metodoetan ere. Aspektu hauek ikerketa honetan erabilitako bi irizpide nagusietan eragiten dute, sektoreko irekitze mailan (KIM) eta barne eskariaren estaldura mailan edo EAETik at sektore bereko merkatal fluxuan hain zuzen ere. Aipatutako ezaugarrien ondorioz, zerbitzua ez da errez «esportatu» edo «inportatzen». Beraz, zerbitzu sektoreen (txikizkako merkataritza ez da salbuespen bat) sektoreko irekitze mailak 0 izateko joera du eta barne eskariaren estalduraren mailak berriz 100 izatekoa. Azken honek, matrizearen barruan arrisku maila altuena duen eremuan kokatzen du «lehiaren semaforoa» eta beraz, HHIak eskuratzen dituen balioak gutxi zehaztu daitezke.

Zentzu honetan, **521 azpisektorea, Espezializatu gabeko establezimenduetan txikizkako merkataritza**, azpisektore «gorria» dela esan daite, kontzentrazio-indize oso altuak dituelarik (HHI 3.276 2004 urtean). Elkarrekin %85,1 pisu erlatibo eskuratzen duten azpisektoreko sei enpresa handiek duten bolumenaren ondorioz, sektorearen egitura oso kontzentratua dela esan daiteke. Bertan barneratzen diren hiru enpresa oso handik dira (punta-puntakoa den EROSMER IBÉRICA, S.A. %55,05 eskuratu duena eta honekin batera dauden CARREFOUR NORTE, S.L. eta EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, S.A.) eta beste hiru handik (ZELAIRA, S.A., DISTRIBUCIÓN SUPERMERCADOS, S.L. eta SUPERMERCADO ERCORECA, S.A.), gainontzekoak (%15a baino gutxiago direnak) tamaina ezberdinetakoak dira eta oso zatikatuak: bost enpresa ertain, 26 enpresa txiki, 118 mikroenpresa, 156 enpresetako lagina lortzen delarik. HHIren balioak 3 enpresen balioidea den zenbakia eskaintzen du (denak berdina izango balira).

Beraz, kanpo merkataritzako fluxuei buruzko eta merkatu geografiko adierazgarriari buruzko kontsiderazioak kontuan izanik, kontzentrazio maila oso altuak merkatuaren boterearen banaketaren terminuetan modu egokian proiektatzen dira. Edozein kasutan, berriro «EROSKI»ren eragina nabarmentzea beharrezkoa

dela dirudi eta bestetik, atzerriko banaketa enpresak kontuan izatea, batez ere, multinazional talde handiak dituztenak. Guzti honek, sektoreko kontzentrazio kezkarria erlatibizatu ahal izango luke.



Elikagai-oinarria duten txikizkako banaketa kate handiei EAEko salmenten egozte arazoak konpontzeko, EAEn eskuragarri dauden salmenten azaleraren bitartez hurbilketa bat egin da. Objektu honekin, hurrengo lerroetan azaltzen diren 10. taula<sup>160</sup> eta azpitaulak prestatu dira.

Lehenik, EAEko emaitza bateratuak adierazten dira. EROSKI taldeak (bere frankiziak barne) %40,35eko merkatu kuota du. Lehenengo bost talde garrantzitsuenek berriz, %81,30eko metatutako merkatu kuota eskuratzen dute. Merkatu kuoten karratuaren (a<sup>2</sup>) zutabe instrumentalak HHI-en kalkulatzeko laguntzen du, HHI, bere balioa 2.155 delarik EAE osorako. Baliokideak diren enpresen zenbaki terminuetan, antzeko kontzentrazio-indizea duten enpresa berdin kasu hipotetikoarentzat, bost enpresetako oligopolio baten baliokidea ematen du.

Modu honetan, salmenten azalerarekiko hurbilketak elikagai oinarria duen txikizkako sektorean kontzentrazio-indizea gutxitzen du, eremu gorritik eremu laranjara igarotzen delarik. Sektoreak dituen ezaugarriak eta bere kontzentrazio-indizeen geografia-aldakortasunaren ondorioz arrisku nabaria duen eremuan kokatzen da.

<sup>160</sup> 2007 urterako Alimarket Merkatal Establezimenduen zentsuko datuetatik abiatuz.

10. taula  
**Merkatu kuoten hurbilketa: elikagai oinarria duten txikizkako banaketa: EAE**

Salmenten azalerarekiko enpresaak	M <sup>2</sup>	A (%otan)	A metatua (%otan)	A <sup>2</sup>
Grupo Eroski + Frankiziak	237.593	40,3	40,3	1626
Carrefour (Taldea)	94.444	16,0	56,4	257
Uvesco, S.A. (Taldea) + Frankiziak	68.086	11,6	67,9	134
Auchan (Taldea)	54.652	9,3	77,2	86
Supermercado Ercoreca, S.A.	24.163	4,1	81,3	17
Makro Autoservicio Mayorista, S.A.	16.763	2,8	84,1	8
Noralco, S.A. + Franquicias	16.270	2,8	86,9	8
Lidl Supermercados, S.A.	16.250	2,8	89,7	8
Romen, S.L. (Taldea) + Frankiziak	13.040	2,2	91,9	5
Covirán, S.C.A.	8.272	1,4	93,3	2
Día, S.A.	7.320	1,2	94,5	2
El Corte Inglés, S.A. (Taldea)	5.600	1,0	95,5	1
Cash Basauri (Taldea)	5.300	0,9	96,4	1
Amaika, S.A.	4.600	0,8	97,2	1
Plus Supermercados, S.A.	2.964	0,5	97,7	0
Supermercados Sabeco (Frankiziak)	2.755	0,5	98,1	0
Alimentación Más Por Menos, S.L.	1.580	0,3	98,4	0
H.D. Covalco, S.A. (Taldea)	1.570	0,3	98,7	0
Miquel Alimentacio Grup. + Frankiziak	1.417	0,2	98,9	0
Coop. de Hostelería de Navarra	1.250	0,2	99,1	0
Aldi Supermercados, S.L.	1.000	0,2	99,3	0
Sociedad Coop. Consumo Michelin	860	0,1	99,4	0
José Antonio Aguirre y Acofisa	800	0,1	99,6	0
Unide, S. Coop.	620	0,1	99,7	0
Autoservicio Zubiondo, S.L.	450	0,1	99,7	0
Vedialco Bost, S.Coop.	440	0,1	99,8	0
Autoservicio Ongi Etorri, S.L.L.	250	0,0	99,9	0
Telleri, S.L.	250	0,0	99,9	0
Supermercados San Pedro, S.L.	200	0,0	99,9	0
Ignacio Emilio Marqués de Bode, C.B.	150	0,0	100,0	0
Landea Larragan, S.L.	120	0,0	100,0	0
Miguel Ángel González Antúnez	100	0,0	100,0	0
<b>Totala</b>	<b>589.129</b>	<b>100,0</b>		<b>2155</b>
	<b>HHI = 2.155</b>		<b>EBZ = 5</b>	

Iturria: Alimarket, Establezimenduen zentsua, 2007 maiatza.

Hurrengo tauletan agertzen diren lurraldeen bereizketek, analisiaren eremua murrizten den heinean kontzentrazio-indizeak modu nabarian igotzen direla azaltzen dute hain zuzen ere. Egoera honek, zehaztutako eremuetan espazio-monopolio eta oligopolio arriskuekin eragin garrantzitsuagoak izan ditzake.

10.1. taula				
Merkatu kuoten hurbilketa: elikagai oinarria duen txikizkako banaketa: Araba				
Salmenten azalarekiko enpresak	Lurralde kontzentrazio-indizeak Araba			
	M <sup>2</sup>	A (%tan)	A metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
Grupo Eroski + Frankiziak	42.597	44,94	44,94	2019
Carrefour (Taldea)	16.563	17,47	62,41	305
Auchan (Taldea)	9.696	10,23	72,64	105
Uvesco, S.A. (Taldea) + Frankiziak	4.760	5,02	77,66	25
Covirán, S.C.A.	3.867	4,08	81,74	17
Makro Autoservicio Mayorista, S.A.	3.340	3,52	85,26	12
Lidl Supermercados, S.A.	2.250	2,37	87,64	6
El Corte Inglés, S.A. (Taldea)	1.800	1,90	89,53	4
Noralco, S.A. + Frankiziak	1.655	1,75	91,28	3
H.D. Covalco, S.A. (Taldea)	1.570	1,66	92,94	3
Plus Supermercados, S.A.	1.468	1,55	94,48	2
Coop. de Hostelería de Navarra	1.250	1,32	95,80	2
Miquel Alimentacio Grup. + Frankiziak	1.217	1,28	97,09	2
Aldi Supermercados, S.L.	1.000	1,05	98,14	1
Unide, S. Coop.	620	0,65	98,80	0
Cash Basauri (Taldea)	500	0,53	99,32	0
Día, S.A.	411	0,43	99,76	0
Supermercados Sabeco (Frankiziak)	150	0,16	99,92	0
Romen, S.L. (Taldea) + Frankiziak	80	0,08	100,00	0
<b>Totala</b>	<b>94.794</b>	<b>100,00</b>	<b>HHI = 2506</b>	

Iturria: Alimarket, Establezimenduen zentsua, 2007 maiatza.

Araban, EROSKI taldeak %44,9ko merkatu kuota eskuratzen du. Bost talde nagusienek berriz, %81,7ko metatutako merkatu kuota dute eta HHI 2.506 kopurura igotzen da. Gipuzkoan kontzentrazio balioak murriztu egiten dira pixka bat, eragile nagusienaren kuota, EROSKI taldearena, %39,01ekoa izanik eta lehenengo bost enpresen metatutako merkatu kuota berriz, %88,99koa. Azkenik, HHIk 2.245 balioa eskuratzen du.



Azkenik, Bizkaiako lurraldeak, erlatiboki txikiagoa den kontzentrazio maila eskuratu du. EROSKI taldeak salmenta azalera osoaren %39,74 eskuratzen du, lehenengo bost enpresek %81,67 eta HHI 2.110 arte igotzen da.

Elikagai oinarria duen txikizkako merkataritza sektorean, oligopolio egitura duen kontzentrazio garrantzitsu bat nabari da. Egitura honen ezaugarria, elikagai multinazional talde handien eta bertako taldeen (non EROSKI taldeak jokatu duen papera nahiko nabarmendu den) arteko lehia da.

10.2. taula  
**Merkatu kuoten hurbilketa: elikagai oinarria duen txikizkako banaketa: Gipuzkoa**

Salmenten azalerarekiko enpresak	Lurralde kontzentrazio-indizeak Gipuzkoa			
	M <sup>2</sup>	A (%otan)	A metatua (%otan)	A <sup>2</sup>
Grupo Eroski + Frankiziak	77.533	39,01	39,01	1522
Uvesco, S.A. (Taldea) + Frankiziak	36.478	18,35	57,36	337
Carrefour (Taldea)	29.516	14,85	72,21	221
Auchan (Taldea)	20.384	10,26	82,47	105
Romen, S.L. (Taldea) + Frankiziak	12.960	6,52	88,99	43
Lidl Supermercados, S.A.	5.450	2,74	91,73	8
Día, S.A.	3.333	1,68	93,41	3
Makro Autoservicio Mayorista, S.A.	3.332	1,68	95,08	3
Covirán, S.C.A.	3.130	1,57	96,66	2
Noralco, S.A. + Frankiziak	2.775	1,40	98,06	2
Supermercados Sabeco (Frankiziak)	1.555	0,78	98,84	1
Sociedad Coop. Consumo Michelin	860	0,43	99,27	0
Plus Supermercados, S.A.	750	0,38	99,65	0
Autoservicio Zubiondo, S.L.	450	0,23	99,87	0
Autoservicio Ongi Etorri, S.L.L.	250	0,13	100,00	0
<b>Totala</b>	<b>19.8756</b>	<b>1</b>	<b>HHI = 2245</b>	

Iturria: Alimarket, Establezimenduen Zentsua, 2007 maiatza.

Establezimenduen formatu eta motaren arabera sektoreak egitura konplexua du eta bere merkatu adierazgarriaren eremuak establezimendu motaren menpe daude. Bereziki, geografia eta kokapen dimentsiotik establezimendu mota ezberdinen merkatu eremuak, tokiko eta hiri eremutik eskualdeko edo metropoli izaera garbia duten beste eremuetaraino aldatzen dira. Hori dela eta, tokiko eta hiri eremuan merkatu botere altuko arriskuak egon litezke, beti ere, eremua taldeen arteko lehia aktiboaz giroturik aurkitzen bada.

10.3. taula  
**Merkatu kuoten hurbilketa: elikagai oinarria duen txikizkako banaketa: Bizkaia**

Salmenten azalarekiko enpresak	Lurralde kontzentrazio-indizeak Bizkaia			
	M <sup>2</sup>	A (%tan)	A metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
Grupo Eroski + Frankiziak	117.463	39,74	39,74	1579
Carrefour (Taldea)	48.365	16,36	56,10	268
Uvesco, S.A. (Taldea) + Frankiziak	26.848	9,08	65,19	83
Auchan (Taldea)	24.572	8,31	73,50	69
Supermercado Ercoreca, S.A.	24.163	8,17	81,67	67
Noralco, S.A. + Frankiziak	11.840	4,01	85,68	16
Makro Autoservicio Mayorista, S.A.	10.091	3,41	89,09	12
Lidl Supermercados, S.A.	8.550	2,89	91,99	8
Cash Basauri (Taldea)	4.800	1,62	93,61	3
Amaika, S.A.	4.600	1,56	95,17	2
El Corte Inglés, S.A. (Taldea)	3.800	1,29	96,45	2
Día, S.A.	3.576	1,21	97,66	1
Alimentación Más Por Menos, S.L.	1.580	0,53	98,20	0
Covirán, S.C.A.	1.275	0,43	98,63	0
Supermercados Sabeco (Frankiziak)	1.050	0,36	98,98	0
José Antonio Aguirre y Acofisa	800	0,27	99,25	0
Plus Supermercados, S.A.	746	0,25	99,51	0
Vedialco Bost, S.Coop.	440	0,15	99,65	0
Telleri, S.L.	250	0,08	99,74	0
Miquel Alimentacio Grup. + Frankiziak	200	0,07	99,81	0
Supermercados San Pedro, S.L.	200	0,07	99,87	0
Ignacio Emilio Marqués de Bode, C.B.	150	0,05	99,93	0
Landea Larragan, S.L.	120	0,04	99,97	0
Miguel Ángel González Antúnez	100	0,03	100,00	0
<b>Totala</b>	<b>295.579</b>	<b>100,00</b>	<b>HHI = 2110</b>	

Iturria: Alimarket, Establezimenduen Zentsua, 2007 maiatza.

Tamaina handigoko formatuetan, lizentzia gehigarrien eskuratzeak sarrera hesiak suposatzen dituzte, eta egoera batzuetan lehia geldiarazi dezakete.<sup>161</sup>

<sup>161</sup> Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bere «Merkataritza Banaketa Sektoreko Lehia Baldintzei buruzko Txostenean» hurrengoia zehaztu du puntu honen inguruan: «Nahiz eta izaera lehiakor orokorra izan, espainiar lurraldean, txikizkako banaketa arau zorrotz eta ezberdinen menpe aurkitzen da. Eredu geografiko bateko salmenta azalari buruzko murrizketa kuantitatiboek, merkaturako behin-behineko lehiakide berrien sarrera ukatzearen ondorioz, lehia murrizten dute. Hori dela eta, lehiak aske dauden tokiko monopolioak sortzeko arriskua ematen da, udal-arau eta amankomunen babesean dauden pilatutako merkatu geografikoetan».

523 azpisektorea, **Farmazia produktu, mediku, edertasun eta higiene artikuluen txikizkako merkataritza** kontzentrazio-indize altuak (HHI 2.647 2004 urtean) dituen azpisektore «laranja» dela esan daiteke. Azpisektore honen kontzentrazio altua «EROSKI» efektuari dagokio, bere partaidetutako DAPARGEL, S.L. bitartez.<sup>162</sup> Enpresa handi bat da (2004 urtean 103 milioi euro), lurrindegia eta kosmetika produktuen txikizkakoa da eta EROSKI TALDEAn barneratuta dago. Bere pisu erlatibo %50,56 da. Gainontzeko sektorea nahiko zatikatuta dago eta tamaina ezberdin guztietako enpresak aurki daitezke: enpresa ertain bat, 11 enpresa txiki eta 114 mikroenpresa. Laginean guztira 127 enpresa barneratzen direlarik. HHIren balioak 4 enpresetako zenbaki baliokidea eskaintzen du (enpresa guztiak berdinak izango balira).

Adierazle esanguratsuak dituzten gainontzeko azpisektoreek, kontzentrazio-indize baxu edo baxu-neurritzkoak aurkezten dituzte. Lehenengoan artean, **522, Espezializatutako establezimenduetan elikagai, edari eta tabakoaren txikizkako merkataritza** dugu, 869 kopuruko HHI duelarik; **524, Espezializatutako establezimenduetan artikuluen txikizkako beste merkataritza bat**, 129 HHIrekin; eta **527, Norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketak**, 139 HHI duelarik. Kontzentrazio-indize baxu-neurritzkoa dutenen artean hurrengoak aurkitzen ditugu: **526, Establezimenduetan burutzen ez den txikizkako merkataritza**, 1.198 HHI duelarik. Eta azkenik, **525, Establezimenduetan bigarren eskuko ondasunen txikizkako merkataritza**, sei mikroenpresa barneratzen ditu eta lagina ezin da esanguratsutzat hartu.


Haatik, txikizkako merkataritzaren «zerbitzuaren» izateak eta bere barne eskariaren estaldura maila oso altuak (BEE %100 ingurukoa) azpisektore «berdeak» direla kontsideratzera bultzatzen gaitu. Mikroenpresak gailentzen diren jarduera hauetan enpresa anitz barneratzen dira, txikizkako merkataritzan ohikoa den egitura zatikatuari erantzunez.

**55. TALDEA.Ostalaritza**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **551, Hotelak, eta 552, kanpin eta epe motzeko beste ostatu mota batzuk**, hauen kasuan pilaketa bat egin da, zeina EAEko IOT taulen 65. atalarekin erlazionatzen den, Hotelak. Bestalde, **553, Jatetxeak, 554, Edari establezimenduak, eta 555, Jantoki kolektiboak eta prestatutako janari hornidura** azpisektoreak ere biltzen ditu eta hauekin ere beste pilaketa bat egin da, EAEko IOT taulen 66. atalarekin erlazionatzen dena, Jatetxeak. Edozein kasutan, ageriko lehia arazorik ez duten jarduerak dira.

Sektore hauen enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, nahiko baxua dela esan daiteke, bereziki Jatetxeen kasuan. 2004 urteko ustiapen sarre-

<sup>162</sup> «In Faradis Perfumerías» izena duten ehun denda ditu, «If» bezela ezagutzen direnak. Enpresa-kontzentrazio eragiketa anitz egin dituen enpresa da, kanpo hazkunde eragiketarik burutu baititu (DAPARGEL, S.L. eta PERFUMERIA NIVEL-10, S.L. enpresek beraien Batzar Orokorretan lehenengoak bigarrenaren eskuratzearren bidezko fusioa adostu zuten 2002ko azaroaren 16an. MEAO 227 Zb. 2002ko azaroaren 27an).

ren kopurua 251,5 milioi euroakoa da Hotelen kasurako eta honek IOT taulen ekoizpen kopuruen %50 inguruko proportzio neurritzeko suposatzen du. Jate-txteen kasuan berriz, 560 milioi euroakoa da zeinak IOT taulen ekoizpen kopururen %15 inguruko proportzio oso baxua suposatzen duen. Zentzu honetan, laginak oso partzialki estaltzen du sektorea, hau sektore ez sozietario oso garrantzitsu bat izateak azaldu lezakeelarik (tabernak, kafetegiak, e.a).



Nahiz eta kontzentrazio-indizeak oso baxuak dituzten zatikako<sup>163</sup> sektoreak izan, estatuko eremuan hotel-kate garrantzitsuenek, hala nola, Sol Melia, NH Hoteles, Barceló edo AC Hoteles, nahiz eta beraien helbide soziala kanpoan izan, EAEn presentzia dute. Hori dela eta, EAEn duten fakturazioaren bolumena egoztea oso zaila da. Era berean, nazioarteko kateen (Sheraton, etab.) presentziaren areagotzeak analisi hau zailtzen du.

EAEn oinarria duten enpresen artean GASTRONOMÍA CANTÁBRICA, S.L. eta GRAN HOTEL ERCILLA, S.A. gailentzen dira. 2004. urtean 297 eta 236 langile zituztelarik hurrenez hurren eta 15 eta 14 milioi euro baino gehiagoko fakturazio kopuruak zituztelarik hurrenez hurren. 100 langile baino gehiago eta 6 milioi euro baino altuagoak diren kopuruak dituzten bost enpresa existitzen dira. Gainontzeko enpresak txikiak eta mikroenpresak dira.


Bi kasuetan, beraien kontzentrazio-indizeak oso baxuak dira (HHI 184 eta 38 hurrenez hurren). Hala ere, barne eskariaren estaldura maila oso altuen (BEE %100

<sup>163</sup> Sektoreko fitxak enpresa oinarrian sozietate kopuru altua jasotzen du: 193 hotelen pilaketan eta 1.010 jate-txteen pilaketan.

ingurukoak) zergatia azaltzen duen ostalaritza zerbitzuaren «esportazio ezintasun» izaeraren ondorioz, azpisektore «berdeak» direla kontsideratu daiteke. ETEa gailentzen den jarduera hauetan, enpresa anitz barneratzen dira, ostalaritzan ohikoa den zatikako sektorearen egiturari erantzunez.

**60. TALDEA. Lurreko garraioa; Hodi bidezko garraioa.** EAEko IOTen 67. atalarekin, Tren-garraioa, 68, Errepide bidezko salgaien garraioa eta 69, Bestelako lurreko garraioa atalekin gutxi gorabehera erlazionatzen diren azpisektore anitz barneratzen ditu.

Euskal ekonomiaren dinamika maila altuaren ondorioz motibatuta, garraio sektoreak, azkeneko urteetan bai enplegu eta establezimendu kopuruetan, baita sortutako Balio Gehigarri Gordinarekin terminuetan ere, hazkunde tasa positiboak aurkezten ditu. Errepide bidezko garraioak, oraindik sektoreko jardueraren zatirik handiena eskuratzen du. Egun, EAEn trenaren eta itsas-garraioaren<sup>164</sup> pisua ez da nahikoa eta europar eremuan sostengarriagoa eta ezarpen handiagoa du.<sup>165</sup>



60. taldean barneratutako jarduera ezberdinen berezitasunen ondorioz, azpisektore baikoitza zehazki aztertzen da.

<sup>164</sup> Itsas-garraioa aurrerago dagoen epigrafe batean aztertzen da.


<sup>165</sup> Ikerketatik ondorioztatzen den moduan, «Panorámica del Transporte en Euskadi 2005 Euskadiko Garraioaren Panorámika», OTEUSEk argitaratutakoa, Euskadiko Garraio Behatokia, Euskal Jaurlari-tzako Garraio eta Herri-lanen sailaren menpe dago.

**601 azpisektorea, Tren-garraioa**, EAEko IOT taulen P67 atalari dagokio gutxi gorabehera, Tren-garraioa.

Datu-basean, 112,9 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituzten, hau da, EAEko ekoizpen osoko %56 duten zazpi enpresa barneratzen dira. Beraz, laginaren adierazgarritasuna neurritzkoa da.<sup>166</sup>

Datu-basean jasotako enpresarik handiena SOCIEDAD PÚBLICA EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. da, EUSKOTREN,<sup>167</sup> merkatal izena du eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailari dagokio, beste zerbitzu batzuen artean, Trenbide, Tranbia eta Funikular zerbitzuak eskaintzen ditu.

METRO BILBAO, S.A.<sup>168</sup> eta ALGEPOSA INTERMODAL, S.A.<sup>169</sup> datu-baseko bigarren eta hirugarren enpresak dira, ustiapen sarrerekiko biok tamaina ertaina dutelarik.



<sup>166</sup> Datu-basean ez dira ez RENFE sarea, EAE Estatuko hiriburu nagusienekin trenbide bidez lotzen dituen, ez FEVEk (FERROCARRILES DE VÍA ESTRECHA) garatzen duen jarduera, Sustapen Ministerioaren menpeko bidaiari eta salgaiak trenbide bidez garraiatzen ariteza eta Kantabria erlaitzeko geografia eremua estaltzen duena ere kontuan izan.

<sup>167</sup> Nahiz eta azpisektore honetan EUSKOTREN barneratu, autobus zerbitzuak ere eskaintzen ditu, bai Gipuzkoako eremu ezberdinetan (Gipuzkoako Foru-Aldundiak sustatutako LURRALDEBUS sisteman barneratuak) baita Bizkaian ere (Bizkaiko foru-aldundiak sustatutako BIZKAIBUS sisteman barneratuak).

<sup>168</sup> Goranzko joera aurkezten du, EAEn gehien erabiltzen den garraio publikoa bihurtu delarik.

<sup>169</sup> Espainian, Frantzian eta Portugalen liderra den erabateko eragile logistikoa. Bere jarduera 1981. urtean hasi zuen eta bere jarduera portuko terminaletan naiz trenbide sare bidez garatzen du.

2004. urtean jarduera honen kopurua 199,7 milioi eurotakoak izan zen, inportazioak 118,6 milioi eurotakoak eta ez zen esportaziorik egon. Datu hauek, kanpo irekitze maila neurrizko bat adierazten dute (KIM %59,38) baita barne eskariaren estaldura neurrizko bat ere (BEE %62,74).

Ustiapen sarrerak kontuan izanik, kontzentrazio-indizea oso altua da (HHI: 3.721). Laginatik lortutako datuak kontuan izanik, azpisektore hau «laranja» izango litzateke. Hala ere, ageri diren arrisku zeinuak murriztu egiten dira, datu-basean EAEn bereaien jarduera garatzen duten RENFE eta FEVE enpresak barneratu ez direlako.

**602, Beste lurreko garraio mota batzuk** (geroago aztertzen den 6024, Salgaien errepide bidezko garraioa salbu) eta **603, Hodi bidezko garraioa** azpisektoreen pilaketa EAeko IOT taulen 69 atalarekin erlazionatzen dira, Beste lurreko garraio bat.

Datu-basean 215,3 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituzten 140 enpresa kontuan izan dira. Kopuru honek IOT tauletan jasotako kopuruaren %34,6 suposatzen du beraz, nahiko adierazgarria ez den lagina da. Arrazoi anitz dira hain urriak diren sarrerak justifikatu ditzaketanak: garraio jarduera ezberdinak garatzen dituzten enpresen ausentzia eta beste azpisektore batzuetan barneratu direnak edo EAetik at beraien egoitza duten Estatu eta nazioarteko garraio konpainia garrantzitsuek EAEn duten presentzia. Jarduera eremu ezberdinak dituzten enpresa askoren presentzia duen atomizatutako sektorea da: nazioarteko mailan aritzen diren konpainiak, estatuko konpainiak, erregionalak nahiz eskualdekoak.


2004. urtean jarduera honek 622 milioi eurotako kopurua eskaintzen du, hazkorra den joera garbia erakusten duelarik. Inportazio eta esportazioak oso urriak dira, kanpo irekitze maila murriztua (KIM: %14) eta barne estaldura altua (BEE: %87,94) ondorioztatu daitekeelarik. Beraz, jarduera honen merkatu adierazgarria EAE da funtsean.

Ustiapen sarreren datuetatik abiatuz, kontzentrazio-indize oso baxuak aurkezten dituen jarduera bat da (HHI: 321). Barne estaldura maila altua dela eta laginaren adierazgarritasun urria ahaztu gabe, azpisektorea «berdea» dela esan daiteke. Sektorearen ezaugarri nagusia den atomizazioa, EAE zabaltzen da non eskualdeko nahiz tokiko enpresa txikien kopuru handi nabarmentzen den.

Azkenik, **6024, Salgaien errepide-garraioa** modu berezian aztertzen da euskal ekonomian duen izugarritzko pisua dela eta. Azpisektore hau EAeko IOT taulen 68. atalari dagokio, Salgaien errepide-garraioa. 2004 urtean ekoizpen kopurua 1.728 milioi eurotakoak izan zuen, aurreko epeekiko goranzko joera garbia ikus zitekeelarik.

Laginean bi enpresa oso handi jasotzen dira, TRANSPORTES AZKAR eta GEODIS IBERIA, S.A. eta beste bi enpresa handi. Hala ere, gehiengoak (%80) mikroenpresak dira.

Datu-basean 2.004. milioi eurotako ustiapen sarrerak dituzten 900 enpresa jasotzen dira. Kopuru honek EAEko IOT tauletan jasotakoa gainditzen du. Hau gertatzearen arrazoiak ezberdinak izan daitezkeelarik: EJSNko kodeek eta IOT taulen atalek guztiz bategiten ez dutelako eta laginean enpresa batzuen presentzia bikoiztua ematen delako gertatu daiteke, sarrera bateratuak eta ez bateratuak jasotzen baitira; edo ustiapen sarrera guztiak 2004 urtekoak ez direlako, enpresa askok 2005 urteko kopuruak aurkezten baitituzte.<sup>170</sup>



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	BEE	KIM
290	%29	%35	%55,02	%86

Sektore atomizatua da, ustiapen sarrerekiko kontzentrazio-indize oso baxuak dituena.

Inportazioek 1.059 milioi euro eskuratu zituzten, esportazioak aldiz nabarmenki baxuagoak izan ziren, 432 milioi euro. Hau barne eskariaren estaldura neurrizko batean eta kanpo irekitze maila altuan interpretatzen da.

Kontzentrazio-indizeak eta barne eskariaren estaldura maila kontuan izanik, azpisektore hau «berdea» dela kontsideratzen da, ageriko lehia-arrisku zeinurik gabekoa, enpresa kopuru handi duena, sarrera hesi urriak dituena eta beste erkide-

<sup>170</sup> Jarduera honek joera hazkorra erakusten du euskal ekonomiaren hazkunde erritmoarekin bat mugitzen delako eta beraz, 2004 urtean eskuratutako kopuruen gainekoak dira.




goetako enpresen eta mundu osokoen presentzia duena. Haatik, sektoreak barne eskariaren estaldura maila garrantzitsu bat eta elkartegintza maila altua du.<sup>171</sup>

**61. TALDEA. Itsas garraioa, kabotaje edo barruko beste nabigazio bide batzuk**, EAEko IOT taulen P70 atalari dagokio gutxi gorabehera. Jarduera honek 156,6 milioi eurotako kopurua izan zuen 2004 urtean, inportazioak 201,2 milioi eurotakoak eta esportazioak 93,8 milioi eurotakoak.

Zuhurki kontzentratua den taldea da, NAVIERA MURUETA, S.A enpresa ertainaren presentziaren bitartez nabarmetzen dena, zeina 69 langile eta 13,1 milioi eurotako fakturazioa izanik datu-basean jasotako enpresarik handiena den (%27,12ko pisu erlatibo) eta gainontzekiko, enpresa txiki eta mikroenpresekiko nabarmenki gailentzen den. Hala ere, EAEtik kanpo egoitza duten baina Erki-dego Autonomoan lan egiten duten enpresen presentzia nabarmendu behar da. Lehenago aipatu dugun moduan, aztertutako sozietateek ekoizpen guztiaren %31 inguru suposatzen baitute. Espainiako fakturazio mailan lehenengoak diren enpresen kasua izango litzateke COMPAÑÍA TRANSMEDITERRÁNEA, S.A edo ENPRESA NAVIERA ELCANO, S.A.

Datu-basean 48,3 milioi eurotako ustiapen sarrereak dituzten 20 enpresa jasotzen dira, hau da, EAEko ekoizpen totalaren %31. Beraz, adierazgarritasuna baxu-neurritzkoa da. Datu-basean jasotako enpresen gehiengoa 6110 Itsas garraioan jarduten dute.




<sup>171</sup> Elkartegintza non lehiaren erakundeen ebazpen zehatzaile ezberdinak merezi izan dituzten jarduerak eratorri diren.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
1.323	%69	%90	8	%23,81	%188,33

Datu hauek kanpo irekitze maila oso altua adierazten dute, baina barne eskariaren estaldura aldiz, baxua. Laginean lortutako datuak kontuan izanik, ustiapen sarrerekiko kontzentrazio-indizea altua da. Sektore hau «zuria» dela esan daiteke beraz.

**62. TALDEA. Aire bidezko garraioa,** EAEko IOT taulen 71. atalari dagokio gutxi gorabehera, Aireko garraioa.




Jarduera honek 2004. urtean 152,728 milioi eurotako kopurua izan zuen, joera hazkor garbia zuelarik. Hala ere, jarduera atal honetan, inportazioen kopurua funtsezkoa da, 281,965 milioi eurotako, eta esportazioen kopurua, garrantzi gutxiago duena, 84,980 milioi eurotako. Datu-basean 5 enpresa soilik jaso dira, elkarren artean 6,141 milioi eurotako ustiapen sarrerak batzen dituztelarik, hau da, EAEko aire bidezko garraioaren fakturazio osoaren %4 bat. Esanguratsua ez den laginaren aurrean gaude beraz, eta nahiz eta HHI oso altua izan, ez du baliorik izango, EAEn jarduera honetan aritzen diren eta EAEtik kanpo helbidea duten aireko konpainia nagusienak jarduten baitute.

Aireko konpainiek eskualdekoa baino zabalagoa den merkatu batean lehiatzen dute,<sup>172</sup> askotan nazioarteko merkatuan. Haatik, lehiakide gutxi izatetik edo li-

<sup>172</sup> Nahiz eta aireko garraioa-bidaiari eta salgaien garraioa - duela urte asko lehia askearen menpe egon, aireportu barruan garatzen diren jarduera ugari daude duela gutxi liberalizatu direnak.

nea zehatz batzuen monopolio egoeratik ere eratortzen diren arazoak aurkeztu daitezke.<sup>173</sup>

**63. TALDEA. Garraioei erantsitako jarduerak. Bidai-agentzien jarduerak,** hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **631, Salgaien manipulazio eta gordailua, 632, Garraioei (itsas, lur, airezkoei) erantsitako beste jarduera batzuk,** azken hauen kasuan pilaketa bat egin da, eta **634, Salgaien garraioaren antolaketa.** Guzti hauek, EAEko IOTen 73. atalarekin erlazionatzen dira, Garraioari erantsitako beste zerbitzu batzuk. Bestalde, **633 azpisektorea ere barneratzen du, Bidai-agentzien, turismo handizkako eta txikizkako eta laguntza turistikoa beste jarduera batzuk,** EAEko IOTen 72 atalarekin erlazionatzen direnak, Bidai-agentziak. Edozein kasutan, aurkitutako kontzentrazio maila ezberdina denez, jarduera hauei dagozkien hausnarketak egiterako garaian bereizketa hau mantenduko da.




Hortaz, EAEko IOTen 73 atalari dagokionez, Garraioari erantsitako beste zerbitzu batzuk, eta erabilitako adierazle kuantitatiboak kontuan izanik, orokorrean lehia-arazorik ez duten jardueren aurrean gaudela esan daiteke. Edozein kasutan, erlazionatutako azpisektoreen berezko izenei lotu daitekeen moduan, garraioa eta bere mota ezberdin guztiei lotzen diren jarduera ezberdin eta heterogeneoak dira. Bere bereizketa eta azterketa xeheak hemen aipatutako zeinu ezberdinak igorri ditzake.

<sup>173</sup> Halaber, Lehiaren Defentsarako Auzitegien zehapenak ohikoak dira prezioak igotzeko sektoreko enpresen arteko akordioen ondorioz.

Atal honetan, 631-632 pilaketa kasurako datu-baseak, 2004 urtean 1.246,8 milioi eurotako fakturazioa duten 336 enpresa jasotzen ditu eta 634 azpisektorearen kasuan berriz, 2004 urtean 680,4 milioi eurotako fakturazioa duten 217 enpresa. Beraz, modu bateratuan, lagina 2004 urtean guztira 1.927,2 milioi eurotako fakturazioa duten 553 sozietatek osatzen dute zeinak EAEko IOTen datuen arabera, EAEko ekoizpenaren %63 inguru adierazten duten. Beraz, laginak adierazgarritasun maila garrantzitsua du.

Bestalde, atal honek esportazio garrantzitsu eta inportazio urri batzuek sortutako sektorearen irekitze maila baxu-neurrizko bat du (KIM %31,47). EAetik at sektore bereko merkatal fluxu oso baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura oso altua (BEE %96). Guzti honek, merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAeren dimentsiorako zehazten dela adierazten du zerbitzu autoktono altua duelako. Egitate honek erabilitako matrizearen barruan sektore-mailan eragina du.


Hori dela eta, **631 azpisektorea, Salgaien manipulazio eta gordailua, eta 632 azpisektorea, Garraioei (itsas, lur, airezkoei) erantsitako beste jarduera batzuk**, (pilatuta) azpisektore «berdeak» kontsideratzen dira, nahiz eta beraien egitura orekatutzat har daitekeen. Banaketa egokia du, bost enpresa handi,<sup>174</sup> 25 enpresa ertain eta enpresa txiki (75) eta mikroenpresa (225) ugari, laginean hiru hurrehun enpresen kopurua gainditu arte.



<sup>174</sup> BERGE MARITIMA, S.A., BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS, S.A., DOMAN, S.A., E ERHARDT Y COMPAÑÍA, S.A. eta ARCELOR DISTRIBUCIÓN CENTRO, S.L., hauetako bat berak ere pisu erlatiboaren %8 baino gehiago eskuratzen ez duelarik eta 2004 urterako modu bateratuan %27,69 eskuratzen dutelarik.

EAEko enpresetara mugatutako azpisektoreak, kontzentrazio-indize oso altua ematen du (HHI 234). Lehenengo 10 enpresek, ustiapen sarreren eta datu-baseko laginaren arabera, %40,28ko pisu erlatiboa dute. HHIren balioak 43 enpresetako balioak den zenbakia ematen du (guztiak berdinak izango balira).

**634 azpisektorea, Salgaien garraioaren antolaketa**, nahiz eta bere lehia egituraren enpresa handiak falta izan, antzeko moduan kontsideratu daitezke. Bere egitura orekatua eta zatikakoa dela esan daitezke, enpresa handien ausentzia duena. Azpisektorea, 20 enpresa ertainek,<sup>175</sup> enpresa txiki askok (62) eta mikroenpresa ugari (135) osatzen dute, laginean 217 enpresa izan arte.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ
148	%16,5	%28,6	68


EAEko enpresetara mugatutako azpisektoreak, kontzentrazio-indize oso baxua aurkezten du. Sektore «berdea» dela kontsideratzen da.

<sup>175</sup> Hauen artean, AGENCIA MARÍTIMA SEA SPAIN, S.A., MARÍTIMA CANDINA, S.L., TRANSNATUR NORTE, S.L., eta T M I TRANS, S.L., gailentzen dira. Bat berak ere pisu erlatiboaren %4 baino gehiago adierazten ez duelarik.

**633 azpisktorea, Bidai-agentzien, turismo handizkako eta txikizkako eta laguntza turistikoaren beste jarduera batzuk**, EAEko IOTen 72. atalarekin erlazionatzen dira gutxi gorabehera, Bidai-agentziak. Bere ezaugarriak direla eta, tratamendu espezifiko behar du.

Azpisektore honetako laginean bi euskal enpresa handi dira liderrak baina EAEkoak ez diren eragile nagusienak falta dira. Beraz, kontzentrazio analisia zehaztu egin behar da. Laginako lehenengo bi enpresak, VIAJES ECUADOR, S.A.<sup>176</sup> eta VIAJES EROSKI, S.A. dira eta biok batera %77 pisu erlatiboa dute 2004 urteko ustiapen sarreraren arabera. EAEn sektorea bi enpresa ertain,<sup>177</sup> enpresa txiki (7) eta mikroenpresa ugari (101) osatzen dute, guztira laginean 112 enpresa izan arte.

Ikuspuntu kualitatibo batetik, bi enpresek sektore barruan duten pisu nabarmenaren ondorioz, balio erantsiaren katearen negoziaketa boterearekin zerikusia duten faktore batzuetan nagusitasun posizio bat aurrez ezarri dezake. Edozein kasutan, EAEn estatu eremuko agentziek duten presentzia ere aipagarria da zeinak EAEn kokatutako beraien establezimenduen bidez fakturazio adierazgarria eskuratuko luketen. Gainera, talde handi hauetako batzuk (VIAJES IBERIA, BARCELÓ, VIAJES EL CORTE INGLÉS, e.a.) burutzen dituzten integrazio-prozesuak azpimarragarriak dira.



<sup>176</sup> Halcón Bidaiak taldekoa.

<sup>177</sup> DÍAS DE OCIO, S.A. eta IBEROTOURS, S.A., %7,29 eta %4,17ko pisu erlatiboa dute hurrenez hurren.

2004 urterako ustiapen sarreren kopuruak 562,6 milioi eurotakoak dira eta 2004 urteko IOTen ekoizpen kopuruaren proportzio oso altua, desproporziozkoa nolabait, (%155) suposatzen du. Hori dela eta, IOTen irizpideen arabera, laginak sektore eremua gainditzen du, azpisektoreko punta-puntako enpresen ezaugarri berezien bidez azaldu litekeelarik. Edozein kasutan, sektorearen eboluzioak barne ekoizpenaren eta ustiapen sarreren joera hazkor garbia agertzen du dagozkien iturrien arabera. Kontutan hartu diren urteetako ustiapen sarreren arabera, sektoreko enpresen mailek ez dute aldaketa esanguratsurik aurkezten.

Oraingoz, azpisektore «gorria» dela kontsideratu daiteke. Bere egitura oso kontzentratua eta bipolar lehia forma duena dela zehaztu daiteke. Fakturazioaren laurden bat laginako gainontzeko enpresen artean (110 enpresa) banatzen delarik.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	EBZ	BEE	KIM
3.048	3	%100	%0


Kontzentrazio-indize oso altuak aurkezten ditu. Sektoreak irekitze maila nulua eta EAEtik kanpo sektore bereko merkatal fluxu minimoa mantentzen du. Normalean, horrelako izaera duen zerbitzu bati dagokion moduan. Beraz, kanpo merkatal fluxuen eta merkatu geografiko adierazgarriaren hausnarketak kontuan izanik, merkatu boterearen banaketaren terminuetan kontzentrazio maila oso altuak egoki proiektatzen direla dirudi. Haatik, estatuko lurralde osoan zehar (zabalera nahiz luzeran) sozietate hauen bulego eta agentzien<sup>178</sup> oso adierazgarria den presentziak, bidai-agentzia garrantzitsu hauek emandako sarrerak modu esanguratsuan arintzen ditu. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspuntu geografikotik, EAE gainditzeko joera duela adierazten du batez ere bi enpresa handi hauen kasuan eta eskaintzaren perspektibatik

#### 64. TALDEA. Posta eta Telekomunikabideak, 641 azpisektorea Posta jarduerak eta 642 azpisektorea, Telekomunikabideak pilatzen ditu..

Tradizioz estatu osoan Correos eta Telégrafos<sup>179</sup> eta Telefónicak monopolio moduan garatutako jarduerak dira hurrenez hurren. Hala ere, berezitasunak eta bi sektoreen liberalizazio erritmo ezberdinak direla eta, 64 taldea osatzen duten bi azpisektoreen bereizketa egin da.

<sup>178</sup> Industria sektorearekiko zerbitzu sektorearen zehaztasun maila azpimarratu nahi da beste behin. Beste autonomia erkidego batzuetan ireki diren bulegoek eskualde barruko bezela hartu ezin daitekeen *in situ* den fakturazio bat sortzen dute, EAEtik kanpo kokatutako ezarpen baten bidez ordezkatzen baita merkataritza.

<sup>179</sup> Sustapen ministerioaren menpe dagoen enpresa publikoa (2001 urtetik Estatuko Baltzu Anonimoa).



Hori dela eta, **541 azpisektorea, Posta jarduerak**, EAEko IOTen 74 atalari dagokio, Posta. EAEko ekoizpen kopurua 205,698 milioi eurotakoa izan zen, joera hazkor garbia izan zuelarik.<sup>180</sup>

Posta jarduerak, duela 40 urte baino lehenagotik eta oraindik amaitu ez den liberalizazio<sup>181</sup> prozesu graduala izan dute.

Datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urtean 43,3 milioi eurotako sarrera totala batzen duten 58 enpresa barneratzen dira, hau da, EAEko ekoizpenaren %21. Beraz, adierazgarria ez den lagina da. Datu-basean ez dira bere jardura EAEan garatzen duten baina beraien egoitza lurralde honetan ez duten eragile postalak jasotzen, Correos adibidez.

Nahiz eta adierazgarria ez den lagina izan, 2004 urteko EAEko enpresen datu-baseak atomizatutako, enpresa txiki eta mikroenpresaz osatutakoa eta kontzentrazio-indize oso baxuak dituen sektore bat aurkezten du. Haatik, jardura hauen mailaz mailako liberalizaziotik eratorritzen den kontzentrazioaren igoera bat aurriztuz da eta beraz, lehiakide berrien fusio eta presentzia bat.<sup>182</sup>

<sup>180</sup> Nahiz eta posta elektronikoaren mehatxua izan, posta zerbitzuak eskari hazkorra du.

<sup>181</sup> Tokiko bidalketa segmentua (errentagarriena) 1964 urtetik guztiz liberalizatuta dago. 2006. urtean 50 gramotik gorako bidalketa guztiak liberalizatu ziren eta 2009 urtean Europako posta merkatua guztiz liberalizatuko da.

<sup>182</sup> 2004 urteko datu-baseko lehenengo enpresa, TOUR MENSAJEROS GUIPUZCOA, S.L., estatuko beste enpresa askorekin batera, TOURLINE EXPRESS MENSAJERÍA, S.L.ak xurgatu zuen edo enpresa berrien sortzeak, hala nola AKROPOST taldea (AKROPOST SERVICIOS POSTALES DE LA CAE, S.A (Bizkaia), AKROPOST GIPUZKOA (Gipuzkoa) eta AKROPOST ALAVAK (Araba) osatzen dute eta Posta Operatzaile Pribatu bezela bere jardura garatzeko baimen administratibo



**642 azpisektorea, Telekomunikabideak**, EAEko IOTen 75. atalari dagokio, Telekomunikabideak. Jarduera honek, 1.337,683 milioi eurotako kopurua izan zuen 2004. urtean, hazkunde joera garbia izanik.<sup>183</sup>

2004 urterako EAEko lagina ez da esanguratsua. Barneratzen diren 76 enpresen artean 397,8 milioi eurotako ustiapen sarreraren kopurua batzen dute, hau da EAEko ekoizpenaren %29. Eragile asko dira EAEn beraien jarduera garatzen dutenak baina beraien egoitza EAetik at dutenak.

Laginako datuak kontuan izanik, EAEn EUSKALTEL,S.A<sup>184</sup> gailentzen dela aipatu behar da zeinak 307,098 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituen eta %77,19ko merkatu kuota (ustiapen sarreraren arabera). Gainontzekoak enpresa txikiak eta mikroenpresak dira GRUPO COMUNICACIONES Y SONIDO, S.L izan ezik.

Jarduera honek, datu-basean EUSKALTELen presentziaren ondorioz, eta gainontzeko estatu eta nazioarteko eragileen ausentzia dela eta, kontzentrazio-indize oso altua aurkezten du (HHI: 5.992). Sailkapenean, azpisektore hau «gorria» dela esan daiteke. Haatik, datu honek, jarduera beraren ezaugarrien ondorioz (lehiakideen kopuru hazkorra, Telefonikaren ohiko monopolio egoeraren ondorioz) eta erabilitako lagina dela eta, bere baliozkotasuna galtzen du.

**65. TALDEA, Finantza-bitartekotza, aseguruak eta pentsio planak salbu**, eta **67. TALDEA. Finantza-bitartekotzari lagungarri diren jarduerak**, elkarren artean oso lotuta dauden taldeak dira. Ikerketa honetan planteatutako analisia egiterako orduan, problematika berezia duten taldeak dira. Hasiera batean, EAEko IOTen 76 eta 78 atalekin erlazionatzen dira, Banku eta Finantza-laguntzaileak hurrenez hurren.

Aurkitutako arazoak funtsean, hurrengo arrazoietan mugatzen dira: kopuru hauetan enpresa oso ezberdinak barneratzen direla eta bere kokapena justifikatzen duen ageriko erlazorik ez dagoela. Guzti honek, erabilitako datu-baseen garbiketen ondorioz esanguratsuak ez diren laginak izatera bultzatu du. Bestalde, finantza jardueraren merkatu adierazgarria funtsean europarra eta modu hazkorrean globala izateak beste mekanismo eta tresna analitikoaren erabilerari mese-de egiten dio.

2004. urtean jarduera hauen kopuruak 2.723,5 milioi euro eta 340,4 euro izan ziren hurrenez hurren. Bankuaren kasuan, inportazioak 904,2 milioi eurotakoak eta esportazioak 59,8 milioi eurotakoak izan ziren. Finantza-laguntzaileen kasuan

---

orokorrak nahiz bereziak ditu) 2003 urtean, 2004 urteko datuetan eragin gutxi izan zuen, nahiz eta egun, posta bolumena kontuan izanik EAEko posta pribatuaren banaketan liderra dela dirudien.

<sup>183</sup> Telekomunikabideen sektorea bere hazkunde indartsuak bereizten du non etengabeko berrikuntzak eta teknologiaren eboluzio azkarra ematen ari den.

<sup>184</sup> <<http://www.euskaltel.es>> EUSKALTEL, S.Ak., EAEko Telekomunikabideen Eragile Orokorrak, Telefonia finkoa, Mugikorra, Internet eta Telebista Digitalaren zerbitzuak eskaintzen ditu. Estatu mailan laugarren eragilea da bai telefonia finkoa nahiz Telefonia mugikorraren sarrerekiko.

berriz, inportazioak 33,6 milioi eurotakoak eta esportazioak 80,8 milioi eurotakoak izan ziren. Datu hauek, kanpo irekitze maila baxu-neurrizkoa dela adierazten dute (KIM %35,39 eta %36,6 hurrenez hurren) eta barne eskariaren estaldura berriz oso altua (BEE %96,82 eta %79,16, hurrenez hurren).

A priori, **65. TALDEAK, Finantza-bitartekotza**, aseguruak eta pentsio planak izan ezik, **652 azpisektorearen** bitartez, Beste **Finantza-bitartekotza mota batzuk** nahiz **67. TALDEAK, Finantza-bitartekotzari lagungarri diren jarduerak**, **671 azpisektorearen** bitartez, **Finantza-bitartekotzari lagungarri diren jarduerak, aseguruak eta pentsio planak salbu**, sektoreko azterketa batean azalpen zaila duen heterogeneotasun maila duten eta finantza-jarduera berarentzako gehiegizko bolumena duen enpresen laginak sortu dituzte. Baina bestalde, EAEkoak ez ziren finantza-erakunde batzuen ausentzia oso esanguratsua da.

Hori dela eta, **652** (EJSN) atalean sailkatutako enpresen artean, sektoreko buru diren enpresak hurrengoak dira; GESTAMP AUTOMOCIÓN, S.L., CORPORACIÓN IBV SERVICIOS Y TECNOLOGÍAS, S.A., CORPORACIÓN PATRICIO ECHEVERRÍA, S.A., BOMBARDIER EUROPEAN HOLDINGS, S.L. y URAZCA, S.A. **671** (EJSN) kasuan GESTAMP AUTOMOCIÓN, S.L. y URAZCA, S.A. sozietateaz gain beste sozietate batzuk dira lehenak, hala nola, CORPORACIÓN SIDENOR, S.A., IBERPAPEL GESTIÓN, S.A. eta CORUS LAMINACIÓN Y DERIVADOS, S.L. Sozietate hauek, euskal industria talde handi batzuei edo EAEn jarduten duten nazioarteko talde handiei dagokie baina beraien jarduera nagusienak eta beraz, beraien sarrerak sortzen dituzten iturriak, beste sektore batzuekin erlazionatzen dira, dagokien ataletan aztertu eta aipatu diren moduan. Hau, ez da aipatutako azpisektoreetako lehenengo tokietan soilik gertatzen baizik eta beraien *Ranking* osoan zehar mantentzen da, hemen ezarritako irizpideen arabera egindako edozein analisi zehatz egiteko aukera eragozten duelarik

Arazo hau, **741 azpisektorearekin**, aurrerago aipatzen den Jarduera juridikoekin, erlazionatzen eta azaltzen da. Azpisektore honek euskal «*holding*» taldeak barneratzen ditu.<sup>185</sup> Funtsean, euskal industria talde handien antolaketa garapena hautematen da. Garapen hau, beraien dibertsifikazio, nazioartekotze eta barneratze estrategia korporatiboekin bat datozen, egitura konplexuagoetaruntz bideratu da. Hori dela eta, bere sozietateak sektoreko talde juridiko eta finantza-taldeetan sailkatu dira. Ekintza esanguratsu eta adierazgarri honek ohikoak diren adierazle eta hauen interpretazioa erabiltzeko aukera galerazten du.

**651 azpisektoreari** dagokionez, **Moneta bitartekotza**, laginak esanguratsuak ez diren emaitzak sortzen ditu, azpisektorea bertan sailkatutako enpresen jarduerekin hertsiki erlazionatzen den kasuan egiten den garbiketaren ondorioz, bi mikroenpresez soilik osaturiko lagina sortzen baitu.

<sup>185</sup> Aurreko taldeei beste askoren artean, BERGE Y COMPAÑÍA, S.A, GAMESA CORPORACIÓN TECNOLÓGICA, S.A, HOLDING GONVARRI, S.L eta CIE AUTOMOTIVE, S.A, enpresak gehitu daitezke.

Handizkako bankuarentzako merkatu adierazgarria globala edo europarra da behintzat. Haatik, txikizkako bankuaren jarduerak eremu geografiko txikiagoa dute. Finantza-bitartekarien eta bezeroen arteko informazioaren asimetria indartsuaren ondorioz metropolitarrak eremua izaten dute.

Txikizkako bankuaren eremuan eman den tokiko egitura honek Internet bidezko bankuaren sarrera hazkorraren bidez aldaketa garrantzitsu bat nabaritu du, bai lehiakideen arteko lehia eta eremu geografikoaren zabalkuntza terminuetan baita informazioaren gardentasunean ere. Azaldutako problematikaren ondorio gisa, EAEko txikizkako bankuaren merkatu kuoten hurbilketa, bulego kopuruetan erakunde talde ezberdinen partehartzetik abiatuz burutzen da.

11. taulan EAE osoan eragile nagusiak, aurrezki kutzak, BBK, %15,3. Caja Laboral, %12,9, La Caixa, %10,7, Kutxa, %8,1, Vital, %6,2, hurrengo bankuekin batera, BBVA, %12,8, SCH, %8,8, Banco Guipuzcoano, %6,4, direla adierazten da.

11. taula				
Txikizkako bankuan kontzentrazioa: 2006 EAE Banku-bulegoak				
Erakundea	Bulego Zk.	A <sup>2</sup> (%tan)	A <sup>2</sup> metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
BBK	243	15,3	15,3	235,3
Caja Laboral	204	12,9	28,2	165,9
BBVA	203	12,8	41,0	164,2
La Caixa	170	10,7	51,8	115,2
SCH	140	8,8	60,6	78,1
Kutxa	129	8,1	68,8	66,3
Guipuzcoano	102	6,4	75,2	41,5
G. Popular	101	6,4	81,6	40,7
Vital	98	6,2	87,8	38,3
Ipar Kutxa	80	5,1	92,8	25,5
Banesto	60	3,8	96,6	14,3
Caja Madrid	22	1,4	98,0	1,9
Bankoa	21	1,3	99,3	1,8
Bankinter	11	0,7	100,0	0,5
<b>Totala</b>	<b>1.584</b>	<b>100,0</b>	<b>HHI = 989</b>	

Iturria: Empresa XXI, 2007 abenduak 1.

Orokorrean kontzentrazio-indizeak erlatiboki neurritzkoa den 989 balioa ematen du. Haatik, kutxek, beraien lurralde mugapenetan finkatutako banaketa dutela kontuan izanik, EAE osoaren batzbesteko kontzentrazio-indize bategiaren (%50 haztatua) eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetako hiru kontzentrazio indizeen batzbesteko bakanak, sektorea hobeto adierazten dutela kontsideratu da. Beraz, 1.315 balioa duen HHI eta 8 enpresen baliokidea den zenbakia lortzen dira.

Lurralde ezberdinei dagozkien balioen hurbilketak lehenengo erakundeen sailka-pena kontuan izanik egin dira.

11.1. taula				
Txikizkako bankuan kontzentrazioa: Araba (Lurraldeko lehenengo 10 erakundeen <i>Rankinga</i> )				
Erakundea	Bulego Zk.	A <sup>2</sup> (%tan)	A <sup>2</sup> metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
Vital	98	37,3	37,3	1388,5
Caja Laboral	37	14,1	51,3	197,9
BBVA	26	9,9	61,2	97,7
La Caixa	22	8,4	69,6	70,0
SCH	20	7,6	77,2	57,8
G. Popular	19	7,2	84,4	52,2
Ipar Kutxa	15	5,7	90,1	32,5
Banesto	14	5,3	95,4	28,3
Guipuzcoano	7	2,7	98,1	7,1
Caja Madrid	5	1,9	100,0	3,6
<b>Totala</b>	<b>263</b>	<b>100,0</b>	<b>HHI = 1.936</b>	


Balio hauek gainbaloratuak egoteko aukera dago, baina edozein kasutan, HHIIn 1.000 puntuak errez gaintzen dira, nahiz eta 1.800 atalasea soilik Araba lurraldeak gaintzen duen. Ezaugarri hauek kontuan izanik eta kutxen lurralde banaketaren ondorioz, egia da EAE orotasunean azpibalaratuta dagoela. Hori dela eta, lurraldeko batzbestekoa Erkidego Autonomo osokoarekin batzbestekoa egiteko erabakia hartu da guzti honen soluzio gisa.

11.2. taula				
Txikizkako bankuan kontzentrazioa: Guipuzkoa (Lurraldeko lehenengo 10 erakundeen <i>Rankinga</i> )				
Erakundea	Bulego Zk.	A <sup>2</sup> (%tan)	A <sup>2</sup> metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
Kutxa	128	26,6	26,6	705,2
Caja Laboral	78	16,2	42,7	261,9
BBVA	55	11,4	54,1	130,2
Guipuzcoano	49	10,2	64,3	103,3
SCH	47	9,8	74,1	95,1
La Caixa	43	8,9	83,0	79,6
G. Popular	35	7,3	90,2	52,7
Bankoa	21	4,4	94,6	19,0
Banesto	15	3,1	97,7	9,7
Bankinter	11	2,3	100,0	5,2
<b>Totala</b>	<b>482</b>	<b>100,0</b>	<b>HHI = 1.462</b>	

11.3. taula  
**Txikizkako bankuan kontzentrazioa: Bizkaia**  
(Lurraldeko lehenengo 10 erakundeen *Rankinga*)

Erakundea	Bulego Zk.	A <sup>2</sup> (%tan)	A <sup>2</sup> metatua (%tan)	A <sup>2</sup>
BBK	240	28,7	28,7	826,1
BBVA	122	14,6	43,4	213,5
La Caixa	105	12,6	55,9	158,1
Caja Laboral	89	10,7	66,6	113,6
SCH	73	8,7	75,3	76,4
Ipar Kutxa	65	7,8	83,1	60,6
Guipuzcoano	46	5,5	88,6	30,3
G. Popular	47	5,6	94,3	31,7
Banesto	31	3,7	98,0	13,8
Caja Madrid	17	2,0	100,0	4,1
<b>Totala</b>	<b>855</b>	<b>100</b>	<b>HHI = 1.528</b>	

**66. TALDEA. Aseguruak eta pentsio planak, derrigorrezko gizarte-segurantzza salbu, eta 672 azpisektorea, aseguru eta pentsio planen jarduera laguntzaileak,** beraien artean oso erlazionaturik daude eta EAEko IOTen 77. atalarekin erlazionatzen, Aseguruak. Borondatezko gizarte-aurrikuspen erakundeak (BGAE) aldiz ez dira bertan barneratzen. Ikerketa honetan planteatu den analisia egiteko arazoak ematen dituzten taldeak dira, 65 Taldearekin eta 671 azpisektorearekin gertatzen den moduan.



2004 urtean, EAEko IOTen Aseguruen epigrafeak 1.497,4 milioi eurotako kopurua suposatu zuen, 240,889 milioi eurotako inportazio hazkorak eta esportazioen kasuan berriz, joera hazkorra zuen 74,7 milioi eurotako kopurua soilik. Hori dela eta, barne eskariaren estaldura oso altua da (BEE: %85,52), nahiz eta aurreko urtekoak baino txikiagoa izan non %95 ingurukoa zen. Kanpo irekitze maila berriz mugatua da (KIM: %21,08), nahiz eta 2000-2002 epealdikoa baino altuagoa den, kasu honetan ez baitzuen %10 ere gaintzen.

Sektore aseguratzailea (bizitza eta ez bizitza) aztertzerako orduan, datu-basean EAEn jarduten duten baina beraien egoitza kanpoan duten erakunde guztiak falta dira.<sup>186</sup> Erreferentziatzko merkaturia estatuko eremua har daiteke non ohiko banku, telefono, eta «*on line*» kanalen artean lehiakortasun handi dagoen. Era berean, nahiz eta lehiakortasun maila altua eta «prezio-gudak» nahiko ohikoak diren sektore baten aurrean egon, erakunde berrien sarrerak ere nabarmentzen dira.<sup>187</sup>

Bestalde, 6602 azpisektoreak, Pentsio planak, Euskadiko Borondatezko gizarte-aurrikuspen erakundeei (BGAE) erreferentzia egiten die EAEn.<sup>188</sup> 2004 urtean, EAEn 204 BGAE erregistraturik zeuden, 12.871 milioi eurotako ondarea zute-larik.<sup>189</sup> Datu hauek oso lehiakorra den eta lehiakide asko dituen eta era berean EAEko aurrikuspen panelek indar handi duten sektorea aurkezten dute.<sup>190</sup>

**70. TALDEA. Higiezin jarduerak**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: **701 Norberaren konturako higiezin jarduerak**, **702, Norberaren konturako ondasun higiezin alokairua**, eta **703, Hirugarrenen konturako higiezin jarduerak**.

EAEko IOTen 79. atalarekin erlazionatzen da, Higiezin jarduerak. EAEko ekoizpen bolumen handienetakoa duen sektore-atal bat da, zeinak 2004. urtean 6.918,6 milioi eurotako balioa eskuratu zuen eta euskal ekonomiarentzat duen garrantzia adierazten duen. Edozein kasutan, ageriko lehia-arazorik ez duten jarduerak dira.

Jarduera hauetan enpresa anitz aurki daitezke non higiezin jardueran ohikoa den zatikako sektorearen egiturari erantzunez, mikroenpresa modu nabarian gailentzen den.

Hala ere, higiezin jardueraren ezaugarrietako bat dimentsio handik dituzten taldeen agerpena da zeinak sektorearen zatikako egitura gaintzeko gaitasuna

<sup>186</sup> Santander Seguros, Allianz, Mapfre Automóviles, Mapfre Vida, Caser, Ibercaja Vida, VidaCaixa, BBVA, beste batzuen artean.

<sup>187</sup> Balumba eta Segur Caixa Auto, beste batzuen artean.


<sup>188</sup> Gizarte-aurrikuspen osagarria EAera besterentzen da eta BGAEren bitartez erregulatzen da. Gainontzeko espainiar eremuan aldiz, Gizarte segurantzaren pentsio osagarriak jasotzen dituztenak batez ere plan eta pentsio fondoak dira.

<sup>189</sup> Euskal Gizarte-Aurrikuspen Behatokiak argitaratutako Borondatezko gizarte-aurrikuspen erakundeen (BGAE) txosten estatistiko kontablearen arabera, 2004, non euskal gizartearen ezarpena gainontzeko estatuko pentsio fondoak gaintzen zituela islatzen zuen.

<sup>190</sup> BGAEak duten ondareak euskal BPGdren %25 suposatzen du Espainia osoko %9aren aurrean.

izan duten eta dimentsio garrantzitsuak sortu dituzten. Beraien dimentsioengatik oso handik direla esan daitekeen sozietateen kasua izango litzateke, hala nola, CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES BALZOLA, S.A., VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A. eta NEINOR, S.A. edo soilik handi kontsideratzen diren honako enpresa hauen kasua, hala nola, INVERSORA INMOBILIARIA ASUA, S.L., MURIAS GRUPO EMPRESARIAL, S.L., PV PROMOTORA VIZCAINA, S.L. eta JAVA INBERTSIOAK, S.L. Hau ez da estatu eremuko beste enpresa batzuk azpimarratzeko oztopoa, hala nola, SACYR VALLEHERMOSO, logikoki datu-basean agertzen ez direnak baina bere jarduera EAEan garatzen dutenak. Sektoreko gainontzeko enpresak ETEak eta mikroenpresa kopuru handi bat dira, sektorean barneratzen diren ia 4.000 sozietateak osatu arte.

Edozein kasutan, segmentu ezberdinak eta plangintza prozesu eta lurzoru eraiki-gariaren kalifikazioarekin oso lotuta dauden tokiko eta eskualdeko berezitasunak existitzen dira. Kalkuluak hirugarrenen konturako higiezinaren sustapen azpisektorea soilik kontuan izanik egiten badira, emaitzak ez dira modu esanguratsuan aldatzen nahiz eta adierazi den moduan maila oso baxuetan kontzentrazio-indizeen areagotze arin bat ematen den. Egiazki, ikerketa honetan egindako analisiak ez du lehia-arazorik antzematen, funtsean bere zatikako izaeraren ondorio izango litzatekeelarik, baina zenbait segmentuetan eta egoeretan lehia arazorik ez dagoela ezin da erabat baieztatu.




Atal honetan, datu-baseak 701 azpisektorean 2004. urtean 3.859 milioi eurotako fakturazio kopurua duten 1.709 enpresa jasotzen ditu; 702 azpisektorearen kasuan berriz, 460,3 milioi eurotako fakturazioa duten 1.823 enpresa eta 703 azpisektorearen kasuan, 110,6 milioi eurotako fakturazioa duten 384 enpresa jasotzen ditu.

Modu bateratuan, lagina guztira 4.430 milioi eurotako fakturazioa duten 3.916 sozietateek osatzen dute, zeinak EAEko IOTen datuen arabera, EAEko ekoizpenaren %64 inguru suposatzen duten. Laginak beraz, adierazgarritasun maila altua du.

Beraien kontzentrazio-indizeak baxuak dira kasu guztietan (HHI 79, 100 eta 177, hurrenez hurren). Haatik, higiezinaren jardueraren «merkatal izaera neketsuak» barne eskariaren estaldura maila altua sortzen du (BEE %94,57) eta kanpo irekitze maila oso baxua (KIM %9,54). Guzti hau dela eta, azpisektore «berdeak» direla esan daiteke.

**71. TALDEA. Makineriaren eta langilerik gabeko ekipamenduaren, norberaren gauzen eta etxeko gauzen akura,** EAEko IOTen 80. atalari dagokio gutxi gorabehera, Makineria-akura.



Euskal enpresen datu-baseak 375,5 milioi eurotako ustiapen sarrerak batzen dituzten (kopuru honek IOTek jasotzen duten ekoizpena gainditzen duelarik) 249 enpresa jasotzen ditu. Ustiapen sarrerak kontuan izanik, merkatu kuotaren %16 eskuratzen duten tamaina ertaineko bi enpresa gailentzen dira, GRUAS USA-BIAGA, S.A.<sup>191</sup> eta ALDAITURRIAGA, S.A.,<sup>192</sup> 32,1 milioi eurotako eta 31,2 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituztelarik hurrenez hurren. Bi enpresa hauen jarrera, arinki txikiagoak diren beste bost enpresa ertain, 30 enpresa txiki inguru eta mikroenpresa anitz aurkitzen dira.

<sup>191</sup> Nazioarteko bokazio indartsua duen enpresa da. 1987an sortu zen eta bere jardueraren nagusia azpiegitura publikoa duten obra handiak, itsas-obra, industria muntaia eta mantenimendua dira.


<sup>192</sup> Espainiako punta-puntako enpresan, GAM, General Alquiler de Maquinaria, barneratuta dago. GAM, 2003. urtean sortu zen penintsulako makineria akura enpresa handien integrazioaren ondorioz. Eragile global eta integratua da eta burututako eskurapenen ondorioz sortutako ordezkaritza sare zabala du.



2004. urtean jarduera honek 309,012 milioi eurotako ekoizpen totala suposatu zuen. Inportazioak 285,8 milioi eurotakoak izan ziren eta esportazioak berriz 26,3 milioi eurotakoak soilik izan ziren. Kopuru hauek interpretazioaren ondorioz, kanpo irekitze maila altua dela esan daiteke (KIM: %100) eta barne eskariaren estaldura berriz moderatua dela (BEE: %49,73).

Oso zatitutako jarduera bat da, gainontzeko penintsula eremuan gertatzen den moduan, kontzentrazio-indize oso mugatuak ditu (HHI: 267) eta lehiaren arrisku zeinurik gabeko sektore «zuria» da.

**72. TALDEA. Informatika jarduerak**, tamainarekiko oso banaketa egokia duen sektorearen egitura oso lehiakorra dakar, arazorik gabeko lehiaketa egitura bat azalduz. EAEko IOTen 81 atalarekin erlazionatzen da, Informatika jarduerak.



Bere egitura orekatua dela esan daiteke, banaketa egokia duelarik, hiru enpresa handi<sup>193</sup> eta ETE ugari (14 enpresa ertain, 46 enpresa txiki eta 554 mikroenpresa), lagina 617 enpresak osatzen dutelarik. Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua 966,5 milioi eurotako da, honek, IOTen ekoizpen kopuruaren proportzio ia perfektua (2004 urtean %104,5) suposatzen duelarik. Zentzu honetan, laginak sektorea bete-betean estaltzen duela baieztatu daiteke.


<sup>193</sup> Konkretuki, bi oso handi (IBERMÁTICA, S.A. %13,98 pisu erlatibo duena eta GRUPO IT DEUSTO, S.L. %11,79 pisu erlatibo duena) eta handi bat (SOCIEDAD INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO, S.A. %6,01 pisu erlatiboarekin).

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
447	%38,12	%49,72	22	%94,75	%34,79

Sektore «berdea» dela kontsideratu daiteke. EAeko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du. Hala ere, estimagarriak diren esportazio batzuen eta inportazio urrien ondorio den sektorearen irekitze maila baxu-neurrizkoa existitzen da. EAetik at barne sektoreko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua. Guzti honek, merkatu adierazgarria ikuspuntu geografiko batetik EAeko dimentsiorako zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono altu baten ondorioz.

**73. TALDEA. Ikerketa eta garapena,** EAeko IOTen 82 atalarekin erlazionatzen da gutxi gorabehera, zeinak 2004 urtean joera hazkor garbia zuen 782,676 milioi eurotako kopurua suposatu zuelarik, 21,083 milioi eurotako inportazioak eta 70,815 milioi eurotako esportazioak.




Datu-basean 71 enpresa jasotzen dira, guztiak ETEak, zeinak 150,6 milioi eurotako ustiapen sarrerak batzen dituzten, hau da, EAerako epigrafe honetan jasotako kopuruaren %20. Beraz, lagin hau ez da adierazgarria. Datu-basean enpresa ezberdinak jasotzen dira, teknologia-zentroak, beraien jarduera nagusia ikerketa eta garapena den fundazioak, baina ikerketa eta garapen jarduerak burutzeaz gain beste jarduera bat edo batzuk (ekoizpen jarduerak batik bat) dituzten enpresen negozio unitate kopuru altuak faltan botatzen dira.

Nahiz eta laginaren adierazgarritasuna baxua izan, sektoreko kontzentrazio urria nabarmentzen da (HHI: 683), eta honek sailkapen «berde» batera daramatza. Sailkapen hau egiteko erabakia, jardueraren merkatu adierazgarria EAE bera izateak motibatzen du eta honi kanpo irekitze maila altua (KIM: %11) eta barne eskariaren estaldura oso altua (BEE: %97) gehitzen zaizkio.


**74. TALDEA. Beste enpresa-jarduera batzuk**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: 741, Jarduera juridiko, kontabilitate, auditoria, aholkularitza fiskala, merkatu azterketak eta iritzi publikoa jasotzeko inkestak burutzea; enpresa zuzendaritza eta kudeaketari buruzko kontsulta eta aholkularitza, balore-zorroa kudeatzeko sozietateak, 742, arkitektura eta ingeniarietza zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin erlazionatuta dauden beste jarduerak batzuk, 743, Saiakuntza eta analisi teknikoak, 744, publizitatea, 745, Pertsonalaren hautaketa eta kokapena, 746, Ikerketa eta segurtasun zerbitzuak, 747, Industria-garbitzen jarduerak, 748, Hainbat enpresa-jarduera: Argazkigintza, hirugarrenen konturako ontzikiratzeta eta paketegintza, idazkaritza eta itzulpena, besteak.

Azpisektore hauek (horietako batzuk analisi honen ondorioz pilatu dira) EAEko IOTen atal ezberdinekin erlazionatzen dira. Orokorrean, beste konpainia batzuei zerbitzu aurreratuak eskaintzen dizkieten eta EAEko testuinguruan garrantzia ekonomikoa duten sektoreko atalekin erlazionatzen diren enpresa taldeak dira. Orokorrean ageriko lehia-arazorik ez duten jarduerak dira, nahiz eta lehia maila ezberdinak eta ezaugarri espezifiko batzuk bereizi daitezkeen. Beraz, xehatutako analisi bat burutzen da.



741 azpisektorea, Jarduera juridiko, kontabilitate, auditoria, aholkularitza fiskala, merkatu azterketak eta iritzi publikoa jasotzeko inkestak burutzen; enpresa zuzendaritza eta kudeaketari buruzko kontsulta eta aholkularitza, balore-zorroa kudeatzeko sozietateak, EAEko IOTen 84. atalarekin erlazionatzen da azpisektore hau, Zerbitzu juridiko kontableak. Euskal «holdingei» buruzko finantza sektoreen (651,652,671) analisisian dagoeneko aipatu den arazo bat aurkezten du.

Bertan zehaztu den arazoa, 741 azpisektorean modu zabalean azaltzen da, euskal «holdingen» orotasuna bameratzen duela kontsideratu dezakegularik. Funtsean, egitura konplexuagoetarantz zuzentzen den industria talde handien eta hauen dibertsifikazio, nazioartekotze eta bameratze estrategia korporatiboekin bat datorren antolaketa garapen bat hautematen da. Guzti honek, bertako enpresak sektoreko talde juridikoetan sailkatzea dakar, batzuetan, Sozietate korporatiboak edo bere ohiko jardueran sailkatutako jatorrizko sozietateen gaineko matrizeak sortzen direlarik.



Hori dela eta 741 (EJSN) azpisektorean sailkatutako enpresen artean, hurrengo sozietateak aurki daitezke: BERGE Y COMPAÑÍA, S.A, GAMESA CORPORACIÓN TECNOLÓGICA, S.A., GESTAMP AUTOMOCIÓN, S.L., HOLDING GONVARRI, S.L., CORPORACIÓN SIDENOR, S.A., CORPORACIÓN IBV SERVICIOS Y TECNOLOGÍAS, S.A., BAGOETA, S.L. eta CIE AUTOMOTIVE, S.A. Guzti hauek 600 milioi eurotako ustiapen sarrerak baino altuagoak diren kopuruak eskuratzen dituzte. Enpresa hauek, euskal industria talde handi batzuen menpe edo bere jarduera nagusiak eta beraz, bere sarrerak sortzen dituen iturria beste sektore batzuekin erlazionatzen den EAEn jarduten duten nazioarteko talde handien menpe daude (aurretik azaldu diren moduan). Egitate hau ez da azpisektoreko lehenengo postuetan soilik gertatzen, baizik eta bere *ranking*ean

zehir mantentzen da. Honek, aurrez ezarritako irizpideen arabera edozein analisi zorrotz egitea eragozten du.

Egitate esanguratsu eta adierazgarri honek ohiko adierazleak erabiltzeko eta dagokien interpretazioak egiteko garbiketa<sup>194</sup> indartsu bat suposatu du, azpisektorearekin zehazki lotutako jaduerak kontsideratzen zirenak kontuan hartuz. Garbiketa hau egin ondoren, 741 azpisektoreak tamaina bidezko banaketa oso egokia duen sektorearen egitura oso lehiakorra eskuratu du non arazorik gabeko lehia egitura bati tokia uzten dioen.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 779,8 milioi eurotakoa da zeinak IOTen ekoizpen kopuruaren neurrizko proportzioa (2004 urtean %49,9) suposatzen duen. Zentzu honetan, laginak sektore erdia estaltzen du.

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta banaketa egokia duena, bi enpresa handi<sup>195</sup> eta ETE ugari (enpresa ertain bat, 33 enpresa txiki eta 1.642 mikroenpresa) dituelarik. Laginak 1.678 enpresa biltzen dituen ditu.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
404	%28,77	%31,3	25	%96,08	%23,05

Azpisektore «berdea» dela kontsideratu daiteke. EAEko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du. Haatik, esportazio nabari eta inportazio urrietatik ondorioztatuko sektorearen irekitze maila baxua ematen da. EAEtik kanpo sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua. Guzti honek, merkatu adierazgarriak ikuspegi geografikotik EAEaren dimentsiorako zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono altu baten ondorioz.

**742 azpisektorea, Arkitektura eta ingeniari-tza zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin erlazionatuta dauden beste jarduera batzuk, eta 743 azpisektorea, Saiakuntza eta analisi teknikoak, EAEko IOTen 85. atalarekin erlazionatzen direnez, pilatu egiten dira, Ingenieritza zerbitzuak.**


Bere egitura orekatua dela eta banaketa egokia duela esan daiteke, zazpi enpresa handi<sup>196</sup> eta anitzak diren ETEak (17 enpresa ertain, 58 enpresa txiki eta 804 mikroenpresa) ditu, laginean 886 enpresa barneratzen dituelarik.

<sup>194</sup> Horrela, datu-base originaleko lehenengo ehun enpresen artean hiru sozietate soilik mantentzen dira adibidez.

<sup>195</sup> Bat bereziki handia da (PRICEWATERHOUSECOOPERS, S.L. %18,15ko pisu erlatiboa du) eta beste bat handia (ANDIKONA 2000, S.L., %7,91ko pisu erlatiboa du).

<sup>196</sup> Lau oso handiak (SENER GRUPO DE INGENIERÍA, S.A. %25,39 pisu erlatiboa duelarik, IBERDROLA INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.A. %14,4 izanik, IDOM, S.A. %8,32 batekin, eta GRUPO IT DEUSTO, S.L. %4,93 merkatu kuota duelarik) eta hiru handi.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 2.311,6 milioi eurotakoa da IOTen ekoizpen kopuruekiko nolabaiteko desproporzioa suposatzen duelarik (2004 urtean %156,8). Zentzu honetan, laginak sektorea gaintzen du. Guzti honen azalpena, euskal sektoreko nazioartekotze hazkorra izan liteke, batez ere enpresa handiei dagokionean.<sup>197</sup>



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
991	%56,89	%66,58	10	%84,64	%42,92


Sektore pilaketa hau sektore «berdetzat» har daiteke. EAEko enpresei mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxu-neurrizkoa aurkezten du. Honi, esportazio nabari eta txikiagoak diren inportazioetatik ondorioztatzen den kanpo irekitze maila neurritzkoa gehitzen zaiolarik. Era berean, EAEko barne sektoreko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua. Guzti honek, merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAEko dimentsiorako zehazten dela adierazten du.

<sup>197</sup> CIVEX datu-baseko datuak kontuan izanik, sektoreko lehenengo enpresen kasuan, SENER GRUPO DE INGENIERÍA, S.A %16-25 esportazio mailan aurkitzen da, eta bai IBERDROLA INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.A. nahiz IDOM, S.A. %5-15 esportazio mailan kokatzen dira. Datu hauek sektorearen nazioarteko dimentsio hazkorra baieztatzen dute (eta ondorioz, bere merkatu geografiko adierazgarriarena) batez ere joera esportatzaile hazkorra duten enpresen existentziaren aurrean.

**744 azpisektorea, Publizitatea**, EAĒko IOTen 86. atalarekin erlazionatzen da, Publizitatea.

Bere egitura orekatua eta egoki banatutakoa dela esan daiteke, nahiz eta enpresa handien ausentzia nabaria den. ETE anitzen bidez taxututa aurkitzen da (lau enpresa ertain, 28 enpresa txiki eta 339 mikroenpresa) laginak 371 enpresa barneratzen dituelarik.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 359,9 milioi eurotakoa da, zeinak IOTen ekoizpen kopuruaren proportzio altua suposatzen duen (2004 urtean %70,68). Zentzu honetan, laginak ia sektore osoa estaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
375	36,07 %	45,67 %	27	68,57 %	59,71 %


EAĒko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua eskaintzen du eta honi, esportazio eta inportazio orekatu batzuen ondorioz sektoreko irekitze maila neurritzeko gehitu behar zaio. EAĒtik at sektore bereko merkatal fluxu neurritzko-baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estalduraren maila neurritzko-altua da. Guzti honek merkatu adierazgarriak ikuspegi geografikotik EAĒko dimentsioarentzat partzialki zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono nabari baten ondorioz.

Azpisektore «berdea» dela kontsideratu daiteke.

**745 azpisektorea, Pertsonalaren hautaketa eta kokapena, eta 748 azpisektorea, Hainbat enpresa-jarduera: Argazkigintza, hirugarrenen konturako ontzikiratze eta paketegintza, idazkaritza eta itzulpena, besteak, EAEko IOTen 89. atalarekin erlazionatzen direnez pilatu egiten dira, Beste enpresa zerbitzu batzuk.**

Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta banaketa egokia duena, enpresa handi bat<sup>198</sup> eta laginean 1.057 enpresa eskuratu arteko ETE anitz barneratzen ditu (13 enpresa ertain, 69 enpresa txiki eta ia mila mikroenpresa).

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 999,1 milioi eurotako da zeinak IOTen ekoizpen kopuruen proportzio altua suposatzen duen (2004 urtean %71,28). Zentzu honetan, laginak ia sektore osoa estaltzen du.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
236	%25,78	%33,18	42	%97,55	%24,04

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua eskaintzen du. Haatik, nabariak diren esportazio batzuetatik eta urriak diren inportazioeta-

<sup>198</sup> Zehazki LABORMAN TRABAJO TEMPORAL EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A. oso handia dela esan daiteke 125,2 milioi eurotako negozio kopurua lortzen baitu eta %12,53 pisu erlatiboa adierazten duelako.




tik ondorioztatutako sektoreko irekitze maila baxua existitzen da. EAetik kanpo, sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren esaldura maila altua. Guzti honek merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAEko dimentsiorako zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono altu baten ondorioz.

Sektore pilaketa hau sektore «berdea» dela kontsideratu daiteke.

**746 azpisektorea, Ikerketa eta segurtasun zerbitzuak**, EAEko IOTen 87. atalarekin erlazionatzen da, Ikerketa eta segurtasun zerbitzuak.

Azpisektore «horia» dela esan daiteke, nahiz eta aurreko azpisektoreekin alderatuz bi isurialdeetako egitura aurkezten duen. Batetik, azpisektoreko sarrera erdiak elkarren artean banatzen dituzten bi enpresa ertainek<sup>199</sup> osatzen duten egitura bipolarra aurkezten du eta bestalde, gainontzeko sarrera guztiak, zortzi enpresa txiki eta 35 mikroenpresen artean banatzen dira. Laginak 46 enpresa barneratzen ditu.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurura 133,7 milioi eurotakoa da IOTen ekoizpen kopuruen proportzio altua suposatzen duelarik (2004 urtean %70,37). Zentzu honetan, laginak ia sektore osoa estaltzen du.




<sup>199</sup> SABICO SEGURIDAD, S.A. %29,49 pisu erlatiboa du eta PROTECCIÓN Y SEGURIDAD TECNICA, S.A. %21,29ko pisu erlatiboa.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
1.560	%73,74	%89,45	6	%92,87	%13,69

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, neurrizko kontzentrazio-indizea aurkezten du. Honi, esportazio eta inportazio orekatu baina urri batzuen ondorioz, sektoreko irekitze maila baxuaren existentzia gehitu behar zaio. Era berean, EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua. Guzti honek merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAEn dimentsiorako zehazten dela adierazten du, nabaria den zerbitzu autoktono baten bitartez.

**747 azpisektorea, Industria-garbigiketa jarduerak**, EAEko IOTen 88. atalarekin erlazioztatzen da, Industria-garbigiketak.



747 azpisektorearen analisisian EULEN, S.A enpresaren egiturak eragin handi du. EULEN, S.A datu-basean 882,6 milioi eurotako sarrerekin agertzen da, azpisektoreko pisu erlatiboaren %72 adierazten duelarik. Hala eta guztiz ere, kopuru honek sektorekoak nahiz estatu eremukoak<sup>200</sup> ez diren jarduera asko barneratzen

<sup>200</sup> Espainia osoko garbigiketa eta gizarte-osasun zerbitzuen salmentek 340,80 milioi eurotako balioa sortu zuten 2005. urtean. Gainera, 114 milioi euro beraien atzerriko enpresen bidez lortutakoak dira. Atzerrian sortutako sarrera hauek datu-basea zehazterako orduan kendu egiten dira, bere pisu erlatiboa %74,52 arte murrizten delarik.

ditu. Oso dibertsifikatuta dagoen talde bat da eta bere jatorria, eduki tekniko eta balio erantsi<sup>201</sup> handigoa duten sektoreetatik eratortzen diren garbiketa jarduerak dira. Dibertsifikazioak kontzentrazio-zeinuak handitzen ditu logikoki.

Kontzentrazio altuen zeinuetan eragin garbi eta zuzena duen egoera hau bereganatuz, enpresa oso handi honek menperatzen duen eta oligopolio egitura duen azpisektore «gorria» dela esan daiteke. Bestalde, gainontzeko sarrera totalen laurdenarentzako ETE anitzez (7 enpresa ertain,<sup>202</sup> 20 enpresa txiki eta 150 mikroenpresa) osatutako erlatiboki egokia den banaketa bat aurki daiteke. Laginak 178 enpresa eskuratzen dituelarik. Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua 1.979,5 milioi eurotako da, zeinak IOTen ekoizpen kopuruaren aurrikusitako desproporzio bat suposatzen duen (2004. urtean %250,6). Zentzu honetan, planteatutako arazoaren (EULEN, S.A. enpresaren dibertsifikazio eta nazioartekotzea) ondorioz, lagina desbideraturik dago eta sektorea modu zabalean gaintzen du.

Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE	KIM
5.581	%82,55	%87,23	2	%86,28	%27,24

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, kontzentrazio-indize oso altua aurkezten du. Honi, esportazio eta inportazio orekatu baina mugatuetatik ondorioztatzen den sektoreko irekitze maila baxua existitzen dela gehitu behar zaio. Era berean, EAEtik at sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua. Guzti honek merkatu adierazgarria ikuspegi geografikotik EAEko dimentsiorako zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono nabari baten ondorioz.

**80. TALDEA. Hezkuntza,** tamainarekiko banaketa oso egokia duen sektore baten egitura oso lehiakorra du, arazorik gabeko lehia-egitura bultzatzen duelarik. EAEko IOTen 91. atalarekin erlazionatzen da, Merkatu hezkuntza.


Bere egitura orekatua dela eta banaketa egokia duela esan daiteke nahiz eta enpresa handien ausentzia izan. ETE anitzez osatuta dago (bi enpresa ertain, 12 enpresa txiki eta 270 mikroenpresa) EAEko laginak 284 enpresa barneratzen dituelarik. Enpresa asko jarduera honetan partaide dira non merkatu hezkuntzaren zatikako sektorearen egiturari erantzunez, ETEek egoera guztiz menperatzen duten. Merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAEko dimentsiorako zehazten da, zerbitzu autoktono altu baten ondorioz.

<sup>201</sup> Horrela, instalakuntzen mantenimendu jardueretan, ingurumen, energia-kontrola, fatxada eta monumentuak zaharberritzea eta obretan sartzten da.

<sup>202</sup> Hauen artean, UNIÓN INTERNACIONAL DE LIMPIEZA, S.A. enpresa gailentzen da EULEN efektuaren ondorioz %3,92 pisu erlatiboa ordezkatzeko duen 41,9 milioi eurotako sarrerak dituen.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarrerren kopurua 152,7 milioi eurotakoa da zeinak IOTen ekoizpen kopuruaren proportzio oso mugatua suposatzen duen (2004 urtean %13,5). Zentzu honetan, sektorearen zati oso txiki bat estaltzen du.

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak kontzentrazio-indize baxua aurkezten du (HHI: 227). Haatik, hezkuntza zerbitzuearen izaera «esportatu ezinak», barne eskariaren estaldura oso altuak (BEE %100) azaltzen ditu eta azpisektore «berdea» dela kontsideratzera daramatza kontzentrazio falta nahiko nabaria denean.




Lehenengo bost enpresek %26,61eko pisu erlatiboa dute eta lehenengo 10 enpresak %39,47 eskuratuko lukete ustiapen sarrerren arabera eta datu-baseko laginarekin bat. HHIren balioak 44 enpresen balioidea den zenbakia ematen du (denak berdinak izango balira).

Talde honen barruan, lehia bereizgarriaren ezaugarriak dituzten jardueren segmentuak aurkitu litezkeela aipatu behar da, hala nola, autoeskolen kasua.

**85. TALDEA. Albaitaritzza eta osasun jarduerak, gizarte-zerbitzuak,** EAEko IOTen 93. atalarekin, Merkatuko Osasuna eta 95. atalarekin, Merkatuko gizarte-zerbitzuak erlazionatzen da.

85. taldean barneratutako azpisektoreen ezberdintasunak direla eta, banatutako analisiak egiten dira.



Hortaz, **851 azpisektorea, Osasun jarduerak**, 93. atalari dagokio gutxi gora-behera, Merkatuko Osasuna. 2004. urtean, EAEan 838,8 milioi eurotako ekoizpena suposatu zuen non hospital, mediku, odontologia eta beste jarduera batzuk barneratzen diren.

EAEko datu-basean jasotako 277 enpresek, 217,5 milioi eurotako ustiapen sarreak batzen dituzte, lehen aipatutako ekoizpen guztiaren %25 soilik. Beraz, adierazgarria ez den lagina da. Eremu honetako jardueraren zati handi bat autonomoak diren profesionalak garatzen dute. Era berean, estatuko edo egoitza atzerrian duten baina EAEn lan egiten duten nazioarteko osasun frankiziak geroz eta garrantzitsuagoak dira.<sup>203</sup>

Nahiz eta lagina ez adierazgarria izan, 2004 urterako kontzentrazio-indize mugatua nabarmentzen da (HHI: 452). Oso zatikatuta dagoen sektorea da non hiru enpresa ertain izan ezik, gainontzekoak enpresa txikiak eta mikroenpresak diren.


**852 azpisektorea, Albaitaritza jarduerak**, ez du EAEko IOTen atalekiko erlaziorik. Datu-basean soilik 13 enpresa jasotzen ditu, denak enpresa txiki eta mikroenpresak direlarik eta 4,2 milioi eurotako ustiapen sarrera urriak dituzte.

Bi enpresa gailentzen dira, ABELTZAIN SOC. COOP. LTDA. DE SERVICIOS VETERINARIOS eta CENTRO CLÍNICO VETERINARIO INDAUCHU, S.L., ustiapen sarrerekiko merkatu kuotaren %50 eskuratzen dute. Nahiz eta kontzentrazio-indizeak ia muga altua ukitzen duen (HHI: 1.711) datu hau adierazga-

<sup>203</sup> Bestalde, osasun eremuan OSAKIDETZA sare publikoak emandako zerbitzuak ere kontuan hartzen dira, kasu askotan erakunde pribatuen lehia delarik.

rria ez dela kontsideratzen da, jarduera hau, aurreko epigrafekoak lez, autonomo ugarik garatzen baitute.

**Azkenik, 853 azpisektorea, Merkatuko gizarte-zerbitzuak**, EAEko IOTen 95. atalarekin alderatu daiteke, Merkatuko gizarte-zerbitzuak. EAEan 217,8 milioi eurotako kopuru totala suposatu zuen, geroz eta gizarte-zerbitzuen (hirugarren adinakoen, haurren, baztertutako taldeen ezinduen, e.a. en laguntza) kontzientziario eta eskari handigoak motibatutako joera hazkor garbia zuelarik.<sup>204</sup>



Nahiz eta lagin adierazgarria izan, gizarte-zerbitzuaren eskaintza jardueratzat duten baina ikerketa honetako beste epigrafe batzuetan agertzen diren enpresak falta dira, adibidez TALLER USOA LANTEGIA, S.A.<sup>205</sup> 18 TALDEAN barnerratu dena, Jantzigintza eta larrugintza eta 4,882 milioi eurotako ustiapen sarrerak dituen edo LANTEGI BATUAK<sup>206</sup> 2000. urtean 45 TALDEAN, Eraikuntza, barnerratu zena eta 27,760 milioi eurotako kopurua zuena. Gizarte-zerbitzu azpisektorean nabarmenak diren enpresak dira. Beraien oinarritzko jarduera ezgaituak

<sup>204</sup> Zentzu honetan, jaso ez diren eta askotan erakunde pribatuekin lehiatzen duten zerbitzu publikoek eskaintako gizarte-zerbitzuak ere kontuan izan behar dira ikerketa honetan.

<sup>205</sup> Bizkaian babestutako lantokia da, bere eginbeharra pertsona ezgaien gizarteratzea laguntzen duten lan aukera iraunkor eta normalizatuak eskaintzea da. Bere jarduera eremuak, irudi eta lan jantzien jantzigintza, NBE merkaturatzea, lorezaintza lan integralak, publizitate zuzena eta banaketa, digitalizazio eta artxiboa, garbiketa integralaren zerbitzuak eta ekoizpen prozesuen azpikontratazioa dira.

<sup>206</sup> Bizkaiko 18 lantokietan 2000 pertsonen baino gehiagok lan egiten duten erakundea da, bai garbiketa zerbitzuak, lorezaintza eta publizitate zuzena eskaintzen duten instituzioentzako nahiz muntatze elektriko eta elektroniko, mekanizazio eta muntaia, garbiketa, etab. eskaintzen duten enpresentzako hain zuzen ere.

gizarteratzea da, hauek lan merkatuan barneratuz. Guzti hau lortzeko, jarduera ezberdin asko garatzen dituzte eta askotan, langile eta ustiapen sarrera kopuru oso altuak eskaintzen dituzte.

Datu-baseko lehenengo tokian nabarmenki TALLERES PROTEGIDOS GUREAK, S.A.<sup>207</sup> kokatzen da, zeinak 2004 urtean 71 milioi eurotako ustiapen sarrerak zituena, hau da, %46,37ko merkatu kuota. Gainontzeko enpresak txikiak dira eta mikroenpresa anitz daude (ia %90).

Datu-basean TALLERES PROTEGIDOS GUREAK, S.A. barneratzeak eta nahiz eta pixka bat txikiagoak diren baina antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk ez barneratzeak, kontzentrazio-indize altu bat dakar (HHI: 2.245). Lagin hau kontuan izanik, jarduera «laranja» izango litzateke. Haatik, arrisku-zeinuak aipatu-tako ezaugarrien arabera zehaztu behar direla estimatu behar da. Kontuan izan beharreko tamaina duten erakundeen presentzia izan ezik, gehiengoa jarduera oso zehatzak dituzten erakunde oso txikiak dira. Era berean, epigrafe honetan kontuan hartu ez diren erakunde publikoek egindako gizarte-zerbitzuen aurkezpenak, eskaintza nabarmenki handitzen dute. Eboluzio demografikoak eta gizarte-arazoaren jabetzeak, sektorean sartzen ari diren potentzien negozio aukera handi bat sortzen dute.

**90. TALDEA. Saneamendu publikoko jarduerak,** EAeko IOTen 97. atalarekin erlazionatzen da, Saneamendu publikoa.


Ingurumen agintarien ikuskapenaren bitartez erregulatutako sektorea da. Sektorean nolabaiteko tradizioa duten enpresak eta batzutan, kapital publikoaren partaidetzaz sendotutako erakunde-erlazio zabalak dituzten enpresak barneratzen ditu.

Hasiera batean, tamainaz nahikoa den banaketa egitura eskuratzen du, nahiz eta punta-puntakoa den enpresa nabarmenak beharrezko dela dirudien, CESPACON-TEN, S.A., zeinak nolabaiteko kontzentrazio egitura bultzatzen duen %29,72ko pisu erlatibo duen.<sup>208</sup> Enpresa nagusiaren aipamena egin ondoren, bere egiturak nolabaiteko oreka duela eta nahiz eta enpresa handien ausentzia izan, banaketa egokia duela esan daiteke. Hamaika ETEz osatuta dago (bost enpresa ertain, 12 enpresa txiki eta 41 mikroenpresa). Laginean 58 enpresa jaso dira.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreraren kopurua 159,9 milioi eurotako da eta honek IOTen ekoizpen kopuruaren neurrizko proportzioa suposatzen du (2004 urtean %58,77).

<sup>207</sup> GUREAK 1975. urtean sortu zen ATZEGIK egindako proposamenaren ondorioz. Ezgaitasun intelektuala dituzten pertsonen aldeko asoziazioa gipuzkoarra da. Bere lehen helburua, lanbarneratzearen bidez ezgaiak diren pertsonak guztiz gizarteratzea da. 3.500 pertsona inguru enplegatzen ditu. Bere jarduerak anitzak dira: automozioa, industria-zerbitzuak, elektromekanika ekipoa, laguntza-zerbitzuak, marketing, etab.

<sup>208</sup> ZABALGARBI, S.A., sozietatea jasaten ari den pisu erlatiboaren hazkundeak, 2005 urtean %14,69 arte zabaltzen denak, kontzentrazio-indizeen handitzeko joera bultzatzen du. Sozietate honek 2004. urtean %0,85ko pisua soilik adierazten zuela aipatu behar da.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE
1.186	%58,73	%75,73	8	%100

Ohiko irizpideak kontuan izanik, «horia» den sektorea dela esan daiteke. EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, neurrizko kontzentrazio-indizea eskaitzen du. Haatik, saneamendu publikoak nekez esportatu daitekeen izaera izateak barne eskariaren estaldura maila altuen zergatia azaltzen du eta aipatutako kontzentrazio maila azpimarratzen du. Jarduera honetan ez da enpresa kopuru handi barneratzen, ETEak gailentzen dira eta merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAEa bera da, guztiz zerbitzu autoktono baten ondorioz.

**91. TALDEA. Jarduera asoziatiboak**, non enpresa, profesional eta ugazaben erakundeen, sindikatu eta erakunde politiko-erligiosoen edo bestelako enpresak barneratzen diren. EAEko IOTen 98. atalari dagokio gutxi gorabehera. Euskal enpresen datu-baseak EAEko fakturazio osoaren %4 soilik eskuratzen duten 22 elkarte bakarrik barneratzen ditu. Beraz, adierazgarria ez den lagina da.


**92. TALDEA. Jolas, kultura eta kirol jarduerak**, hurrengo azpisektoreak barneratzen ditu: 921, Zinema eta bideo jarduerak, 922, Irrati eta telebista jarduerak, 923, Beste jarduerak artistiko eta ikuskizun batzuk, 924, Albiste-agentzien jarduerak, 925, Liburutegi, artxibo, museo eta beste kultur-erakunde batzuen jarduerak, 926, Kirol-jarduerak, eta 927, Jolas jarduerak ezberdinak.

Talde hau EAEko IOTen 99. atalarekin erlazionatzen da, Jolas eta kultur jarduerak.



Datu-baseko bostehun enpresa inguru pilatzen dituen (567 enpresa) eta 2004 urterako 579,9 milioi eurotako sarreraren bolumena duen talde sektorial nahiko heterogeneoa da. Orokorrean, sektoreko egiturak banaketa egokia du non enpresa handi bat, zazpi enpresa ertain, 27 enpresa txiki eta 532 mikroenpresa aurki daitezkeen. Laginak 567 enpresa barneratzen dituelarik.

Datu-basearen adierazgarritasuna, dagokion sektore-atalari dagokionez, nahikoa dela esan daiteke IOTen ekoizpen kopuruen neurrizko proportzioa (2004 urtean %52,15) suposatzen baitu. Zentzu honetan, laginak EAEko sektorearen gehien-goia estaltzen du.





Esportazio urri eta inportazio hazkor batzuen ondorioz sortutako sektorearen irekiz maila baxua ematen da (KIM %17,34). EAetik kanpo sektore bereko merkatal fluxu baxua sortzen da eta beraz, barne eskariaren estaldura maila altua (BEE %86,75). Guzti honek, orokorrean, adierazgarria den merkatuak ikuspegi geografikotik EAEaren dimentsiorako zehazten dela adierazten du, zerbitzu autoktono nabariaren ondorioz. Edozein kasutan, nahiz eta datu hauek atal osoari erreferentzia egiten dioten, sektore bakoitzaren zehaztasunek lehia-maila ezberdinak eskaintzen dituzte eta beraz, kontzentrazio-indizeen bereizitako analisia<sup>209</sup> egiten da.

Lehenik, bi azpisektoreek (921, Zinema eta bideo jarduerak eta 927 Jolas jarduera ezberdinak) kontzentrazio-indize baxuak eskaintzen dituzte (HHI 298 eta 419, hurrenez hurren). Hala ere, barne eskariaren estaldura maila altua iza-


<sup>209</sup> 924 azpisektoreari dagokionez, Albiste-agentzien jarduerak, laginak adierazgarriak ez diren emaitzak sortzen ditu hiru mikroenpresa soilik barneratzen baititu.

teak, azpisektore «berdeak» direla kontsideratzera bultzatzen du. Enpresa asko barneratzen dituen zatikako azpisektorea da non mikroenpresak gailentzen diren. 921. azpisektorearen kasuan, Zinema eta bideo jarduerak, enpresa guztiak txikiak (14) edo mikroenpresak (114) dira. 927. azpisektorearen kasuan berriz, Jolas jarduera ezberdinak, lau enpresa ertain daude (denak ausazko jokoekin erlazioa dutelarik: bi kasino eta bi bingo), 17 enpresa txiki eta 112 mikroenpresa.



Edozein kasutan, azpisektore hautako arrisku eza nabarmendu behar da.<sup>210</sup>


Bigarrenik, **923 azpisektoreak, Beste jarduera artistiko eta ikuskizun batzuk, eta 925 azpisektoreak, Ligurtegi, atxibo, museo eta beste kultur-erakundu batzuen jarduerak**, neurrizko kontzentrazio-indizeak eskaintzen dituzte (HHI 1.142 eta 1.046, hurrenez hurren) zeinak barne eskariaren estaldura altuarekin batera, azpisektore «berdeak» direla kontsideratzera daramatzen. Jarduera hauetan ETEak soilik daude eta gailentzen den enpresa mota mikroenpresa da. 923 azpisektorearen kasuan, Beste jarduera artistiko eta ikuskizun batzuk, enpresa ertain bat aurki dezakegu (BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A.), hiru enpresa txiki eta 127 mikroenpresa. 925. azpisektorearen kasuan berriz, Liburtegi, atxibo, museo eta beste kultur-erakundu batzuen jarduerak, lagina osatzen duten 18 enpresak mikroenpresak dira.



Hirugarrenik, **926 azpisektorearen, Kirol jarduerak**, kontzentrazio-indize altuak, barne eskariaren estaldura maila altuarekin batera, azpisektorea «laranja» dela kontsideratzera bultzatzen du. ETEek osatzen duten eta mikroenpresak gailentzen diren sektorea da. 2004 urteko sarreraren arabera %44,38ko pisu erlatiboa duen REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, SAD enpresa ertaina nabarmen-

<sup>210</sup> Hori dela eta, filme banaketa merkatuari dagokionez, orokorrean negoziaketa botere esanguratsua duten hornitzaileak dira emanaldien banatzaileak. Erakusle eta banatzaileen arteko negoziaketetan, filme emanaldia ezarriko den pantaila kopurua garrantzi handiko elementua da. Filmeen banaketa merkatuak tokiko eremua du normalean, zinema baten eragin eremua ikus-entzule batek bertara iristeko behar duen denborari lotu daitekeelarik. Era berean, zinema emanaldiaren sektoreak al-daketa handia jasan duela aipatu behar da.


tzen da eta honekin batera, bost enpresa txiki eta 104 mikroenpresek osatzen dute azpisektorea. Kontzentrazio-indize altuak, kirol profesionalari lotutako Kirol Sozietate Anonimo berezien (KSA)<sup>211</sup> existentziak azaltzen ditu. Kasu honetan, datu-baseko lehenengo hiru lekuak hurrengoek eskuratzen dituzte: Donostiako futbol-taldeari Gasteizeko taldea, DEPORTIVO ALAVÉS, SAD, gehitzen zaio, eta Gasteizeko saskibaloit taldearekin batera, ACBri dagokion SASKI BASKONIA, SAD. Hiru taldeen artean, %58,22ko pisu erlatiboa eskuratzen dutelarik.



Azkenik, **922 azpisektoreak, Irrati eta telebista jarduerak**, duen kontzentrazio-indize altuak (HHI 5.680) eta barne eskariaren estaldura maila altuak azpisektore «gorria» dela kontsideratzera bideratzen gaituzte. Azpisektore honetan, enpresa handi bat, enpresa ertain bat (lehenengoarekin lotura duena), bi enpresa txiki eta 41 mikroenpresa aurki ditzakegu. Lagina 45 enpresek osatzen dutelarik. Haatik, adierazle hau zehaztu egin behar da. Izan ere, euskal eragileen artean, EITB Taldeak bere bi sozietate nagusien bidez (EUSKAL TELEBISTA TELEVISIÓN VASCA, S.A. y EUSKO IRRATIA RADIODIFUSIÓN VASCA, S.A.) lidergo ab-

<sup>211</sup> Laginako datu-basean EAEko historia eta bazkide gehien dituen kirol-erakundearen, ATHLETIC CLUB DE BILBAO, ausentzia azpimarratzekoa da. KSAek, 1990eko Kirol Lege-erreforma dute jatorritzat. Lehenengo eta behin, kirol profesionala (futboleko 1go eta 2. mailak eta saskibaloiko ACB liga) eta ez profesionala ezberdindu ziren eta ondoren, erreforma arteko denboran taldearen kudeaketa ekonomiko egokia erakutsi ez zuten taldeei irteera bat eskaini zitzaizen; sozietate anonimo berezi bat sortzeko aukera, kirol sozietate anonimoa. Aldiz, ekonomikoki garbi zeuden taldeei beraien egitura juridikoa eta antolaketa Kirol Talde bezela mantentzeko aukera eman zitzaizen. Hori egin zuten Athletic Club de Bilbao, Futbol Club Barcelona, Real Madrid eta Atletico Osasun taldeek.

solutua du. 2004 urtean laginaren %84,72 pisu erlatiboa pilatu zuelarik. Aldiz, nazioko eremuan hedabide hauetan jarduten duten enpresa nagusiek ere (Televisión Española, Antena 3, Tele 5, Cuatro edo Sexta telebista arloan eta SER, RNE edo Onda Cero irratiaren<sup>212</sup>) EAEan jarduera garrantzitsua dute. Egoera honek, lehenagotik lortutako kontzentrazio-indizeak arindu egiten ditu, batez ere, datu-basean agertzen ez diren sozietateen eragin bateratua kontuan izanik.



Funtsean, jolas, kultura eta kirol jarduera bezelako jarduera zehatzekin erlazioa duten azpisektore ugari dituen sektore-taldea da. Ikerketa honetan egindako analisiak ez du lehia-arazorik aurkitu, batez ere bere zatikako izaera dela eta baina ezin da ziurtasunez baieztatu arazo hauek zenbait segmentu edo egoeretan existitzen ez direnik.


**93. TALDEA. Zerbitzu pertsonalen jarduera ezberdinak**, tamainaz oso banaketa egokia duen sektorearen egitura oso lehiakorra eskaintzen du, arazorik gabeko lehia-egiturari tokia uzten diolarik. EAeko IOTen 100. atalarekin erlazionatzen da, Zerbitzu pertsonalak.

Enpresa anitz dituen jarduera da non ETEak modu absolutuan gailentzen diren eta zerbitzu pertsonalen prestazioaren zatikako sektorearen egiturari erantzuten dioen. Merkatu adierazgarria ikuspuntu geografikotik EAeren dimentsioan zehazten da, zerbitzu autoktono altu baten ondorioz. Bere egitura orekatua dela esan daiteke eta nahiz eta enpresa handien ausentzia izan, banaketa egokia duela. ETE

<sup>212</sup> EITB Irrati Taldeak 2004 urtean entzuleen lidergoa (CIES) eskuratu zuen aurreko liderra (SER Taldea) gailenduz eta ordutik diferentzia nabarmena mantenduz.

ugariz osatuta dago (enpresa ertain bat,<sup>213</sup> 18 enpresa txiki eta 248 mikroenpresa). Laginak 267 enpresa barneratzen dituelarik.

Sektoreko enpresen datu-basearen adierazgarritasunari dagokionez, 2004 urterako ustiapen sarreren kopurua 141,8 milioi eurotakoa da zeinak IOTen ekoizpen kopuruaren proportzio moderatua suposatzen duen (2004. urtean %43,2koa). Zentzu honetan, laginak ez du sektorearen erdia estaltzen, jarduera hau eskaintzeko forma juridiko ez sozietarioen erabilpena dela eta.



Aztertutako indizeek hurrengo emaitzak dituzte:

HHI	K5	K10	EBZ	BEE
241	%25,91	%39,11	41	%86,75

EAEko enpresetara mugatutako sektoreak, kontzentrazio-indize baxua aurkezten du. Haatik, zerbitzu pertsonalen prestazioaren nekez esportagarria den izaerak barne eskariaren estaldura maila oso altuak azaltzen ditu eta azpisektorea «berdea» dela kontsideratzera daramatza kontzentrazioaren ausentzia nahiko garbia den kasuetan.

<sup>213</sup> INDUSAL, S.A. enpresa da liderra eta 2004 urtean %9,19ko pisu erlatiboa zuen.

# 4

## SINTESIA ETA ONDORIOAK





## 4. SINTESIA ETA ONDORIOAK

Ikerketaren helburua, lehia eta arrisku eremu posibleak antzematearekin zerikusia duen Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera bat azaltzea da. Lan hipotesi gisa, «zalantza metodologikoa» hartzen da, sektore ezberdinetako enpresa egituraren kontzentrazioarekin eta lehiarako sektore-arriskuen matrizearen bitartez merkatu estaldura mailekin erlazioan jartzen delarik.

Behin estatistika eta enpresa analisiak eta sektore ezberdinen ebaluaketak egin ondoren, hurrengo lerroetan modu laburrean «Euskal Autonomia Erkidegoko Lehia-Egoerari» buruzko, ondorio eta hausnarketa nagusiak, eta sektoreko baloraketak aurkezten dira.

### 4.1. Espainiaren EAEko ondasunen prezioei dagokien maila ezberdinetan ez dira ez diferentzia positibo ez negatibo esanguratsuak existitzen

Banakako kontzeptu eta errubriketan salbuespenak erregistratzen dira baina ez dirudi eredu edo patroi esanguratsurik existitzen denik prezio-indizeen eboluzio bideetan.

### 4.2. «Barne eskariaren estaldura maila» (BEE) altua duten sektoreak atzerriko lehiakideen ausentziaren ondorioz bereizten dira, zeina arriskua estimatzeko faktoretzat har daitekeen nahiz eta erlatiboki mugatutako kontzentrazio mailak izan

Enpresen eta tokiko eta eskualdeko merkatuen arteko lotura hau sortzen duten zergati nagusienak ondorengoak dira:

- a) Zerbitzu sektoreen berezko ezaugarriak (nekez esportatu daitekeen izaera).
- b) Tokiko edo eskualdeko izaera zehatza duten merkatu geografikoak (zatikako eta segmentu izaera).
- c) Monopolio espazialak.

Zerbitzu sektoreak, orokorrean, beraien izaeraren ondorioz, BEE balio altuak izaten dituzte eta honek, matrizean arrisku gehien dagoen eremuetan kokatu beharra zehazten du. Kasu honetan zerbitzu sektoreek baldintza bereziak<sup>214</sup> dituztela kontuan izan behar den aspektua da. Baldintza hauek, sektoreko irekitze maila (KIM) eta barne eskariaren estalduraren (BEE) gain eragina dute, zerbitzua errez «esportatu» edo «inportatu» daitekeena ez baita. Beraz, zerbitzu sektoreen ireki-

<sup>214</sup> Zerbitzuak produktuetatik bereizten dira, ez soilik ezaugarri fisikoei dagokionez (ukiezintasuna, ekoizpen eta kontsumoaren aldibereotasuna, amenera izaera) baizik eta ekoizpen eta emale metodoei dagokienez ere.


tze mailak (KIM) 0 izateko joera izan ohi du eta eskariaren estaldura mailak (BEE) berriz, 100 izateko joera, ondorioz, lehiaren matrize edo semaforoaren barruan arrisku maila altuena duten aldean kokatu behar dira.

Jarraian, sektore-arriskuen matrize edo semaforoa aurkezten da. Horretarako, EAEn kokatzen ez diren enpresen kanpo lehiaren presio handi edo txikienei dagozkien arrisku faktoreak (barne eskariaren estaldura mailarekin, BEE, alderantzizko moduan erlazionatzen da), eta sektore ezberdinen enpresa kontzentrazio mailak (sektoreko euskal enpresen HHI bidezko hurbilketa) kontuan hartzen dira.

Lehenik, dagozkien grafikoak, ikuspen bateratu bat, eta EAEn kokaturik ez dauden enpresen lehiaketa presio mailaren bidez zehaztutako azpipilaketa sektorialetan egindako ikuskapen zabaldua aurkezten dira:

- 1) barne eskariaren estalduraren maila dela eta bere babespean dauden sektoreak,
- 2) barne eskariaren estaldura maila ertain eta baxuak izatearen ondorioz kanpo disziplinarekiko agerian dauden sektoreak.

4. grafikoa  
Euskal ekonomian lehiantzako sektore-arriskuak




A: Araututako eta Administrazio Publikoek egindako jardunen garrantzitsua duten sektoreak.

B: Altxerian jarduer oso garrantzitsua dituzten eta EAEn bizilekua duten enpresak barneratzen ondorioz sortutako gamekatze eragin garrantzitsua.

C: Ez ditu EAEn jarduer oso garrantzitsua dituzten baina bizilekua bertan ez duten enprek jasotzen.

5. grafikoa

Kanpo lehia gehien babestutako sektoreetan dauden sektore-arrikuak  
(BEE > 0,70)



Famaziazio produktu eta beste batzuen biziklako merkataritza  
Txizkako bankua  
Zerbitzu teknikoak, saiakerak eta analisi teknikoak  
Ikerketa eta segurtasun zerbitzuak  
Garbiketa industrialen jarduerak  
Saneamendu publikoko jarduerak

523.0  
650.0  
742.0  
746.0  
747.0  
900.0

Biriklapena  
Energia elektrikoa  
Casa eta ur-lurruna  
Ura  
Obren presaketa  
Itxitura egituraren eraikitza, autobideak, obra hidraulikoak eta besteak  
Elkagaiak onarri dituen biziklako banaketa

370.0  
401.0  
402.0  
410.0  
451.0  
452.2  
521.0

A: Araututako eta Administrazio Publikoek egindako jarraipen garrantzitsua duten sektoreak.  
B: Atzerian jarduera oso garrantzitsua dituzten eta EAEn biziklaria duten enpresak barneartzearen ondorioz sortutako gamekatze eragin garrantzitsua.  
C: Ez ditu EAEn jarduerara oso garrantzitsua dituzten baina biziklaria bertan ez duten eragileak jasotzen.



#### 4.3. Kontzentrazio-indize altuak eta barne eskariaren estaldura maila altuak (tradizioz, 0,7 edo %70eko balioak kontsideratzen dira) elkartzen dituzten sektoreek arrisku maila altuenak dituzte

Hasiera batean, **Sektore Gorri eta Laranja** bezela sailkatzen dira. Haatik, sektore hauetako arrisku gehiengoak zehaztagarriak eta aringarriak dira. Sektore arriskuen matrizean bertan arrisku balioaren arintasun edo gutxitze kausa nagusiak letren bidez (A,B,C) edo asterisko adierazleen bidez zehazten dira.

Orokorrean, sektore hauen arriskugarritasun altuaren sailkapena azaldu edo arintzen duten egoera edo inguruabar nagusiak hurrengoak dira:

- A) Orokorrean nolabaiteko arrisku eremuan kokatzen diren araututako sektoreak edo kontzentrazio altuaren kausa-efektu diren Administrazio Publikoen emakiden bidez araututakoak (230, Petrolio finketa, 370, Birziklapena, 401, Energia elektrikoa, 402, Gas eta ur-lurruna, 41, Ura, 601, Tren-garraioa). Normalean, gainera, kontzentrazio-indize (HHI) altuak aurkezten dituzte eta honi eremu geografiko zehaztetan bere arautegi propioan oso zehaztutako jarduerak direla gehitzen badiogu eta beraz, barne eskariaren estaldura (BEE) maila altua duela, guzti honek matrizearen eremu hauetan kokatzearen arrazoia azaltzen du.
- B) Beraien sarrerek EAEko merkatuko lurraldetasuna gaintitzen duten eta euskal enpresak dituzten sektoreak dira (1598, Alkoholik gabeko edariak, 230, Petrolio finketa, 251, Kautxu eta pneumatikoak, 297, Etxeko tresnak, 370, Birziklapena, 401, Energia elektrikoa, 521, Elikagaian oinarritutako txikizkako banaketa, 747, Garbiketa industrialen jarduerak).
- C) Laginak barneratzen ez dituen euskal eragileak ez diren baina euskal merkaturan partaidetza adierazgarria duten sektoreak dira (251, Kautxu eta pneumatikoak, 401, Energia elektrikoa, 402, Gasa eta ur-lurruna, 521, Elikagaian oinarritutako txikizkako banaketa, 601, Tren-garraioa).

Arrisku matrizearen emaitza guztiak interpretatzerako garaian, inguruabar guzti hauek kontuan izan behar dira. Hala ere, hurrengo lerroetan eremu honetako sektoreen aipamen labur bat egiten da:

- 230 sektorea, Petrolio finketa: PETRONOR efektuaren eragina. Merkaturu adierazgarria gutxienez estatu eremuko da non garraio eta zuhurtasun estrategikoarentzako araututako konpainia batek COMPANÍA LOGÍSTICA DE HIDROCARBUROS, S.A. (CLH, S.A.), Espainian kokatutako petrolio enpresa handien botereari aurre egin behar dioen. Txikizkako eremuan, EAEko erregaien prezioek ez dute Estatuko prezioekiko aldaketa esanguratsurik aurkezten.
- 401 sektorea, Energia elektrikoa: Arazoak, sortze eta merkaturatze eta banaketan monopolio naturala (araututakoa) duten merkatu elektrikoei dagozkienak dira. Kontzentrazio-indizea ez da adierazgarria, merkatu adierazgarria estatukoa baita eta gainontzeko Estatuko eragileak falta baitira. IBERDROLA efektua gainbaloratuta dago bere jarduera eremu geografikoaren ondorioz.

- 159.8 sektorea, Alkoholik gabeko edariak: Egitura oso kontzentratua duen sektorea da, praktikoki duopolioa osatzen dute PEPSI eta COCA COLA taldeek. Bi konpainiek banaketa fasean duten jarduteko modua antzekoa da beraz, baten pisu nagusiak ez du bestearen beharrezko kontrola baztertzen. Merkatu adierazgarriak ikuspegi geografikotik EA Eren dimentsioa gainditzeko joera du, batez ere eskaintzaren perspektibatik. Baina sektore barruan bi enpresa hauek duten pisu ikaragarriak balio kate erantsiaren negoziaketa boterearekin zerikusia duten faktore guztietan indar positio jakin bat izatea aurrez dakar.
- 402 sektorea, Gasa eta ur-lurruna, energia elektrikoaren antzeko egoera du, liberalizatutako gas merkaturatzea eta banaketa monopolio naturala (araututakoa) duelarik.
- 265.1 sektorea Porlan-industria: Azpisektorean kontzentrazio indartsu bat ikus daiteke, Estatu eremuko oligopolio egiturarekin bat egiten duelarik. Inportazio eta esportazioak oso urriak dira, jarduera beraren berezitasun eta porlanaren sektoreak dituen ezaugarri bereziak direla eta, gainera sarrera hesi garrantzitsuak ditu. Egindako sailkapenean sektore hau «gorria» da
- 370 sektorea, Birziklapena: Zati handi batean enpresa handi baten (BEFESA) «gainezkatze efektuaren» ondorio den kontzentrazio altua eskaintzen du. Bestalde, sektoreko arriskuak arindu egiten dira neurri handi batean agintari publikoek betetzen duten paperaren ondorioz, hauek arautzaileak, gainbegiraleak eta bezeroak baitira.
- 410 sektorea, Ura: Kontzentrazio maila garrantzitsua du baina Administrazio Publikoak bezero izanez eta kasu askotan ematen diren emakida araubideek zerbitzu hauetan ematen diren kontzentrazioetatik eratorritzen diren arriskuak murrizten dituzte.
- 251 sektorea, Kautxu eta pneumatikoak: HHI azpimarratutako oligopolio izaera eta europar izaera duen merkatu adierazgarrian jarduten duen enpresa oso handi baten ondorioz baldintzatuta dago. Europako eremuko lehia arazoak alde batera utziaz, EAE eremuan badirudi ez direla arazo zehatzak agertzen. Hori dela eta, HHI handitu egiten da, analisisian jasotzen den moduan. Gainontzeko taldea, hiru enpresa ertainek eta enpresa txiki eta mikroenpresa ugari osatzen dute non bere enpresa egiturak lehiarako funtsezko arrisku joerarik ez duela dirudien.
- 747 sektorea, Garbiketa industrialen jarduerak: sektoreak enpresa egitura lehiakorra du. HHI enpresa baten<sup>215</sup> gainezkatze efektuaren ondorioz, neurrigabe igotzen da. «Atzerantz egiteko» efektu posibleak salbu, lehia eremuan ez dirudi arrisku nabaririk agertzen denik.
- 521 sektorea, Elikagaien oinarritutako txikizkako banaketa: kontzentrazio maila altua eta txikizkako kate handietan merkatu botere handia duen sektorea da. Txikizkako kateen negoziaketa botere handiek eta erosketak plataformek duten «atzerantz egite» eraginak hornitzaileei presioa sortzen die. Kontzentrazioak eta tamaina handiagoa duten espazio-kokapenek kontsumitzaileengain eragin

<sup>215</sup> EULEN, dibertsifikatutako eta nazioartekotutakoa, bere jarduerak EA Eko lurralde eremua eta sektorea eta gainontzeko Estatuak gaintzen duelarik.

negatiboa izan dezakete. Kontzentrazio analisi sinpleek zantzu bidezko balorazioak soilik onartzen dituzte, baina elikagaien prezioen eboluzio berria, sektoreko arrisku izaera indartzen duen beste adierazle bat da.

- 523 sektorea, Farmaziako produktuen txikizkako merkataritza: sarrera hesi garrantzitsuak dituen araututako sektorea da.

#### 4.4. Barne eskariaren estaldura altua eta kontzentrazio neurritzkoa edo baxua duten sektoreak, sektore horia eta berdea kontsideratu dira hurrenez hurren

**4.4.1. Kontzentrazio maila neurritzkoa duten sektoreak hori mailakoak kontsideratzen dira** (HHI kontzentrazio-indizea 1.000 eta 1.800 puntu artean dutenak) non barne eskariaren estaldura maila altua arazoan jatorri izan daitekeen, dagoeneko aipatutako kanpo lehiaren ondorioz edo merkatuen tokiko edo eskualdeko izaera azpimarratuaren ondorioz. Hurrengo sektoreen kasua da:

- 650 sektorea, Txikizkako bankua: tokiko prestazio zerbitzuen izaera, kasu askotan, txikizkako bankuaren zenbait negozio-lineatan, sektoreak nolabaiteko lehia arriskuak aurkezten ditu. Haatik, operatzaile kopuru oso altua duen jardura bat da eta azken urteetan operatzaile berriak sartzen ari dira bertan.
- 900 sektorea, Saneamendu publikoa: Administrazio Publiko arautzaile eta bezeroen presentziak sektoreko arrisku maila aritzen du, uraren kasuaren antzera, nahiz eta kontzentrazio maila txikiagoa izan.
- 746 sektorea, Ikerketa eta segurtasuna: gainezkatzeko efektuak sortzen diren zerbitzu sektore bat da. Lehenengo bi enpresak SABICO SEGURIDAD, S.A. eta PROTECCIÓN Y SEGURIDAD TÉCNICA, S.A. dira. Beraien jardura Estatu osoan zehar garatzen dute beraz, erlatiboki altua den (HHI 1560) kontzentrazio-indizea ez da bereziki arazotsua. Sektorean EAetik kanpo beraien egoitza duten eta laginean beraien datuak jasotzen ez diren (IOTen ekoizpen kopuruaren %70en ustiapen sarrerak) beste enpresa askok jarduten dute, beraz, sektore horiaren arriskugarritasuna pixka bat arinduta geratzen da.
- 159.1 sektorea, Edari alkoholodunak: ardoak dira sektoreko zati nagusia. Barne Eskariaren Estaldura mailak, EAEko produktuen lehentasun nabarmenen presentzia adierazten du. Haatik, ardo merkatuetako lehia-egoera eta lehia hazkorriari aurre egiteko ustiapenen dimentsioen sendotzearen beharrek, sektoreko arrisku hipotetikoak modu esanguratsuan arintzen dituztela dirudi.

**4.4.2. BEE altua eta kontzentrazio mugatua duten sektoreak: Sektore berdeak dira**, tokiko merkatuarekin duten lotura maila indartsua eta kanpo lehiaren presio mugatuaren bidez nahiz eta enpresa txiki ugari izan, lehiarako arriskuak planteatzen dira (zatikako sektoreetan barne) merkatuko zenbait segmentuetan dauden hesien ondorioz (herri-lanak), elkartegintza maila garrantzitsu baten ondorioz edo jokabide paraleloak sortu ditzaketen komunikazio eta zeinuen interpretazio erreza-aren ondorioz. Arrisku maila honetan hurrengo sektoreak barneratzen dira:

- 452 sektorea, Itxitura egituren eraikuntzak, autobideak, obra hidraulikoak eta besteak: Herri-lanak barneratzen ditu nahiz eta EAEkoak ez diren operatzaileak ez jaso, sektore publikoan kontratatzeak dituen hesietatik ondoriozta-



tzen den arriskua barneratzen du. 452.2 azpisektoreak, Eraikuntza, zatikako egitura du. Hala ere, herri-lan sektorean dauden lehiaketetan sartzeko zailtasun eta lehiatzeko gaitasuna duten enpresa kopuru murriztua dela eta, azterlan zehatzago bat egitea beharrezkoa da.

- 451 sektorea, Obren prestaketa, eta 455, Ekipamendu akura. Nahiz eta tokiko merkatura zuzendutako sektoreak izan, lehia arazorik planteatzen ez duten sektoreak dirudite.
- 275 sektorea, Galdaketa: enpresa egitura lehiakorra du. Gailentzen den enpresa handi bat, eta enpresa txiki eta mikroenpresa ugari barneratzen ditu. Industria bezeroen ezagupenak eta enpresa txiki eta mikroenpresa ugari izatearen ondorioz sarrera hesi garrantzitsuen irizpenik ez izateak, arriskuaren gutxitzea eman ahal izateko faktore garrantzitsuak direla dirudite.
- 153 sektorea, Errotaritza: oso zatituta dagoen sektorea da baina azpisektoreak (153.1, okintza adibidez), tokiko eremu txikia duen eskaria eta elkartegintza maila garrantzitsua du.
- 6024 sektorea, Salgaien lurreko garraioa: Sektore hau ez da taulan agertzen bere kontzentrazio-indizea mugatua baita (HHI 290). Haatik, aurrikusi daitekeen moduan, tokiko eta eskualdeko eskariarekin duen lotura estua da eta sektoreko elkartegintza maila altuak jokabide paraleloak bultzatzen ditu. Kasu honetan, bezeroen negoziaketa boteretik eratortzen den faktore gehigarria kontuan izan behar da, bereziki industria enpresen kasuan eta zenbait puntu eta sektore zehatzetan jarduteko baimenetatik eratorritako loturen kasuetan.
- 742 sektorea, Zerbitzu teknikoak: euskal ekonomian hirugarren sektoreko jardueraren garapenarekin batera bere heldutasuna lortzen duen sektorea da. Sektorea enpresa handi batzuk, enpresa ertain batzuk eta enpresa txiki eta mikroenpresa ugari osatzen dute. Kontzentrazio maila erlatiboki baxua da, baina zerbitzuen prestazioaren berehalakotasunak eta berauen izaerak, (askotan, erakunde eta bateragarriak diren beste erakunde batzuk egindako elkartegintza eta ikuskapen maila garrantzitsua jasan behar dituztenen izaerak) sektoreko lehiaren arriskuak eremu berdean kokatzera bultzatzen dute.

#### 4.5. BEE neurrizkoa duten sektoreak kanpo lehiarekiko agerian daude

Hori dela eta, kontzentrazioa altua edo esanguratsua duten kasuetan sektore lan-eremu edo horiak kontsideratzen dira, kontzentratuak ez dauden kasuan zuriak kontsideratzen direlarik.

##### 4.5.1. Sektore lan-eremu edo horiak

- 297 sektorea, Etxeko tresnak: Sektoreko lehiaren izaera europar eta globala den bezala, lehiarentzako ez da garrantzizko arriskua kontsideratzen.
- 353 sektorea, Aireontziak: Bi enpresa handi eta gainontzekoak ETEak dira. Lehiaren nazioarteko izaera eta merkatu adierazgarria dela eta, lehiarentzako ez da garrantzizko arriskua kontsideratzen.
- 601 sektorea, Tren-garraioa: Lehiaren irekitze prozesu bat aurrikusia dagoen araututako sektorea. EAEtik at egoitza duten eragileak ez dira kontuan izan

baina eragileak merkatu adierazgarri ezberdinetan, linea eta zerbitzu ezberdinetan zehazten dira.

- 351.0 sektorea, Itsasontzigtza: Enpresen tamainaren arabera enpresa egitura kontuan izanik, soilik bi enpresa ertain eta gainontzekoak ETEak direla ikusirik eta bezeroen negoziaketa boterea (arrantza-ontziko eta merkataritza-ontziko armadore handiak) nahiz EAEtik at kokatuta dauden fabrikatzaileengana jotzeko aukera kontuan izanik, lehiarentzako arrisku nabaria ez dela kontsideratzen da.
- 152.0 sektorea, Arrain egite eta kontserbagintza: sektore honek duen enpresa egitura dela eta, oso handi ez den enpresa bat, enpresa ertain bat eta gainontzekoak txikiak eta mikroenpresak, eta merkatuaren estatu eta europar izaera kontuan izanik, lehiarentzako nabariak diren arriskurik ez da planteatzen.
- 261 sektorea, Beira: Sektoreko egiturari bi enpresa handi, ertain bat eta gainontzekoak ETEak dira. Enpresa nagusienak beira negozioaren barruan segmentu ezberdinetan espezializatuta daude: elikagaietako ontzikiak, automobil eta beirateria. Merkatu adierazgarriak EAE gainditzen du baina lehiaren jardueramurriztaileen aurrekariak existitzen dira.

#### 4.5.2. Sektore berdeak

Kontzentrazio mugatua duten sektore honetako segmentu gehienak, produktu sektoreak dira non beraien merkatu adierazgarriak EAEn dimentsioa gainditzen duen eta hasiera batean behintzat, ez duen lehia arrisku garrantzitsurik sortzen. 221 sektoreari, Argitalpena, eta berezia den lehen sektoreari 012, Abeltzaintza, dagokie.

### 4.6. BEEn maila baxuaren ondorioz kanpo lehiarekiko oso agerian dauden sektoreek lehia arrisku gutxiago izaten dute

Bere produktuen berezitasunak salbu. Kasu gehienetan, produktuaren merkatu adierazgarriak, EAeko merkatua gainditzen du. Haatik, kasu hauek kontuan izatea merezi du, oligopolio egituren existentziatik eratorritako ondorioengatik, produktuen zenbait ezaugarrien presentziarengatik eta bere negoziaketa boterearen «atzerako» efektuengatik hain zuzen ere. Batez ere zenbait inputen merkatu adierazgarriak tokiko edo eskualdeko izaera duenean, jatorrizko merkatuen gain emandako «atzerako» arriskuak kontuan izan behar dira. Aspektu hau nolabaiteko erakundearen garraio kostuen presentzian garrantzitsua izan daiteke.

- 155 sektorea, Esne-industria: Talde honek esne-industriak nahiz izozki eta postreak barneratzen ditu. Lehenengoa, atal honen hasieran egiten den aipamenaren kasu paradigmaticoa da, prezio-finkatze eta jatorrizko merkatu geografiko ezberdinetan erosketak gurutzatuen aurrekariak dituelarik. Bigarrenak, izozki eta postreen azpisektoreak, banaketa eremuan nolabaiteko merkatu botere arazoa sor lezake (esklusiban banaketa kontratuak, hornitzaile bakarra izatearen truke izozki kutxak muntatzea, etab.) Espainiako merkatuan liderra den enpresa handi baten presentziaren ondorioz.
- 274 sektorea, Burdinezkoa ez den metalurgia: enpresa txiki eta mikroenpresa ugari dituen sektorean erlatiboki handi den enpresa baten presentziaren on-

dorioz, kontzentrazio-indizea handitu egiten da. Produktuen izaera eta barne eskariaren estaldura maila baxua dela eta lehia-arrisku nabaririk ez dagoela dirudi.

- 211 sektorea, Paper-orea: Produktuaren merkatu adierazgarriak EAeko eremu geografikoa gainditzen du eta sektoreak kanpo lehiaren presioa nabari du. Haatik, inputaren merkatuak eskualdeko dimentsio garrantzitsua du egurraren garraio kostuen ondorioz. Egurraren eskarian parper-industriek duten pisu erlatiboarengatik «atzerako» nolabaiteko eragina planteatu liteke.
- 020 sektorea, Basogintza: enpresa ertain batek, bi enpresa txikiek eta mikroenpresa kopuru ikaragarriak osatzen duten sektoreko enpresa egituren ondorioz, kontzentrazio-indizea ez da oso adierazgarria. Guzti honi, inportazio kopuru altuak eta bezero industrien erosketa ahalmena gehitu behar zaio beraz, zaila egiten da sektorean merkatu boterea egon daitekeenik pentsatzea.
- 140 sektorea, Metalezkoak ez diren mineralen erauzketa: sektoreko enpresa-egiturak (enpresa handiren bat eta enpresa txiki eta mikroenpresa ugari), produktuen gutxi ezberdindutako ezaugarriek eta barne eskariaren estaldura maila baxuak, lehiaren arrisku garrantzitsuak baztertzen dituztela dirudi.
- 320 sektorea, Material elektronikoa: enpresa egiturak neurrizko kontzentrazio-indize bat aurkezten du, mikroenpresa ugariz osatutako sail zatitua, enpresa txiki anitz, enpresa handi bat eta hiru enpresa ertain aurki daitezkeelako. Produktuen izaerak eta merkatu geografiko adierazgarriak duen dimentsio europar eta globalak (barne eskariaren estaldura maila baxuarekin bat datorrenak), sektore honetan lehia-arriskuak nekez nabari izatea dakar.
- 011sektorea, Nekazaritza: bere zatikako ezaugarri bereziak direla eta, kontzentrazio maila baxuenean kokatzen da. Ezin da lehiarentzako arrisku eremua dela esan.



5

ERANSKINA

- 5.1. Glosarioa
- 5.2. Datu-iturriak
- 5.3. Ohar-teknikoak
- 5.4. Prezio-indizeen fitxa eta grafikoak<sup>216</sup>
- 5.5. Sektorekako ekoizpen, inportazio eta esportazioen fitxak. EAEko IOT Taulak<sup>217</sup>

---

<sup>216</sup> Bertsio elektronikoan soilik: [www.euskadi.net/lehia](http://www.euskadi.net/lehia), *Txostenak eta azterlanak* atala.

<sup>217</sup> Bertsio elektronikoan soilik: [www.euskadi.net/lehia](http://www.euskadi.net/lehia), *Txostenak eta azterlanak* atala.

## 5. ERANSKINA

### 5.1. Glosarioa

#### *Barne eskariaren estaldura maila, BEE, eta kanpo irekitze maila, KIM*

Barne Eskariaren Estaldura maila, BEE: EAEko barne eskariaren proportzioa bezela defenitzen da (ekoizpena, P, ken inportazioak, M, gehi esportazioak, E) zeina euskal enpresen bidez betetzen den, hau da, merkatu espainiar, europar edo globalera esportazioen ekoizpen garbiaren bitartez, P-E.

Kanpo Irekitze Maila, KIM: euskal enpresen ekoizpenaren proportzio bezela defenitzen da (ekoizpena, P) inportazio eta esportazioen bidez betetzen delarik (inportazioak, M, gehi esportazioak, E).

Esportazioak eta kanpo irekitze mailaren adierazleen aldaketa mailak, KIM, eta barne eskariaren estaldura maila, hurrengoak dira hurrenez hurren:

$$KIM = \frac{M + E}{P} = \begin{cases} 0 & \text{Si, } M + E = 0 \\ \infty & \text{Si, } P \rightarrow 0 \end{cases}$$

$$BEE = \frac{P - E}{P - E + M} = \begin{cases} 0 & \text{Si, } P = E \\ 1 & \text{Si, } M = 0 \end{cases}$$

KIM balioa, zero (kanpo merkataritza ez dagoenean) eta neurri gabe hazten den balio artean aldatzen da, ekoizpena ia nulua izan arte murrizten denean. BEE aldiz, zero, barne ekoizpena guztiz barne eskarira zuzentzen denean (ez dago ekoizpenik edo guztia esportatzen da) eta bat artean aldatzen da, inportaziorik ez dagoenean eta barne eskari guztia barne ekoizpenaren bitartez asetzen denean.

#### *Herfindahl-Hirschman indizea*

Merkatuko botere edo nagusitasunaren azterketak, Europar Batasuneko, EB, erreferentzia klasikoaren arabera, lehiakide, bezero eta kontsumitzaileen modu independentean aritzeko gaitasuna kontuan izan behar da. Merkatu botereak ohiko jardueren kostu handigoen gain marjinak finkatzeko gaitasuna suposatuz dezake ere. Horrela, enpresaren errendimendu eta irabaziak modu ez lehiakorrean haziaz.<sup>218</sup>

<sup>218</sup> Kostu marjinalen gainetik prezioak finkatzeko aukera aipatu beharko luke garbi. Hala eta guztiz ere, lehia-orekan enpresak epe luzeko batazbesteko kostu minimoetan kokatuko dira, beraz, kostuak ere epe luzeko kostu minimotzat har daitezke.

Era berean, merkatu boterea, jarduten den merkatua kontuan izanik, enpresa baten tamaina erlatiboari dagokio, hau da, bere merkatu kuotaren arabera da.<sup>219</sup> Irabazien maximotzea lortzeko prezioen finkapen politikak aztertzen direnean (kantitatean lehia eredu batean eta enpresa berdinaren arteko produktu homogeneoekin) Nash-en orekak bere merkatu kuotaren,  $s_i$ , berdinak diren enpresarekiko marjinak eskaintzen ditu, eskariaren elastizikotasunaren bitartez haztatua dena,  $\epsilon$ .<sup>220</sup> Ondorioz, merkatu boterearen edo monopolio graduaren adierazpena hurrengoa da:

$$l_i^* = \frac{s_i}{\epsilon}$$

Enpresa zehatz bat kontsideratetik sektore oro bateko merkatu boterea edo monopolio maila aztertzerako pasatzen bada, beraien enpresen merkatu boterearen indizeen batzbesteko balioa erabiliko da.<sup>221</sup>

Beraz, industria edo sektore osoarentzako,  $L$ , lotutako monopolio edo merkatu boterearen indizea hurrengoa adierazpenaren bitartez adierazten da:

$$L = \sum_i s_i \cdot l_i = \sum_i \frac{s_i^2}{\epsilon} = \frac{HHI}{\epsilon}$$

non  $HHI$ ak, Herfindahl-Hirschman kontzentrazio-indizea adierazten duen eta sektoreko enpresen merkatu kuoten karratuen batura bezela definitzen den.

Herfindahl-Hirschman kontzentrazio-indizeak, HHI, oinarri teoriko sendoa izateaz gain, intuiziozko esanahi garbia du. Enpresen tamaina erlatibo eta beraien banaketa kontuan hartzen du. Tamaina txikia duten —edo antzekoa— enpresen kopurua handi denean zeroruntz hurbiltzen da eta aldiz enpresen kopurua gutxitzen denean edo beraien arteko tamaina diferentziak handitzen direnean HHI handitu egiten da.

---

Zentzu honetan, merkatu boterearen edo monopolio mailaren Lerner indizeak intuiziozko esanahi garbia du.

#### LERNER INDIZEA

Kostuaren gainean aplikatutako marjina bezela definitzen da.

Enpresa partikularra «i» azpiindizearen bidez izendatzen bada, monopolio maila,  $l_i$ , prezio erlatiboaren marjinen bitartez emango da,  $p_i$ , batzbesteko kostuekiko,  $c_i$ , hau da:

$$l_i = \frac{p_i - c_i}{p_i}$$

<sup>219</sup> Intuiziozko erlazio hau, industria-ekonomia eredu berrietatik ondorioztatzen da ere.

<sup>220</sup> Bultzatzen dituen prezioen aldaketarekin erlazioa duten saldutako kantitateen aldaketa erlatiboaren indizea.

<sup>221</sup> Beraz, indize hauen batzbestekoa kalkulatzeko bada, enpresa bakoitzaren garrantzia bere merkatu kuotaren bidez haztatuz, balio honen bitartez biderkatuko da berriz ere eta formularen karratu moduan agertuko da.



HHIa merkatu kuoten baturaren karratu bezela adierazten da. Normalean ehunekotan ematen da eta beraz, hurrengo balioen artean mugitzen da:

- Erabateko monopolioak maximoa eskuratuko luke, 10.000. Enpresa bakar baten kasua, merkatuko %100,

$$\text{HHI} = 100^2, \text{ hau da hamar mila (10.000)}$$

- Bi enpresa berdinean dituen duopolioak 5.000 balioa eskuratuko luke. Bakoitzak merkatu kuotaren %50a duten bi enpresen kasua,

$$\text{HHI} = 50^2 \times 2 = 2.500 \times 2 = 5.000$$

- Lau enpresa berdinek, kasu honetan 1.600 balioa eskuratuko lukete. Bakoitzak merkatu kuotaren %20 izango lukeelarik.

$$\text{HHI} = 20^2 \times 4 = 1.600$$

- Ehun enpresa berdinek 100 balioa izango lukete. Bakoitzaren merkatu kuota %1 izango litzateke beraz:

$$\text{HHI} = 1^2 \times 100 = 100$$

Adibide hauek HHI edo **Enpresen Baliokidea den Zenbakia, EBK**, modu ezberdin batean erabiltzeko aukera erakusten dute. Hau da, HHI balio zehatz batean sortuko liratekeen enpresa berdinen kopurua. Enpresak berdinak direnez, beraien merkatu kuotak 100 zati EBK izango lirateke eta ondorioz adierazpen hau lortzen da:

$$\text{HHI} = \text{EK} \cdot \left( \frac{100}{\text{EK}} \right)^2 \Leftrightarrow \text{EK} = \frac{10000}{\text{HHI}}$$

HHIak hedapen eta babes handi lortu du Estatu Batuetan enpresen kontzentrazio eragiketen kontrolaren erabileraren ondorioz. Normalean kontsideratutako balioak Justizia Saila eta Merkatal Batzorde Federalaren (Department of Justice and the Federal Trade Commission. *Merger Guidelines*) fusio ebaluazioen jarraibideetan enuntziatutako irizpideetan oinarritzen dira. Fusioen lehia-eraginaren baloraketaren abiapuntu bezela hartzen diren mugak hauek dira:

- Puntu azpitik sektorea ez da lehiakorra kontsideratzen.
- 1000 eta 1800 puntu artean neurrizko kontzentrazioa kontsideratzen da.
- 1800 puntu gainetik sektore kontzentratua kontsideratzen da.

Ikerketa honetan sailkapen hau erabiliko da sektoreak hurrengo kontzentrazio mailak kontuan izanik:

- Baxua (1000 azpitik).
- Neurrizkoa (1000 eta 1800 artean).
- Altua (1800 eta 3000 artean).
- Oso altua (3000 gainetik).

Hala ere, agintari gehienak eta lehia politikan adituak direnak ere merkatu kuotetan (kuotak berak edo HHI bera) oinarritutako adierazleak oinarrian ebaluaketa tresnak edo abiapuntuak direla diote eta sektoreko lehia efektiboa osatzen duten baldintza eta faktoreen ingurune zabalagoan baloratu behar direla.

### ***Merkatu boterearen baloraketa faktoreak***

Merkatu boterearen hurbilketa, lehenik kontzentrazio mailak, HHI, aztertuz egiten da baina hasierako emaitza hauek merkatuan modu esplizituan eragiten duten faktoreak kontuan izanik baloratu behar dira. Beraien eragina eskariaren elastikotasun aldaketen bidez burutzen delarik<sup>222</sup> (eta eskaintzarena, sektoreak erakartzen duen beste eskaintzaile baten salementen desplazamendua). Guzti honek, beste faktore garrantzitsu batzuk kontuan hartzera bultzatzen gaitu, hala nola, merkatu adierazgarriei dagozkienak (produktu eremua eta geografikoa)<sup>223</sup> eta merkatu boterearen baldintzatzaileak direnak.<sup>224</sup>

Merkatu adierazgarriaren zehaztapenari dagozkion faktoreen artean, produktuen eremuan hurrengoak nabarmendu daitezke; ondasun eta zerbitzuen erabilpen ezaugarriak, kontsumitzaileen lehentasunak eta bezeroen eskakizunak, merkatuen denbora dimentsioa eta urte-sasoikoa, hurrengo produktu ordezkagarrien sektoreak (beira eta plastikoa, garraio mota ezberdinak, etab), bigarren mailako merkatuak (batez ere ondare iraunkor eta ordezeko piezentzako), merkatuen egonkortasuna edo iraupena.

EAEko Ekonomiaren Lehia-Egoeraren kasuan, merkatu adierazgarriaren dimentsio geografikoak eragin erabakiorra du. EAEn kontzentrazio handi bat merkatu zabalagoetako (estatu, europar edo globala) eskaintzen bidez errez orekatu edo ezeztatu ahal izango litzateke. Hori dela eta, prezioen eboluzioaz gain eta kanpo irekitze mailaz gain, KIM, barne eskariaren estaldura mailak, BEE, toki garrantzitsua du euskal ekonomiaren sektore ezberdinetan lehia-arriskuaren mailaren lehenengo balorazio baterako kontuan izan behar diren faktore nagusien artean. Sektoreko inportazio eta esportazioen garrantzia eta kontzentrazio-indizeak erabiliz gainontzeko estatuko merkatuarekin egiten dituen eragiketak eta euskal ekonomiaren sektore ezberdinetan arrisku edo «lehiaren semaforoaren» hasierako matrizea lantzeko dimentsio nagusiak bezela, barne eskariaren estaldura maila ere kontuan hartzen da.

Kontzentrazio-indize eta merkatu kuoten bidez egindako merkatu boterearen hurbilketaren ondorioz, merkatuko partehartzearen pisua aldatzen duten beste

<sup>222</sup> Gogoratu sektore bakoitzeko monopolio maila (Lerner indizea, kostuen gaineko gehiegizko prezioen batzbestekoa) HHI kontzentrazioaren eta bere eskariaren elastikotasunaren arteko zatiduraren bidez adierazten dela.

<sup>223</sup> Merkatu adierazgarriari dagozkion aspektuak aztertzen dira zeinak kualitatibo diren balorazio faktoreak bezela erabili behar diren, gehienetan prezioen informazio egokia izaten ez delako eta beste askotan, prezio terminuetan egindako analisiak ez direlako erabakigarriak izaten.

<sup>224</sup> Merkatuko boterearen beste faktore eta baldintza batzuk ere kontuan hartzen dira, hala nola, kanpo irekitze maila, sarrera hesiak, bezero eta hornitzaileen arteko botere konpentsatzailea eta beste-lakoak.

faktore lehiakorrek kontuan izan behar dira, hala nola, sarrera askatasuna, erosle eta bezeroen arteko boterearen kontrapisua eta gertuko ordezkoen presentzia.

Sarrera askatasuna, lehiakide berrien sarrera probabilitate edo erreztasun mailari lotzen zaio. Lehia potentzialak enpresen prezioen igoerak disziplintatzeko aukera ematen du eta erantzun maila altua duten merkatuen kasuetan, emaitza teorikoek kostuekin zuzenean dauden prezioen egoerak aurikusten dituzte. Eredu honetan sarrera hesien existentzia kontuan izatea beharrezkoa da, batez ere barneratutako kostuen existentziari lotuta daudenak (merkataritze kasuari dagokion moduan, publizitate eta nabaritasuna, eta gaitasun eta berrikuntzan bestelako inbertsioak); zenbait baliabide eskuratzeko zailtasuna eta beste mota batetako erakunde edo hesi legalak.

Bezeroen negoziaketa botereari dagokionez, sektore erosle edo bezeroen kontzentrazio-indizea kontuan izango da. Arrazoi hau dela eta, handizkako eta txikizkako merkataritzako sektoreak aipamen zehatz baten objektu dira, enpresa datu-baseen ikuskapenen dentsitateak onartzen duen punturaino.<sup>225</sup>

### **Prezioen korrelazio frogak (Stigler y Shervin, 1985)**

Merkatu eremuak zehazten dituzten prezioen uniformetasun joerak egiaztatzeko moduak ugariak dira, baina ohikoenen eta ospe handien dutenen artean prezioen korrelazio frogak aurkitzen dira. Normalean, atalasean %80 duten korrelazio-koeffizienteak merkatu eremuak zehazteko irizpide moduan erabili ohi dira. Atalase honekiko modu esanguratsuan txikiagoak diren korrelazioak, merkatu adierazgarriaren eremuak ezberdinak direlaren ebidentzia gisa kontsideratu daitezke. Dena dela, aipatutako atalasea gainditzen duten emaitzekin oinarritutako ondorioak lortzea zailagoa da.

Prezio ilaren (gure kasuan, produktu aniztasun edo eremu geografiko ezberdinetako prezioak) arteko elkar-lotura edo kausalitate faltatik sortutako korrelazio faltua ohiko arazoa da. Prezioak, hirugarren kausa amankomunen eraginaren ondorioz korrelazionatzen dira soilik (ekonomian oso ohikoa den zerbait da makroekonomia, inflazio eta inguruetako eraginaren ondorioz).

Indize edo adierazle konposatuak erabiltzen direnean, emaitzak gehiago korapilatzen dira. Bi eremu geografiko ezberdinen artean ematen diren prezio ilaren arteko korrelazio falta, ez da merkatuko eremu adierazgarriaren segmentazioan ematen baizik eta indizeak zenbatzen diren saskietan barneratzen diren produktuen konposaketa eta kalitate (*quality mix*) konposaketetako norabide edo aldaketetan eman daiteke.<sup>226</sup>

<sup>225</sup> Merkatal sektoreetan hondoratutako kostuak eta ezarpen zailtasunak existitzen dira. Hori dela eta, sarrerak eskuratzearen bidez ematen dira edo nahiz eta gutxiagotan gertatu, beste instalazio berrien ezarpenaren bidez, sektoreko nazioarteko talde handien kasuetan salbu.

<sup>226</sup> Prezioen diferentziak kostuen diferentziatik eratorri daitezke (sare industriren kasua edo aktibo finkoen erabilpen mailaren menpekotasuna duten beste batzuk) edo askotan gertatzen den bezela, gama eta kalitate konposizio ezberdinetatik eratorri daitezke.

Merkatuko eremu adierazgarrien definiziorako ebidentzia gisa prezioen diferentzien erabilpena mugatzen duten oinarritzko arrazoietakoa bat da hau.

Prezioen diferentziak, kontzentrazio eragiketen (De Havilland, adibidez) balorazio kasu batzuetan ere erabili izan dira baina kasu gehienetan ez dute informazioerik ematen edo ezin dute informazioerik eman. Guzti honen funtsezko arazoa, kostuen gainetik prezioak finkatzeko gaitasuna merkatuko eremu bereko beste espazioetan lehiakideen erreakzioen bidez zein neurritan disziplinatua dagoen da.

## 5.2. Datuen iturriak

### *Datu-baseak: aurregogoetak*

Ikerketa, ahalik eta era zuzenenean bildutako informazio bilketaren bidez planteatu da, hau da, enpresa establezimenduetan bildutako informazioaren bidez. Ondorioz, enpresa da, ekoizpenaren oinarritzko unitatea bezala, ikerketaren aztergaia eta erabilitako informazioen sorlekua edo iturria.

Datuak, funtsean, SABI (Iberiar Balantzeen Analisi Sistema) datu-basetik jaso dira. Hala ere, hainbat iturri osagarri erabili dira, datu hauek osatu eta arazteko (urteko memoriak, web orrien kontsultak, enprekin izandako zuzeneko hartu-emanak, alor desberdinetako elkarteak, etab.) eta baita beste hainbat iturri ere, ALIMARKET zentsoak bezala.

Jarduera sektore gehienetan 2004. urteko datu ekonomikoak erabili dira, informazioa homogeneotzeko asmoz, ez baitzegoen enpresa gehienen ondorengo datu ekonomikoak lortzeko bermerik.

Hala ere, 2000, 2002 eta 2004ko garapen ekonomikoa ere aztertu da, jardueraren sektorearen egitura eman diren aldaketa posibleak aztertzeko.

Era berean, zenbait kasutan, 2004. urtea ondorengo epean, enpresen arteko eragiketa korporatiboak antzeman dira (bat-egiteak, batik bat), eta hauek sektoreari buruzko informazioa aldaerazten dute, ikerketan islada izan dutelarik. Kasuren batean, eta aparteko moduan (puntako erakundeen 2004ko datu ezagatik edo datu basearen oinarrian sorturiko arazoengatik), ez da datuen homogeneotasuna errespetatu aztertutako epeari dagokionez, eta data desberdinetako ustiapenen sarreraren kopuruak erabili dira, puntu hau txostenean jaso delarik.

Enpresa unitateak, negozio motaren arabera biltzeko erabili den sailkapena EJSN (Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala) izan da. Honi esker, gutxieneko homogeneotasun bat duten enpresa taldeekin lan egiteko aukera izan da, alor ekonomiko zehatzak izendatuz. Era berean, gehienetan EJSNko hiru digiturekin lan egin da eta, zenbaitetan lau digiturekin, enpresa unitate desberdinen<sup>227</sup> zehazta-

<sup>227</sup> Enpresa askok antzeko negozio baten zenbait zatitan lan egiten duten filialak dauzkate. Posible da CNAEko bi digituen mailan filial guztiak sektore berdineko taldean kokatzea, baina kode desberdinak izango dituzte hiru edo lau mailako digitutan.

sun oinarrikoenetan murgiltzeko. Hala ere, arau nagusi bezala, aurkezten diren emaitzak bi eta hiru digituren mailan zehazten dira, besteak beste, aurkezturiko jardueren zerrenda luzeegia izan ez dadin.

Sektoreetako azterketak lotutako bi dimentsio bateratuz egin dira. Lehenengo, enpresaren eremuan bereizitutako datuak dira abiapuntua eta, bigarrenaz, EUSTATen *Input Output* Taulak eskaintzen duen euskal ekonomiaren sektoreko egituraren informazio estatistikoa erabiltzen da. Ekoizpenaren inguruko datuak eta IOTen balore erantsiaren datuak, alde batetik, datu basearen enpresen adierazgarritasun eta estalduraren egiaztapen iturri bezala erabili dira, eta, bestetik, sektore desberdinetarako dagoen barne eskaeraren estalduraren maila aztertzeko iturri moduan.

Bi arrazoi nagusi daude sektoreko lotura maila egokiak aukeratzeko. Arrazoietako bat zehatza da eta ekonomiaren sektoreko egituraren estatistika informazioari lotuta dago. EAEko IOTen sailkapen irizpideetatik dator. Bigarren arrazoiak orokorra da eta bereizketa maila egokiarekin eta jardueraren sailkapena zehazteko orduan sortzen diren arazoekin harremana du.

Arrazoi zehatzei dagokienez, EAEko IOTk 101 produktuetako sailkapen bat eskaintzen du, erantsitako balorearen konposaketa eta bere sorrera geografikoarekin (barne ekoizpena, gainontzeko Estatuko, Europako eta munduko inportazioak), eta hauentzat, gainera, norakoa edo azken eskaera eta esportazioetako (gainontzeko Estatua, Europa, etab) sektore desberdinetan ematen zaien erabilpena zehazten da. Produktuen arabera egindako sailkapen hau ez dator erabat bat EJSNrekin, baina EJSNren hiru digitutako azpitaldeen nahiko antzekoa da eta gehienetan baliokidetzak finka daitezke. Arrazoi hau dela medio, ikerketan EJSNren hiru digitutako bereizketa maila erabili da sarri.

EUSTATEk SEC<sup>228</sup> 95ean oinarritutako metodologia erabiliz sorturiko taulek ekoizpenaren ohiko baloreak eta hauen jatorri eta norakoak ematen dituzte, EAEko ekonomia sailkatzen den 101 produktu sektorialentzat.

*Input Output* Taulak eskaintzen duen informazioa oso baliotsua da, erabilitako metodoaren zorrotzasun eta koherentziagatik. Nahiz eta produktuen arabera egindako sailkapena ez bat etorri EJSNrekin, sailkapenaren zehaztasunak EJSNko azpitaldeak gehienetan hiru digitutara hurbiltzea posible egiten du.

Alde batetik, IOTko sektoreetako ekoizpen datuek, fakturazio balioak eta sektoreko sozietateen kontuetatik lorturiko ustiapen sarrerak kontrastatzea posible egiten dute. Sozietate hauek kontzentrazio-indizea kalkulatzeko erabiltzen diren enpresen datu baseetan sarturik daude.

Bestalde, IOTen inportazio eta esportazio totalak merkatu espainiar, europar eta osoan ematen diren fluxu komertzialak biltzen dituztenez, barne eskariaren estalduraren maila baiestea posible egiten dute Adierazle hau, kanpo irekitze mailarekin erabat erlasionaturik dagoena (baina alderantzizko moduan), EAEko enpresek asetzen duten barne eskariaren proportzioa esplizitu bilakatzen duelarik eraiki da.

<sup>228</sup> Europako Kontu Sistema.

Bereizketa maila egokiari dagokionez, lau digituren mailako lana oso konplexua dela adierazi behar da, erabili den informazio kopurua handia izan delako. Hala ere, lan honek bereizitako emaitzak lortzeko aukera ematen du eta, zenbaitetan, argigarriak dira. Hala eta guztiz ere, bereizketa maila oso altua denean, alde bate-tik, enpresen (EJSNko lau digitutara) kontzentrazio koefizienteak artifizialki igotzen direla gertatzen da (klasifikazio oso finetan enpresen kopurua txikitzen baita) eta esanahia galtzen dute. Baina, bestalde, enpresa eta dimentsio handiagoko enpresa taldeen jarduerak artifizialki zatikatzen dira.<sup>229</sup>

Bestalde, ikerketa honek, beti, izen desberdinekin biltzen dituzten enpresa talde garrantzitsuak lokalizatzeko saiakera egin du. EJSNko jarduera berdinean (edozein bereizketa mailan), bi, hiru edo enpresa gehiago egon daitezke, itxuraz independenteak baina enpresa matriz berdina dutenak eta hau enpresa talde desberdinekin batera gerta daiteke (hots, beste talde bat beste bi, hiru edo lau enpresekin). Era honetan, beraien artean lehian ari direla dirudien firma txiki mordoa izan daitezke, baina erakunde berdinarean jabetza izanik, monopolio edo oligopolio egoera bat gordetzen dutenak.

Beste gaietako bat, enpresa bakoitza sektore edo jarduera bateko atal zehatz batean lekutzea da. Sarritan, enpresak jarduera desberdinak izaten ditu eta, askotan, mailaketa berdinean egoten dira (bereizketako bi digitutako mailan), baina bestetan maila desberdinetakoak izaten dira. Hau da, enpresa batek atal berdin batean zenbait jarduera izatea gerta daiteke.<sup>230</sup> Kasu honetan, enpresak jarduera bat edo bestea aitortu dezake eta, ondorioz, ikertzen den datu-basearen arabera, atal batean edo bestean ager daiteke, ondorioetan bihurdurak sortaraziz. Adibide bezala jarritako kasuan, mahai gainean jarritako arazoa ez litzateke larriegia izango, bi digitutako ikuspuntura joango bagina, arazoa konponduta geldituko litzateke, egindako jarduera guztiak atal berdinarean barnean sartuta geratuko liratekeelako. Hala ere, hauxe gerta daiteke mailaketa desberdinetan gelditzen diren jarduerekin eta azterketa konplexuagoa bilakatzen da.<sup>231</sup>

Bestalde, sarritan gertatzen da enpresa batek jarduera zehatz bat izatea eta, era berean, beraien produktuak merkaturatzea.<sup>232</sup> Hau, esan den moduan, sarritan

<sup>229</sup> Jarduera berdina edo antzekoan aritzen diren enpresa edo enpresa taldeak bereizketa maila oso garaian ez agertzea gerta daiteke (eta, egia esan, sarri gertatzen den zerbait da), jarduera horretako atal bakoitza enpresa desberdin batek hartzen baitu beregain. Arrazoi hau dela medio, aipaturiko bi mailetan lan egitea garrantzitsua da eta lehentasuna eman behar zaio gutxieneko bereizketari, xehetasun maila handiagoko mailetan enpresa talde garrantzitsuak begiz ez galtzeko.

<sup>230</sup> Enpresa batek bere jarduera 60 Taldearen barnean garatzen du. Lurreko garraioa; hodi bitartez egindako garraioa, 6010 epigrafean zehazki, Tren-garraioa, baina 6021 epigrafean ere jarduera duena, Bidaierien beste ohiko garraio batzuk. Adibidez: SOCIEDAD PÚBLICA EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A, EUSKOTREN bezala ezagutzen dena.

<sup>231</sup> Adibidez, 853 azpisektoreko enpresa ezagunak, LANTEGI BATUAK eta TALLERES USOA LANTEGIA, S.A., Gizarte Zerbitzuetarako Jarduerak dituzten bi enpresa ezagun, zeinak lanaren bidez ezgaien gizarteratzea bilatzen dutenak ez dira epigrafe honetan ageri, 45 Taldean baizik. Eraikuntza, eta 18. Jantzigintza eta larrugintza, beraien jardueretako batzuk talde hauetan lekutu daitezkeelako.

<sup>232</sup> Kasu honetan, bere ustiapen jardueraren atalean (bi digitu) sailkatuta egon liteke edo merkaturatze jardueran.

gertatzen da, eta ondorioz, datu-base desberdinekin lan egiten denean (nahiz eta osagarriak izan, kasu honetan bezala), disfuntzioak sor daitezke, hau da, gerta daiteke enpresa bat kasu batean atal zehatz batean agertzea eta bestean beste atal desberdin batean.

Errealitate honek sortarazi ditzakeen nahasketak argitzeko, SABIk proposatzen duen sailkapena jarraitzea erabaki da. Orokorrean, azpiatal bat baino gehiagotan izen emateko aukera onartu da, bikoizketak ekiditeko behar haina arreta jarritz. Kasu zehatzetan, alor jakin bat aztertzeke garaian, aipatutako errealitatea kontutan izan da eta hainbat enpresa birkokatu egin dira, emaitzei ahalik eta bateratasun handiena emateko.

Era berean, SABI datu-basearen ezaugarriak direla medio, zeinak Merkataritza-Erregistroan urteko kontuak utzita dauzkaten enpresa espainiarrak biltzen dituen, obligazio hori ez duten jarduerak ezagutu dira (kooperatibak edo profesional autonomoak, besteak beste). Zentzu honetan, zenbait jardueretan alor zehatz batean postu berezia betetzen duen kooperatibaren baten ausentzia edo falta aipatu da. Ondorioz, egindako kalkuluen emaitza aldagarria izan daiteke eta, era berean, Erregistroan kontuak aurkezteko obligaziorik ez duten establezimenduak ugari diren jardueretan ere errealitate hau aipatu da.

### ***Beste iturri batzuk***

Ikerketa hau egikaritzeko hainbat txosten aztertu dira eta, besteak beste, hauek aipa daitezke, ikerketan aipatutako iturriez gain:

EAEko Industria eta Esportatzaileen Katalogoa (CIVEX).  
<<http://www.civex.net/>>

Enpresa Lehiakortasuna eta Gizarte Berrikuntza: Estrategiaren Oinarriak eta Jarduera-Lerroak, EUSKADI LEHIAKORTASUN FOROA 2015.  
<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/MemoriaSPRI-CAS.pdf>>

Euskal Itsas Industriaren Sektoreko Koaderno, Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.  
<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/simvcas.pdf>

Euskal Makina-erramienten Fabrikatzaileen Sektoreko Koaderno, Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.  
<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/MaqHtac.pdf>>

Euskal Elektronika, Informatika, Telekomunikabide eta Multimediaiko Sektoreko Koaderno. Atalaren deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.  
<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/gaiafc.pdf>>

Euskal Aire-Espazioko Sektoreko Koaderno. Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.  
<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/heganfc.pdf>>

Euskal Automozio Hornitzaileen Sektoreko Koadernoa. Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.

<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/acicaefc.pdf>>

Euskal Industria Kimikoaren Sektoreko Kuadernoa. Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.

<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/indquimicacast.pdf>>

Euskal Paperaren Sektoreko Koadernoa. Sektorearen deskripzioa eta osatzen duten enpresen xehetasunak.

<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/papelcast.pdf>>

EAEko Erkideko Autonomoko garraioaren egoerari buruzko Diagnostikoa.

<[http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-430/es/contenidos/informacion/2911/es\\_4077/es\\_15717.html](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-430/es/contenidos/informacion/2911/es_4077/es_15717.html)>

Euskal Ekonomia - Sektorearen Garapena (1976-2001), Euskadiko Kutxa.

<[http://www.cajalaboral.com/caste/cajalaboral\\_informa/economia\\_vasca.asp](http://www.cajalaboral.com/caste/cajalaboral_informa/economia_vasca.asp)>

EUSKAL INDUSTRIA ENPRESAREN LEHIAREN FAKTOREAK, -Enpresari Ego-  
kitutako Ekonomi Institutua, UPV/EHU, ISBN: 84-88940-98-X.

<<http://www.euskadi2015.net/>>

URTEKO TXOSTENA 2006, Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Administrazio Pu-  
bliko Saila.

<[http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19220/es/contenidos/informacion/estudios\\_publicaciones\\_dep/es\\_publica/adjuntos/informe2006\\_c.pdf](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19220/es/contenidos/informacion/estudios_publicaciones_dep/es_publica/adjuntos/informe2006_c.pdf)>

PCTI 2010, Zientzia Plana, Teknologia eta Berrikuntza.

<<http://www.spri.es/web/docs/pcticast.pdf>>

Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Plana 2006/09.

<<http://www.spri.es/web/docs/publicaciones/plancast.pdf>>

C-INTEREG PROIEKTUA.

<<http://www.c-interereg.es/objetivos.asp>>

### 5.3. Ohar teknikoak

#### *Prezioak eta merkatua*

Merkatuko boterea, lehia efektiboaren parametroei dagokien prezioen zenbate-  
koa baino gehiago igotzeko gaitasunarekin lotzen da. Honek esanahi du, prezioen  
igoerak salmenten galerarekin zigortzen direla. Salmentak aldatu egiten dira edo  
beste produktuetara zuzentzen dira (eskariaren aldaketa) edo beste ekoizleenga-  
na (eskaintzaren aldaketa). Produktu bat edo produktu talde baten lehia murriz-  
ketak, eskari eta eskaintzaren aldaketaren ondorioz ematen dira.

Aldaketa gradu hau da, zehazki, merkatu adierazgarriaren definizioa osatzeko  
gakoa bere bi alorretan: produktu-merkatua eta merkatu geografikoan. Produk-  
tuaren alorrean, monopolio aurkako politika edo kontzentrazio eragiketen kon-



trol politiken azterketak, prezioen igoera txiki eta iraunkorren aurrean monopolista hipotetiko batek duen erreakzioan oinarritzen dira.<sup>233</sup> Haatik, sektoreko ikerketa batean prozedura hauek ez lukete balioko.

Sektorekako ikerketa honetan egokiagoa da Marshall-en merkatuaren eremuen definizio klasikora jotzea: merkatu eremu bat, bere homogeneousunarengatik definitzen da, informazio eta prezioen bidez egindako esleipenaren espazio gisa. Prezioen baterakotasunerako dagoen joera, merkatu eremuaren definizioan oinarritzko elementua da, nahiz eta eremu geografikoan prezioek duten joerei erreparu egin beharko zaie, garraio kostuen eragina kontutan izanik.

### **Prezioen indizeen inguruko oharak**

EAEko enpresa egituraren osagarri bezala, ezinbestekotzat jo da prezioek ekonomia orokorrean, eta zenbait sektoreetan zehazki, izan duten garapenaren azterketa bat egitea, aldagai garrantzitsu eta esanguratsuak baitira merkatuaren boterean saltzaile eta, bere kasuan, erosleek burutzen dutena. EAE eta Espainian (bai estatu mailan eta baita erkidego autonomoetan ere) prezioen indizeen ikerketa bateratuak, ez du bakarrik prezioen gorako edo beherako joera agertuko, eremu geografiko desberdinen arteko azterketa konparatiboak egiteko aukera emango du baizik, alor bakoitzean esanguratsuak diren eremuak zehaztuz.

Kontsumo-prezioen indizea, KPI, izan da prezioen garapenaren ikerketa egiteko aukeratu den neurri estatistikoetako bat, erosketaren boltsa osatzen duten ondasun eta zerbitzuak kontutan hartzen baititu eta Espainian familia etxeetan bizi diren biztanleek eskatzen baitute. Indize honek, ondorioz, familien kontsumoa islatzen du eta kontsumitutako ondasun bakoitzaren garrantzia kontutan izanik, KPI zehazten da.

KPI errubrika, azpitalde eta atal berezietan banatu da, estatuko datuak eta Erkidego Autonomoetako datuak erabiliz. 2002ko urtarriletik 2007ko ekainera bitarteko hileroko datuak erabili dira, nahiz eta aurkezpenean (sinplifikatzeko asmoz) urte bakoitzeko urtarrila eta ekaineko datuak soilik agertu.

Elementu zehatzak biltzen dituzten errubrikak erabili dira, hala nola, ogia, arraultzak, etab. Azpitaldeak, ordea, ez dira hain zatituak ageri eta batzuk bakarrik aukeratu dira, adibidez: ibilgailuak edo finantza zerbitzuak. Sektore berezietan dagoenez, talde bateratuagoetan ageri dira eta, ondorioz, banaketa askoz ere txikiagoa da, adibidez, etxe alokairurik gabeko zerbitzuak.

Beste neurrietako bat Industria Prezioen Indizea, IPI, izan da, beraien merkaturatzeko lehenengo pausuan barne merkaturan fabrikatu eta saltzen diren industria produktuen hileroko prezioen garapena neurritzen duen adierazle koiunturala, hau da, establezimendu industrialek egiten dituzten transakzioetan fabrikatik ateratzen direnean produktuek duten salmenta prezioa, garraio gastuak eta

<sup>233</sup> Monopolista Hipotetikoaren Irizpidea edo *Small but Significant and Non-transitory Increase in Prices* (SSNIP): Merkatu bateko parte dira, monopolista hipotetiko batek prezioak modu garrantzitsu eta iraunkor batean (%5-10) igo nahiko litzuzkeen produktu edo lurraldeak, prezio lehiakorrekiko.

merkaturatze gastuak eta BEZa kontutan izan gabe. Prezioen dibergentzia handiagoa izan litekeen sektorereako bakarrik aukeratu dira indizeak, hala nola, energia, kontsumo iraunkorreko ondasunak, iraunkorra ez den kontsumoko ondasunak, etab

Prezioen indize hauekin, EAEko indizearen koizientea kalkulatu da Estatua eta aukeratutako Erkidego Autonomoekiko (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balearrak, Kantabria, Katalunia, Castilla-Leon, Madril, Nafarroa).

Datu hauekin, garapen grafiko batzuk egin dira eta, ondoren, erregresio logaritmiko bat egin da, EAE eta Estatuko batazbestekoaren artean prezioen indizeen hazkunde tasen desberdintasunaren adierazle bat lortzeko, aztertutako urteetan. Erregresio honetan menpeko aldagai bezala EAE eta Estatuko indizeen koizientea hartu da eta denbora azalpen aldagai bezala erabili da bere garapena aztertzeko. Lortutako datuekin konstantearen logaritmo nepertarra kalkulatu da eta  $t$  balore estatistikoa, prezioen dibergentzien adierazgarritasuna ikusteko, egia esan, prezioen indizeen garapenean dibergentziak.

### ***Ohar metodologikoak. Kontzentrazio indizeen kalkulua***

Irizpide metodologiko eta Eranskinetako (5.2 epigrafea) oharretan zehazten diren berezitasun teknikoaren arabera, kontzentrazio-indizeak kalkulatu dira EJSNko bi digitutako klasifikazioko taldeen enpresen oinarrian eta interes handiagoa izan dezaketen lau digitutako alorrak bereizi dira. Hala ere, oreka bat mantentzeko ahaleginak egin dira, bereizketarekin laginaren enpresa kopurua gutxitzen baita, eta honek kontzentrazio-indizeen gehiegizko handitzeak ekar ditzake, bat ere esanguratsuak ez direnak.

Jarduera desberdinetan enpresa eta enpresa taldeen fakturazio inputaziotik sortarazten diren arazoak konpontzeko ahalegina egin da, ahal den neurrian talde berdineko enpresak jarduera berdinean kontsolidatuz. Beste kasutan, ohiko arazoak sortu dira EAEko merkatuari Estatuko edo Estatuaz gaineko esparrua duten enpresa edo taldeen salmenten bolumena egotzi zaionean eta gerturaketa bat egi- tea interesgarria zen alorretan (elikagaia oinarria duen txikizkako mertaritza edo bankua) zifra komertzial eta bulegoen kopurua hartu dira kontutan.

Haatik, kasu gehienetan, kontzentrazio-indizeak enpresen datu baseetan, eta bereziki SABIIn (Iberiar Balantzeen Analisi Sistema) jasotako enpresen salmenta kopuruen arabera aintzat hartu dira.